



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko azaroaren 13a

97. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Gizarte zerbitzuei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Gizarte zerbitzuei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Gizarte zerbitzuei Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dai-tezen agindu dut. Proiektu hori 2006ko urriaren 6ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-lean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoarekin bat, honakoa eskatzen du: Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion.

Zioak: Lege proiektuaren zioen azalpenean aitortzen denez, arautze berri bat behar da, gizarte zerbitzuei baliatzeko aukeraren unibertsaltasuna aitortuko duena. Aipatzen da herritarrek zer prestazio izateko eskubide subjektiboa izanen duten, homogeneizaziorako zer elementu ezarri diren lurralde osoan eta gaur egungo gizarte zerbitzuak nola berrantolatuko diren –gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak eta gizarte zerbitzuen barrutiak bereiziz–. Hala ere, artikuluetan ez dira behar bezalako argitasun eta zehaztasunez ezar-tzen kontzeptu eta eskubide horiek guztiak.

Gizarte zerbitzuen sistemaz baliatzeko eskubi-dea ez da modu unibertsalean jaso. Naziokotasunak edo administrazio egoerak mugatzen dute eskubide hori.

Gizarte zerbitzuen printzipio gidariei dagokie-nez, botere publikoek herritarrei bermatu beharre-

koak aipatzen direnean, ez dira gizarte zerbitzuak bermatzen, baizik eta haien eskuragarritasuna.

Hurbiltasuna eta decentralizazioaren printzipio-an eta, era berean, administrazioen arteko koordi-nazioa eta lankidetzaren printzipioan ez da toki entitateen aipamen espliziturik egiten (gure ustez, funtsezkoak dira), baina azken printzipio horretan bai aipatzen da, ordea, ekimen pribatua.

I. tituluan, “Eskubideak eta betebeharrak”, behar adinako informazio egiazkoa modu ulerga-rrian jasotzeko eskubidea aipatzen denean, ez da esaten informazio hori norberaren hizkuntzan eman behar dela eta hartzailearen ezgaitasun-egoerara egokitua.

Iradokizunak eta erreklamazioak egiteko esku-biderik ere ez da jaso.

Egoitzako zerbitzuen eskubideei dagokienez, ez da parte hartzeko eskubidea ageri.

II. tituluan, “Gizarte zerbitzuen sistema publi-koa”, sistemaren partetzat hartzen dira administra-zio publikoek zuzenean emandako zerbitzuak ez ezik gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateen bidez zeharka emandakoak ere.

Prestazio tekniko nahiz ekonomikoak bermatu egin daitezke edo ez. Eskubide subjektibo gisa, bermatutako prestazioak besterik ezin izanen dira eskatu; esan dezagun, bide batez, horiek proiektu-an ez direla inon ageri definituta, eta hori kontra-esanean dago 5. artikuluko unibertsaltasunaren printzipioarekin.

Proiektuan, definitu dira prestazio ekonomiko-ak, baina inon ere ez da esaten salbuespenezko-ak direla, ezta zerbitzu bat eskuratzearekin lotuta daudela, eta ezta horiek lortzeko zer baldintza bete behar diren ere.

Gure ustez, nahasketa bat dago eta ez da bereizten zer den prestazioen katalogoa eta zer zerbitzu zorroa. Unibertsaltasunaren printzipioa bermatzen duten beste lege batzuei erreparatzen

badiegu, kohesioaren legeari (2003) adibidez, ikusiko dugu prestazioen katalogoa legean jasoa agertzen dela, eta zerbitzu zorroa, dituen ezaugarri teknikoekin, urtero errege dekretuz onesten dela.

Proiektu honetan zerbitzu zorroari buruz baino ez da hitz egiten, eta, gainera, zorroaren onespena erregelamendu bidez garatzeko uzten da, Gobernuak foru dekretuz garatzeko alegia. Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren onspena azken xedapenetako hirugarrenean ageri da, baztertuta; ez dirudi hori bat datorrenik hurrengo urteetan, ustez, garrantzi handia izanen duen lege proiektu batekin.

Gizarte zerbitzuen planak, gizarte zerbitzuen arloko antolamendu tresnak baitira, txosten ekonomiko beharko dutela ezarri da proiektuan, baina ez da inon ere esan dirua gorde beharko dela aurrekontuan plan horien aplikazioa bermatze aldera. Gauza bera gertatzen da planifikazio orokorarekin, toki esparrukoarekin, plan estrategikorekin eta plan sektorialekin.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egiturari dagokionez, proiektuak dio zerbitzuok gizarte zerbitzuen sistema publikoko oinarrizko unitatea direla, baina ez du zehazten horien kudeaketak publikoa eta zuzenekoa beharko duela, eta hori funtsezkoa da gure ustez.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen programetan, jarduketak orain dauden lau programen bitartez gauzatzea aurreikusi da, nahiz eta ez programa guztietan. Funtsezkoa iruditzen zaigu bosgarren programa gehitzea, komunitatearen garapeneko, iruditzen baitzaigu praktikak erakutsi duela hori kontuan izan gabe lortu nahi zen zeharkakotasuna ez dela lortu. Bestalde, doakotasuna lehenbizikotan baizik ez da bermatu (Harrera eta orientabide sozialerako programa), eta hori atzerapausoa iruditzen zaigu.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egiturari, gizarte zerbitzuetako zentroek garrantzia hartu dute, oinarrizko osasun laguntzaren zerbitzuen lagungarri baitira, baina ez da horien kudeaketa moduari buruzko inongo aipamenik proiektuan, eta gure taldearentzat kudeaketak zuzenekoa eta publikoa behar du.

Beste horrenbeste gertatzen da gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuaren eskumenekin –f) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren titularitatekoak diren gizarte zerbitzu espezializatuak sortu, mantendu eta kudeatzea–, non ez baita zehazten kudeaketa horrek zuzenekoa izan behar duela.

Iruditzen zaigu lurralde-antolamenduari dagokionez, legeak Nafarroako gizarte zerbitzuen mapa zehaztu behar lukeela.

Finantzaketaren arloan, lege proiektuak arreta gehiago jartzen dio aurrekontuan dagoen diru kopuruari finantzaketa bermatua egoteari baino.

Ez zaigu onargarria iruditzen azpiegituren kasuan, aldiz, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura finantzatu ahal izatea plan estrategikoetan aurreikusirik dauden gizarte zerbitzuen azpiegitura pribatuak.

Erabiltzaileek finantzaketan parte hartzeari dagokionez, gizarte zerbitzuen zorroetan ezarriko denez (zehaztu gabe) gizarte zerbitzuen sistema publikoko zein prestaziotan eskatu ahalko zaien erabiltzaileei ordainketan parte-hartzea, legea zehaztasunik gabe agertzen zaigu berriro ere, eta dena erregelamenduz garatzeko uzten du. Gure ustez, oinarrizko gizarte zerbitzuen programek doakoak izan behar dute. Gure ustez, gainera, berdintasunaren printzipioa errespetatu nahi bada, badira beste tresna batzuk erabiltzailearen gaitasun ekonomikoaren irizpidea kontuan hartzeko, hala nola zerga-tresnak, zuzeneko zergak hain zuzen.

Kontsulta eta partaidetza organoei dagokienez, ez da onargarria gizarte zerbitzuen sistemaren planifikazioan, kudeaketan eta ebaluazioan merkataritzako entitate pribatuek parte hartzea.

Lege proiektuan organo horien zenbait eginkizun aipatzen badira ere, beste batzuk, osaketa esaterako, erregelamenduz garatzeko utzi dira. Iruditzen zaigu zenbait gai garrantzitsutan, hala nola eremu soziosanitarioa, osasuna, hezkuntza, etxebizitza, eta abar, administrazioen arteko koordinazio soila baino haratago joan beharko litzatekeela.

Gai honetan garrantzitsua iruditzen zaigu egiazko partaidetza organoak sortzea, ez kontsulta organo soilak, bai herrietan eta bai eskualdeetan.

Gizarte zerbitzuen profesionalei dagokienez, erreferentziako profesionalaren soslaia zehaztu behar dela iruditzen zaigu, bai eta oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuen eta gizarte zerbitzu espezializatuen ratioak ere. Era berean, bermatu beharko litzateke profesional batek arreta epe zehatz batean emateko eskubidea.

Ekimen pribatuari buruzko tituluan, ekimen horren erak, eskubideak eta betebeharrak zehazten dira, baina ez da bermatzen gizarte zerbitzuen kudeaketan gizarte ekimenak izan behar duela lehentasuna, eta ez etekin ekonomikoak. Proiektu inongo artikulutan ere ez da ageri planifikazioa,

kudeaketa, ebaluazioa eta kontrola ezin izanen direla inolaz ere pribatizatu (edo kanpora atera).

Gizarte ekimeneko entitateen arteko lankidetzaren beharrezkoa iruditzen zaigu. Nahitaezkoa iruditzen zaigu gizarte zerbitzuen kudeaketarako lizitazioetan gizarte betebeharrak ezartzea, eta gizarte ekimena saritu eta lehenestea, eta ez merkataritza ekimena. Horrek ez du xedapen gehigarri batean gelditu behar.

Kezkagarria gertatzen zaigu Nafarroan orokorregiak izatea baimen administratiboak lortzeko gutxieneko baldintzak, eta horien zehaztapena erregelamendu bidez egiteko uztea. Gauza bera gertatzen da baimen edota homologazio administratiboei eusteko baldintzekin, erregelamenduz garatzeko utzi baitira. Ez dirudi zentzuzkoa homologazio administratiboa lortzeko lau urteko epea ematea (hirugarren xedapen iragankorra). Epea laburtzeaz gain, gehitu beharko litzateke homologatua izateko jarduketak ez betetzeak kontratua suntsitzea ez ezik, enpresari zigorra ekarri behar liokeela administrazioarekin berriro kontratatzen saiatzean.

Hala ere, kalitatearen gaian, deigarria gertatzen da, kontuan hartuta planen edukia erregelamenduz ezarriko dela, gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak lehentasuna ematea homologazioa lortzeko dirulaguntzak emateari. Hori bai, ez dago argi lehentasunak ezartzean zer lehentasun izanen duten zuzeneko kudeaketa publikoa duten zentroek eta irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateek kudeatutakoek eta zer lehentasun irabazi asmoa duten merkataritza enpresek kudeatutako entitateek.

Ikuskapenaren arloan, ez da zehaztu departamentuak gaitutako ikuskatzaileek langile publikoak izan behar dutela; hori funtsezkoa eta nahitaezkoa da guretzat.

Iruzuraren aurkako jarduketari buruzko kapitulu bat falta dela iruditzen zaigu, funts publikoak zuzen aplikatu eta erabiliko direla zaintzeko.

Zehapenei dagokienez, uste dugu arau-hauleen motak argitu egin behar direla, ez baita gauza bera zerbitzuen erabilizalea edo horiek ematen dituen enpresa. Era berean, iruditzen zaigu zenbaitekoak bereizi egin behar direla; hori aurreikusita dago menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko estatuko legean. Lege horretan, izan ere, zaintzaileak eta zerbitzu-emaleak bereizi eta zehapenak mailakatu egiten dira.

Gure ustez, legeak zehatzago aipatu behar luke menpekotasun egoeran dauden haur eta

nerabeentzako laguntza, arlo horretako berriazko legediarekin bat. Azkenik, ez gaude inondik ere ados xedapen gehigarrietan, iragankorretan eta azken xedapenetan ezarritako epeekin, hau da, gizarte zerbitzuetako zentroak ezartzeko epearekin, zentroak egokitzekoarekin (baimen eta homologazio bidez), eta zerbitzu zorria onestekoarekin. Alderantziz, ordea, ez da inongo eperik ezarri departamentuan lanpostu publikoak sortzeko; homologazio eginkizunak izanen dituzten lanpostuak sortzeko bakarrik jarri da epea, eta ez da kontuan hartu legea izanen dena garatzeko nahitaezkoak diren beste eginkizun batzuetarako ere lanpostuak sortu beharko direla, ikuskapen eginkizunetarako esate baterako.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA -NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, osoko zuzenketa hau aurkeztu dio, ordezkotestua duena, Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Lege proiektuari.

Nafarroako Gobernuak igorritako testuaren ordezkotestua proposatzen dugu:

ZIOEN AZALPENA

Espaniako Konstituzioak definitzen duen moduan estatu sozial eta demokratikoa indartzeko eginkizunak botere publikoei eragiten die, inguruar bar zehatzak sustatu behar dituzten neurrian, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezzen; haiei eragiten die, halaber, "aurrerapen sozial eta ekonomikoa" ahalbidetzeko helburuak betetzeko lan egin behar duten neurrian ere, oztopoak kendu behar baitituzte, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztu, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte bizitzan ere.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44.17 artikulua gizarte laguntzaren arloko eskumen osoa ezartzen du.

Gizarte laguntzaren kontzeptua ez da egokia gizarte zerbitzuen esparrukoak diren eta izan beharko duten jardueraz aritzeko. Kontzeptu hori 1978ko Konstituzioak ezarri zuen, eta era horretan gure herrian gizarte babeseko sistema berri bat

ezarri ahal izan zen, bereizgarri gisa duena prestazio-eskaintza doitu egitea, laguntzaren esparru guztiez arduratzen dena: prebentzioa, babeseta eta sustapena.

“Laguntza” kontzeptua zeharo gaindituta geratu da gizarteko errealitatearen eta herritarren eskareren ondorioz; horrela, bada, gero eta gehiago urruntzen ari da hasieran izan zuen laguntza edo ongintza izaeratik, eta oinarriko beharizanaren eta hobekuntza kolektiborako helburuen esparruko kontzeptu batera hurbiltzen ari da. Aurrerapausoak ematen ari da halako eskaintza bat bihurtzera, zeinak abiapuntu gisa hartzen baitu herritarrek eskubide subjektiboak dutela beharizan horiek asetzeko baliabideak lortzeko. Ildo horretatik, beharrezkoa suertatzen ari da eskubideen lorpena bermatzea behar adinako prestazio, ekipamendu eta zerbitzuen katalogo baten bitartez, populazioaren nondik norakoak eta beharizanaren adierazle sozialen arabera, eta hori guztia, gainera, Konstituzioak taxuturiko estatu soziala definitzen duten ezaugarriekiko koherentziari eustearren. Horrek guztiak eskatzen du laguntza-modu, antolamendu, laguntzarako bitarteko eta baliabide berriak egotea, bai eta arau berriak ere. Eta oso garrantzitsua den beste zerbait: gizarte zerbitzuen esperientziatik eta berezitasunetik abiatuta, prozedura arrunt bihurtu beharreko joera bat, era integratua jarduteko. Jarduteko era horren ezaugarri dira ongizatearen estatuko beste azpisistema batzuen jarduketekin koordinaturik aritzea; adibidez, enplegu, etxebizitza, kultura, aisialdi eta osasun-sistemaren alorretakoekin.

Gizarte zerbitzuen sistema publikoa ez da bere kasa eta modu isolatuan jarduteko; aitzitik, bere izaera bera dela-eta, malgua eta integratzailea da, eta gizarte babeseko beste edozein sistemak bezalaxe, batzuetan beste sistema batzuen osagarri edo ordezkotzat gisa jarduten du. Alabaina, argi dauka osagarri edo ordezkotzat gisa jardute horrek ez duela izan behar beste sistema haien eskastasunaren ondorio, baizik eta lankidetasunean eta berdintasunean oinarrituriko langintza baten agerari, gizarte bazterketaren prebentzioan aurrerapausoak emateko eta gizarte sustapenari bultzada emateko, behar adinako babes-maila erdietsi arte. Are gehiago; bakoitzak, bere espezifikotasunetik, osotasun integratu batek gauzaturiko jarduketaren elementu gisa aritu behar du. Osotasun horren osagaiak dira “ongizatearen estatu” deritzen sistema guztiak.

Ildo horretatik, foru erkidegoak bere eskumena gauzatzeko beharrezkoa da alor honetako jarduketan gainera erantzukizun publikoaren bermea, bi jarduera-ildoren bitartez: gizarte zerbitzuen sistema publiko bat existitzea, antolatzea eta garatzea, eta ekimen pribatuaren jarduketak antolatzea, zein bere modalitatean. Ekimen pribatuaren jarduketa horiek, ekimen publikoak bezalaxe, kalitate kontrolak gainditu eta administrazio-baimena izan behar dute, jarduketa horiekin lortzen diren laguntza, homogeneizazio eta homologazio mailak izan daitezten prestazio-eskaintzaren modalitate bakoitzean eskaini beharrekoak bezainbestekoak.

Bidezkoa da gizarte zerbitzuen garapenean gizarte zibilak izan duen eta izaten segitu behar duen zeregin garrantzitsua aitortzea. Zeregin horrek jasota geratu behar du foru lege honek garatzen duen gizarte zerbitzuen eredu. Ezinbesteko zeregina da herritarren ardurakidetzat antolatu, sustatu eta hari egonkortasuna ematea, eta horretarako formula berriak txertatu behar dira, partaidetzakoak eta erabakiak batera hartzekoak, gizarte zerbitzuen plan eta jarduketetan. Horrez gain, eta dauden desberdintasun sozialak gogoan izanik, erabiltzaileen ardurakidetzat hori antolatu behar da sistema publikoaren egiazko kostuan haiek beren errenta-mailaren arabera izan beharreko partaidetzari dagokionez ere, betiere bermatuz ezen, sistemaren unibertsaltasuna dela medio, inor ezin dela sistematik kanpo geratu bere errenta dela-eta.

Martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legearen bidez arautu ziren Nafarroan gizarte zerbitzuak. Geroago, arau hori osatu egin zen urriaren 25eko 20/1985 Foru Legearekin, itunak arautzeari buruzkoarekin, eta azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legearekin, gizarte zerbitzuen arloko baimen, arauhauste eta zehapenen araubideari buruzkoarekin.

Gizarte zerbitzuei buruzko foru lege indardunak, bere garaian arau aitzindari izandakoak, sistema publiko hori garatzea ahalbidetu du, sistema horren eskaintza zabaldu du eta haren prestazioen baldintzak hobetu ditu. Harrezkero izan diren aldaketa sozial eta instituzionalak direla-eta, ezinezkoa da foru lege hari aldaketa partzialak egitea; aitzitik, gizarte zerbitzuei buruzko foru lege berri bat egin behar da, gizartearen bilakaera eta eskaria aurreikusiz etorkizunari begiratuko diona, horrela aurrerapausoak eman ahal izateko gizartearen baitako ekitate eta berdintasunaren helburuak betetzeari dagokionez, haien osotasuna eragotzi edo zailtzen duten oztopoak kenduz.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA Printzipio orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da gizarte ongizatea eta herritarrek gizarte zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide unibertsala sustatu eta bermatzea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, erantzukizun publikoko zerbitzu sozialen sistema bat arautuz eta antolatuz.

2. artikulua. Gizarte zerbitzuak.

1. Nafarroako Foru Komunitateak gizarte zerbitzuen sistema publiko bat bermatzen du, zeregin hauek izanen dituena:

a) Pertsonen, familien, taldeen eta erkidegoen erabateko autonomia eta garapen pertsonal eta sozial askea murrizten duten kausen prebentzioa, batez ere menpekotasun, ahulezia eta gizarte bazterketako egoeran daudenena, gizabanakoa gizartean guztiz integratzea lortzeko asmoz.

b) Pertsona eta kolektibo guztien bizikidetzaz erraztea eta partaidetza, bizilagunen arteko bizikidetzaz, gizarte kohesioa eta elkartasuna sustatzea.

c) Menpekotasunaren ondoriozko beharrezanez eta oinarriko baliabiderik ezari erantzutea, horretarako zerbitzuak eta prestazioak emanez.

d) Gizarte beharrezanek asetzeko lanean erki-degoak parte har dezaten sustatzea; bereziki, bizilagun-entitateek eta kolektiborik ahulenen ordezkari direnek parte har dezaten.

2. Gizarte zerbitzuak koordinatu eginen dira bizi-kalitatean eta gizarte ongizatean eragina duten sistema edo azpisistema guztiekin, hala nola osasun, hezkuntza, kultura, enplegu, etxebizitza eta beste alor batzuetakoekin, batez ere jarduketak planifikatuz eta haiek garatu ahal izateko finantzaketa-konpromisoa hartuz. Gizarte ongizatearen arloan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak ezabatze asmoz, planak eta programak taxutu eta betetzean genero ikuspuntua aintzat hartuko da.

3. Autonomiarako eta menpekotasunaren laguntzarako sistema, Estatuko legediak arautzen duena, gizarte zerbitzuen sistema publikoaren osagai da, betiere.

3. artikulua. Gizarte zerbitzuen printzipio gidariak.

Gizarte zerbitzuen sistema publikoak printzipio hauen arabera jardunen du:

1. Osotasuna, gizarte-beharrizanaren tratamendu integrala bideratuko duena, prebentzio, laguntza, sustapen eta gizarteratzearen arloetan.

2. Normalizazioa eta integrazioa, beharrezanek asetzeko baliabide arruntak antolatuz eta erabiliz, eta baliabide espezifikoak edo bereziak, ordea, berariaz horrela jokatzea beharrezkoa denean baino ez. Menpekotasunen bat daukaten pertsonentzako laguntzaren arloan, diru bidezko prestazioa ohiz kanpoko eta behin-behineko neurritzat joko da.

3. Unibertsaltasuna eta berdintasuna; horien bidez, biztanle guztiek izan behar dute gizarte zerbitzuak eskuratzeko modua.

4. Erantzukizun publikoa, gizarte arazoei erantzun bat emateko, beharrezkoak diren finantza, giza eta teknika baliabideen bitartez, bai eta bul-tzada, sustapen eta kontrolerako.

5. Plangintza eta koordinazioa, gizarte zerbitzuen jarduketara eta administrazio publikoen eta ekimen pribatuaren ekintza bateratua eta koordinatua ahalbidetuko dituena, aplikaturiko baliabideen gizarte errentagarritasun handiagoa lortzearen.

6. Deskontzentrazioa, toki entitateen bitartezko deszentralizazioa eta lurralde sektorizazioa, herritarrekiko hurbiltasun handiagorekin bitartez eragin-kortasuna handitzeko.

7. Prozesuen eta emaitzen ebaluazioa, kalitatearen kudeaketa eraginkor eta efizientea egiteko.

8. Pertsona naturalen arteko elkartasuna, egoi-liarrak izan nahiz ez izan, eta gizarte zerbitzuen garapen eta kontrolean parte hartzea.

4. artikulua. Eremua.

1. Nafarroako Foru Komunitateko egoiliar diren pertsona guztiek eta bertan dauden pasadizokoek izanen dute foru lege honetan araututako gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubidea.

2. Nafarroako Foru Komunitatean dauden atzerriarrek, erbesteratuek, errefuxiatuek eta aberrigabeek ere izanen dute gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubidea.

3. Salbuespenez, atzerrian bizi diren nafarrek gizarte zerbitzu jakin batzuez baliatzeko aukera izatea aurreikusitako ahalko da.

II. KAPITULUA Gizarte eskubideak

5. artikulua. Garapen pertsonala eta bizikidetzarena.

Nafarroako Foru Komunitateko egoiliar diren pertsona natural guztiek eskubidea izanen dute,

beren askatasunean oinarriturik, beren bizitza pertsonala garatzeko edo bizikidetzaren gune berean bizi diren pertsonekin harreman konpartitu eta asegarria izateko, inolako baldintzaren izan ez duena bizikidetzaren gune kideetako baten edo guztien inolako menpekotasun ekonomiko, psiko-sozial, fisiko, hezkuntzako edo kulturalen ondorioz.

6. artikulua. Bizitza autonomoa.

Nafarroako Foru Komunitateko egoiliar diren pertsona natural guztiek bizitza autonomorako eskubidea izanen dute, haien hautapen librean oinarriturik modua emanen diena bizi diren gizartean eskubide osoko herritar gisa parte hartzeko.

7. artikulua. Gutxieneko gizarte errenta.

Nafarroako Foru Komunitateko egoiliar diren pertsona natural guztiek eskubidea izanen dute gutxieneko gizarte errenta bat izateko, era horretan duintasunez bizi ahal izan daitezen eta elikatu, jantzi, garbitu eta bizileku bat izateko oinarritzko beharizanak ase ahal izan ditzaten.

8. artikulua. Ondasun kolektiboak.

Nafarroako Foru Komunitateko egoiliar diren pertsona natural guztiek eskubidea izanen dute sustapen pertsonal eta sozialerako diren ondasun kolektiboek askatasunez baliatu eta gozatzeko.

9. artikulua. Babes juridikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko egoiliar diren pertsona natural guztiek eskubidea izanen dute babesgabetasun-egoeretatik juridikoki babesturik egoteko.

10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

1. Pertsona guztiek, gizarte zerbitzuen erabiltzaile gisa, honako eskubide hauek izanen dituzte:

a) Gizarte zerbitzuez berdintasun-baldintzetan baliatzeko eskubidea, bereizkeriarik jasan gabe jaioterri, naziotasun, etnia, sexu, joera sexual, egoera zibil, egoera familiar, adin, ezgaitasun, hizkuntza, erlijio, ideologia, iritzi edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialen ondorioz.

b) Gizarte zerbitzuak eskuratzean eta haien prestazioak erabiltzean nor bere borondatearen arabera jokatzeko eskubidea, non eta ez den larrialdi edo geroratu ezineko premia bat, legearen aginduz.

c) Profesional baten laguntza izateko eskubidea, egoera arruntetan gehienez ere 15 eguneko epean, eta larrialdietan, gehienez ere 24 orduko epean.

d) Dauden prestazio eta baliabideei buruz eta horietaz baliatzeko bete behar diren baldintzei

buruz behar adinako informazio egiazkoa beren hizkuntzan eta modu ulergarrian jasotzeko eskubidea, bai eta babes sozialeko beste baliabide batzuei eta arlo horretan administrazio publikoek dituzten eskumenei buruz ere.

e) Norberaren egoerari buruzko balorazioa eta, kasua bada, beharizan sozialen balorazioa ere idatziz, ahoz edo zeinu mintzairan eta interesdu-narentzat argia eta ulergarria den moduan jakiteko eskubidea.

f) Norberak erreferentziako profesional bat hautatu eta hura esleitua izateko eskubidea, eta egoeraren balorazioarekin bat heldu den banakako laguntza pertsonal edo/eta familiarrerako plan baten bidez laguntza pertsonalizatua izateko eskubidea.

g) Esku-hartze sozialeko prozesuari eta aplikazioak diren neurri edo baliabide motari buruzko erabakietan parte hartzeko eskubidea.

h) Hartzaileari eraginen dion edozein esku-hartzeri buruz alde aurretik informazioa jasotzeko eskubidea, baimen berariazkoa eta librean eman ahal izateko, pertsonalki edo tutore nahiz ordezkariaren bitartez. Baimena idatzizkoa izan beharko da esku-hartzeak egoitza batean sartzea dakarrenean.

i) Foru lege honetan aitorturiko prestazio eta zerbitzuetarako eskubidea, eta, kasua bada, esleitu zaizkion prestazio eta zerbitzuei uko egitekoa.

j) Norbere prozesuarekin zerikusia duen informazioaren isilpekotasunerako eskubidea; bereziki, esku-hartze profesionalarengatik gizarte zerbitzuei ezaguna zaien informazioaren isilpekotasunerakoa.

k) Jasotako laguntzari eta prestazioei buruzko erreklamazioak aurkeztekoa.

l) Gizarte zerbitzuen sistema publikoko ordezkari organoetan parte hartzeko, bai eta ekimen pribatuaren jardura-eremuan egon litezkeen haietan.

2. Egoitza zerbitzuen erabiltzaileek eskubide hauek ere izanen dituzte:

a) Askatasun indibidualaz baliatzeko eskubidea, desgaitze-kasuetatik at irautea erabakitzea barne, eta gainerako oinarritzko eskubideez baliatzeko eskubidea.

b) Barne-jardunerako arauak ezagutzeko.

c) Intimitate eta pribatutasunerakoa; horretarako, zentroek, arau orokor gisa, gela indibidualak eskainiko dituzte.

d) Familiartekoekiko eta inguru sozialarekiko harremani eustekoa.

e) Erljioa praktikatzekoa.

f) Zerbitzu-ematearen jarraitasunerakoa.

g) Egoitza-zentroa aintzat har dakien helbide gisa.

11. artikulua. Beste eskubide batzuk.

Beti ere, Nafarroan egoitza duten pertsona guztiek menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko estatuko legediak aitortzen dizkien esku-bideak dituzte.

12. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Pertsona guztiak, gizarte zerbitzuen erabiltzaile diren aldetik, behartuta daude honakoetara:

a) Prestazio eta zerbitzuetan ezarritako arau, betekizun, baldintza eta prozedurak betetzera.

b) Beren egoera baloratu eta laguntza emateko beharrezkoa izateagatik norberaren inguruabar pertsonal, familiar eta ekonomikoei eta horien aldaketei buruz eskatzen zaien informazio egiazkoa ematera.

c) Beren garapen pertsonala erraztera bideraturiko prozesuetan laguntzera.

d) Gizarte zerbitzuetako baliabideak behar bezala erabiltzera eta prestazioak erabiltzera haiek pentsatuak izan diren helburuetarako.

e) Zerbitzuaren kostua finantzatzen laguntzera, horretarako ahalmen ekonomikoa dutenean eta arauetan hala ezartzen denean.

f) Gizarte zerbitzuen sistema publikoko bulegoetan agertzera, esku-hartze sozialeko prozesuak horretara behartzen duenean.

g) Gizarte zerbitzuen sistema publikoko profesionalekin eta beste erabiltzaileekin tratu egokia izatera.

I. TITULUA

Gizarte zerbitzuen sistema publikoa

I. KAPITULUA

Arau orokorrak

13. artikulua. Definizioa.

1. Nafarroako gizarte zerbitzuen sistema publikoa laguntza-sistema normalizatua da, erantzukizun publikokoa, pertsona, familia eta gizarte talde guztien gizarteratzea eta autonomia sustatzea bilatzen duena, horretarako lau arlotako eginkizu-

na betez –prebentziokoa, babesekoa, sustapeneko eta gizarteratzekoa–, berezko dituen prestazio eta jarduera batzuen bidez, zeinak administrazio publikoek eskainitako programa eta zerbitzuetan egituraturik egonen baitira, eta zuzenean edo zeharka kudeatuko baitira.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoentzat erreserbatuko dira, haiek beste inork erabil ez ditzan, entitate kudeatzaileen izenak, bai eta “Gizarte zerbitzuen sistema publiko”, “Gizarte laguntza” eta “Gizarte zerbitzuen zentro” espresioak ere, haiek edozein modutan edo konbinaziotan agertzen direla ere, bai eta sistema publikoko prestazioekin nahasteko bidea ematen duen beste edozein espresio ere.

14. artikulua. Gizarte zerbitzuen antolaketa.

Nafarroako gizarte zerbitzuen sistema publikoa eginkizunen eta lurraldearen arabera egituratuko da, herritarrei gizarte prestazioak eskuratzea errazteko.

II. KAPITULUA

Egitura funtzionala

15. artikulua. Gizarte zerbitzuen sistemaren egitura funtzionala.

Nafarroako gizarte zerbitzuen sistema publikoa bi mailatan antolatuta dago:

1. Oinarrizko laguntza, gizarte zerbitzu orokorrek osatua. Biztanle guztiei oinarrizko gizarte laguntza ematen diete.

2. Laguntza espezializatua, gizarte zerbitzu espezializatuak osatua. Biztanleei jarduera-alor zehazetan eskaintzen diete gizarte laguntza.

16. artikulua. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak.

1. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak dira pertsonen eta gizarte zerbitzuen sistema publikoaren arteko harremana ezartzeko eta sistema horretako prestazioak eskuratzeko egitura.

2. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak modu balioanitzean antolatuko dira, gizarte laguntzako askotariko eskaerei harrera egiteko eta helarazitako arazoei erantzun ezberdinak emateko egokia den moduan. Halaber, erkidegoa aintzat hartuz ere antolatuko dira; horrela, pertsonen lagunduko zaie halako moldez non gizarte beharri zanei erantzuna emanen zaien pertsona bakoitza bizi eta besteekin harremanetan dagoen ingurunean bertan: familian, bizitokian, auzoan edo udalerrian. Horretarako beharrezkoak diren baliabideak emanen zaizkie.

3. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak lurraldean modu deszentralizatuan antolatuta daude, erabiltzailearengandik hurbil egon daitezen eta udalerrri guztietan haiek erabili ahal izatea bermatuta egon dadin.

17. artikulua. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuen eginkizunak.

Gizarte zerbitzuen lehen mailan bete behar diren oinarrizko gizarte laguntzaren eginkizunak honako hauek dira:

1. Arrisku eta gizarte beharrezko egoerei antzematea eta haiek aztertu eta diagnostikatzea.

2. Gizarte zerbitzuen alorreko eskubide eta baliabideei buruz herritarrei informazioa, orientazioa eta aholkuak ematea, bai eta haiez baliatu eta gozatzeko prozedurei buruz ere, eta, kasua bada, haiek eraginkorrak izateko beharrezkoa den bitartekotza lana egitea.

3. Pertsonei, familiei eta taldeei laguntza-tratamendu psikosozialak aplikatzea.

4. Esku-hartze soziokomunitarioa, prebentziarako, sustapenerako eta gizarteratzerako.

5. Teknikariak horretarako agindua eman ondoren, laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuetara igortzea eta haiekin lankidetzan aritzea.

6. Foru lege honetan maila honi esleitzen zaizkion prestazioen kudeaketa, bai eta deszentralizazioaren beste edozeinena.

7. Sistema publikoari esleituriko ikuskapen, kontrol eta jarraipen eginkizunetan laguntzea.

8. Gizarte arloko boluntario lanean agerturiko lankidetzak eta elkartasuna hobetzea.

9. Gizarte baliabideen plangintza eta arrazionalizazio eraginkorrerako eginkizunen oinarri gisa jardutea, zeinek bere lurralde-eremuan gizarte beharrezkoen eta beharrezko horiei erantzutean sortzen diren anomaliak antzemanez.

10. Jende guztiak oinarrizko prestazioak eskuratu ahal izan ditzen erraztea.

11. Oinarrizko prestazioak gauzatzeko beharrezkoak diren ekipamenduak, oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuei dagozkienak, kudeatzea.

18. artikulua. Oinarrizko laguntzako programak.

1. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuen jarduketak gutxienez bost programatan bideratuko dira:

a) Harrera eta orientabide sozialerako programa, populazio osoari zuzendua, gizarte zerbitzue-

tan eskaerak aurkezten dituzten pertsonei esku-hartze soziala emateko.

b) Autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasuna duten pertsonei laguntzeko programa, menpekotasuna duten pertsonei haien ohiko ingurunean ahal den luzaroen eta bizitza-kalitate egoki batekin gelditzea ahalbidetzeko xedea duena.

c) Gizarteratze programa, helburu gisa duena edozein esparrutan bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzea, bai eta, kasua bada, laneratzea ere, berriazko genero-arazoak dituzten emakumeekiko jarduerak barne.

d) Haur eta familientzako laguntza programa, adingabekoei haien garapen pertsonalerako bide emanen dien ingurunea ziurtatzeko, babesa eta laguntza pertsonala, familiarra eta soziala emateko tresnen bidez.

e) Erkidego-jarduketarako programa, xede gisa dituen auzokideen esparruetako gizarte-kohesioa sustatzea, erkidegoaren bizitza indartzea, guztien eginkizunetan parte hartzea erraztuz, elkartegintza eta boluntario-lana, bai eta bizikidetasun- eta gizarteratze-arazoen agerpenari aurrea hartzea ere.

2. Bost programa horiek nahitaez ezarri beharrezkoak izanen dira Nafarroako Foru Komunitate osoan.

3. Programa horietako prestazioak erregulamenduz ezarriko dira, bai eta haien gutxieneko intentsitatea, horietaz baliatzeko baldintzak eta, kasua bada, haien kostuaren ordainketan parte hartu beharra.

19. artikulua. Laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuak.

1. Laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuak dira konplexutasun teknikoagatik tratamendua berezia izatearen edo aplikatzeko den prestazioa berezia izatearen ondorioz oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuetatik irtenbiderik eman ezin zaien arazoei erantzuteko egitura.

2. Laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuak halako moldean antolatzen dira non berriazko problematikak dauzkaten populazio-sektoreei erantzuten dieten, baliabide anitzak eta jomuga duten gabeziaren arabera diseinaturikoak aplikatuz.

20. artikulua. Laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuen eginkizunak.

Gizarte zerbitzuen bigarren mailan bete behar diren gizarte laguntza espezializatuko eginkizunak honako hauek dira:

1. Egoera edo problematika berezien diagnostikoa eta gizarte balorazio teknikoa.

2. Aholkularitza, babes eta tratamendu espezializatua.

3. Leheneratzeko edo birgaitzeko gizarte- eta heziketa-jarduerak garatzea.

4. Sektore edo kolektibo berezientzako jarduketak egiten dituzten zentro eta zerbitzuak kudeatu eta ekipatzea.

5. Foru lege honetan maila honi esleitzen zaizkion prestazioak kudeatzea.

6. Lehen mailarekin komunikatu eta koordinatzeko bideak mantentzea, laguntza jarraia izan dadila lortzeko eta pertsonak erkidego-esparruarekin duten loturari euts diezaioten.

7. Jendeak laguntza-maila honi dagozkion prestazioak eskuratu ahal izan ditzan erraztea.

8. Berariazko plan eta programak gauzatzea, biztanleria-sektoreen arabera edo problematika zehatzak dauzkaten kolektiboek lagunduz.

21. artikulua. Laguntza espezializatuko programak.

1. Erregelamendu bidez ezarriko dira laguntza espezializatuko programak, ahultasun edo menpekotasun faktoreen arabera, zeinak arrazoi sozial, natural edo bat-batean sorturikoen ondorioz bizitzako etapa bakoitzean agertu eta gizarte arazoetan gauzatu daitezkeen. Taxutzen diren jarduketak integratuak izanen dira, eta aintzat hartuko dituzte prebentzioa, laguntza, sustapena eta gizarteratzea.

2. Gizarte zerbitzuen sistema publikoak hiru adin sektore aintzat harturik taxutuko ditu bere jarduketak: adingabeak, adindunak eta zaharrak. Betiere, banaketa hori sistemaren helburuak betetzea ahalbidetzen duten prestazio eta zerbitzuen malgutasun eta jarraitasunaren menpean egonen da.

a) Adingabeentzako jarduketek xedea izanen da haiei laguntzea eta bizikidetasun-eremu guztietan integra daitezen lortzea, haien garapen pertsonala erraztuz eta adingabeen interes gailena eta adin-nagusitasunerako haien sustapena bilatuz.

b) Adindunentzako jarduketek aintzat hartuko dituzte haien garapen pertsonal eta soziala aldi baterako edo modu iraunkorrean oztokatzen duten ahultasun-faktoreak, jatorria duten egoera soziopertsonaletan, norbanakoaren ezaugarrietan eta egoera horien aurrean gizarteak hartzen duen arbuio edo ez erantzuteko jarreran.

c) Zaharrentzako jarduketek aintzat hartuko dute gaitasun eta baliabide pertsonalen balizko beharakada, pertsona horien beharriari erantzuteko kanpo laguntzak ugaritzera behartzen duena.

3. Laguntza espezializatuko programen jarduketak-eremuak hauexek dira, adin-sektore bakoitzean ager daitezkeen berariazko problematika ezberdinen arabera:

a) Ezgaitasunak, buru-nahasmen kronikoak eta menpekotasun-egoerak.

b) Txirotasuna eta marjinaltasuna.

c) Drogamenpekotasunak.

b) Marjinaltasun etniko eta soziokulturala.

e) Delinkuentzia eta horrekin zerikusia duten arazoak.

f) Pasadizokoak, etxerik gabeko pertsonak eta esku-hartze soziala beharrezkoa duten bestelako kolektiboak.

g) Arrisku pertsonaleko egoerak eta larrialdiak.

22. artikulua. Esku-hartze sozialeko eredua.

Bi mailetan, oinarrizko laguntzakoan eta laguntza espezializatukoan, esku-hartze sozialeko ereduak diziplina anitzekoa izanen da, eta kasu bakoitzean egoki den esku-hartze mota taxutuko du, zeina formalizatuko baita norbanakoaren, familiaren edo taldearen programa edo proiektu gisa, edo jarduera-plan orokor gisa. Bi maila horien arteko harremanak aintzat hartuko ditu osagarritasun irizpideak, bai eta helburu komunak lortzera bideraturiko ekintza koordinatuan edo, bien parte-hartzea nahitaezkoa duten jarduketek kasuan, baterako ekintzan jardun beharra ere. Horrez gain, erkidegoarekiko orientazioa funtsezko osagaia izanen da gizarte zerbitzuetako programa guztien jardueran.

III. KAPITULUA Lurralde egitura

23. artikulua. Eskumena.

1. Nafarroako Gobernuak, irizpide demografikoak eta irisgarritasunekoak aintzat harturik, erregelamendu bidez lurraldearen banaketa erabakiko du, gizarte zerbitzuak biztanleei foru lege honetan ezarritako moduan ematea ahalbidetuko duena.

2. Herritar guztiei gizarte zerbitzuak berdintasunez helarazten zaizkiela bermatze aldera, Nafarroako Gobernuak toki entitateen lankidetzak eta, kasua bada, elkartzea sustatuko du.

24. artikulua. Eskualdeak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea, gizarte zerbitzuak emateari dagokionez, honako unitate hauetan egituratuko da:

a) Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdea. Populaziorik txikieneko lurralde-unitatea da; inola ere ez du izanen 20.000 biztanle baino gehiagorik. Bere osagai izan daitezke udalerrri bateko auzo bat edo batzuk, edo elkarren hurbil dauden eta ezaugarri homogeenak dituzten udalerrri bat edo batzuk.

b) Gizarte zerbitzuen barrutia: elkarren hurbil dauden zenbait oinarrizko eskualde hartzen dituen lurralde-unitatea; oinarrizko eskualde horiek, eraginkortasun eta efizientzia irizpideak direla-eta, baliabideak elkarrekin izan ditzakete.

2. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak oinarrizko eskualdeka antolatuko dira.

3. Laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuak antolatuko dira, beren ezaugarrien arabera, hala oinarrizko eskualdeka nola barrutika, edo, kasu bada, Foru Komunitateko lurralde osoa hartuz.

4. Iruñerako lurralde-egituraketa berariazkoa ezarri ahalko da, bere ezaugarri bereziak direla-eta.

5. Koordinazioa eta jarduketa integratuak erraztearren, ahalegina egingen da lurralde-egituraketa bat etor dadin gizarte babeseko beste esparru batzuetakoarekin, hala nola osasuna, hezkuntza eta bestelakoak.

25. artikulua. Oinarrizko gizarte zerbitzuak.

1. Oinarrizko gizarte zerbitzuak dira oinarrizko eskualde batean bizi diren herritarrentzako gizarte laguntza zuzeneko, balioanitz eta komunitarioaren gaineko ardura duten unitate organikoak. Toki entitateek izanen dute haien titularitatea eta kudeaketa. Beren eremuan ematen dira foru lege honetako 16, 17 eta 18. artikuluetan zehazturiko oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak.

2. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizunak hauexek izanen dira:

a) Beren lurralde-eremuan oinarrizko laguntza-programak kudeatzea.

b) Herritarrei gizarte zerbitzuen sistemaren prestazioez eta babes sozialeko gainerako sistemaz baliatzen laguntzea.

c) Prebentzio eta gizarte sustapeneko jarduketak gauzatzea.

d) Gizarte sentsibilizatzeko jarduketak gauzatzea.

3. Oinarrizko gizarte zerbitzuak askotariko profesionalen talde batek osatuak izanen dira, eta, irizpide orokor gisa, gutxienez ere gizarte langile bat izanen dute 4.000 biztanleko. Erregelamendu bidez ezarriko dira oinarrizko eskualde bakoitzean baliabide pertsonal eta materialen hornidurari aplikatzekoak diren ratioak, kontuan harturik, besteak beste, honako irizpide hauek: lurralde-sakabana-ketaren indizea eta beharizan-maila, oinarrizko eskualdeko biztanleen per capita errentaren edo arazo sozialen pilaketaren arabera.

26. artikulua. Gizarte zerbitzuetako zentroak.

1. Gizarte zerbitzuetako zentroak dira gizarte zerbitzuen barruti batean gizarte laguntzaz arduratzen diren unitate organikoak. Haien titulartasuna eta kudeaketa foru komunitateko administrazioari dagokio, salbu eta toki entitate bat horretarako eskuordetzen denean edo bi administrazioen arteko baterako kudeaketa hitzartzen denean.

2. Hauexek dira gizarte zerbitzuetako zentroen eginkizunak:

a) Barrutiko oinarrizko gizarte zerbitzuei laguntza ematea.

b) Oinarrizko gizarte zerbitzuekin lankidetzan aritzea eta haien aholku ematea, barruti osorako irizpide homogeenak ezarri.

c) Laguntza espezializatuko programak kudeatzea, bai eta eraginkortasun eta efizientziagatik oinarrizko gizarte zerbitzuei ez dagozkien prestazioak ere.

II. TITULUA**Prestazioak eta eskumenak****I. KAPITULUA****Sistemako prestazioak****27. artikulua.** Prestazio kontzeptua.

Prestaziotzat hartzen da izaera eta eduki ezberdineko jarduketan eta bitartekoen multzo integratu bat, gizarte zerbitzuen sistema publikoak formalki antolatzen duena foru lege honetan aitorturiko gizarte eskubideak bermatzen laguntzeko, gizarte babeseko beste sistema batzuekin batera.

28. artikulua. Prestazioen ezaugarri orokorrak.

1. Foru lege honetan definituriko prestazioen multzoa esku-hartze sozialeko prozesuen atal bat da; hain zuzen ere, ase beharreko beharizanen arabera gizabanakoari, familiari, taldeari edo erki-degoari zuzendurik une bakoitzean abiarazten diren prozesuen atal bat, aldaketa sozial eta indibidualak eragite aldera.

2. Esku-hartze soziazat hartuko da jardueren eta baliabideen multzo antolatu eta integratua, beharrian-egoera sortu duten zailtasunak gainditzeko asmoz gizabanakoarekin edo gizabanakoe-kin adostasunez ezarritako helburuak lortzera bideraturikoena.

3. Prestazioak eskaintzeko edo ukatzeko baldintzek izan beharko dute definituriko irizpide objektibo eta bateratuen arabera, horrela prozesu horretan nahiera edo subjektibotasuna saihesteko.

29. artikulua. Prestazioak objektibatzen eta bateratzeko irizpide orokorrak.

1. Prestazio bat emateari edozein baieztoko edo ezeztoko emateko beharrezkoa izanen da alde aurretik gizarte zerbitzuetako profesionalak haiei azalduko beharrian-egoera balioestea. Beharrian-egoerak balioesteko, ebaluatu beharreko irizpideak erregelamendu bidez eta objektiboki ezarri beharko dira. Edozein kasutan ere, eta geroago zehazteko betiere, gutxienezko gisa honako irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan: prestazio guztiei dagozkienak.

– Autonomia pertsonal eta sozialaren maila eta norainokoa.

– Egoera soziala eta familakoa.

– Egoera ekonomikoa.

2. Beharrian-egoerari buruz eginiko balioespenetik abiatuta, eta oinarrizko printzipio gisa gogoan harturik prestazio oro esku-hartze sozialeko prozesu batean kokaturik dagoela, eta prozesu horrek egoeraren aldaketa bat erakarriko duela, esku-hartzea zehazteari ekin beharko zaio, gutxienez ere honakoak jaso beharko dituen diseinu baten bidez:

– Balioetsitako beharrian-egoera.

– Esku-hartzearen helburuak.

– Erabiltzaile eta profesionalen artean sinaturiko akordioak.

– Haietako bakoitzak egin beharreko jarduerak eta aplikatu beharreko prestazio eta baliabideak.

– Helburuen ebaluazio eta jarraipenerako sistema.

30. artikulua. Prestazioen sailkapena.

1. Gizarte zerbitzuen sistema publikoko prestazioak, beren edukiaren arabera, honela sailka daitezke: teknikoak, ekonomikoak, materialak eta mistoak.

2. Izaeraren eta norainokoaren arabera, izan daitezke oinarrizko prestazioak, funtsezkoak eta osagarriak.

31. artikulua. Prestazio teknikoak.

1. Prestazio teknikoak dira langile kualifikatuek beren eginkizunen esparruan eginiko jarduketa profesionalak, gizabanakoei, familiei, taldeei eta erkidegoei zuzenduak, jakinarazitako gizarte beharrianak asetzea bermatzeko asmoz, laguntza profesionaleko sistema baten bitartez.

2. Prestazio teknikotzat hartzen dira:

a) Pertsona artatuei informazioa eta orientazioa ematea beren eskubide sozialei, horiek bermatzen dituzten baliabideei eta horiek erabiltzeko bide eta prozedurei buruz, eta, kasua bada, baliabideak berdintasun-baldintzetan eta behar bezala erabiltzea bermatzeko bitartekotza eta aholkularitza lana.

b) Sistemako zenbait erabiltzailek (pertsonek, familiek, taldeek, erkidegoek, beste sistema batzuetako profesionalak eta edo entitateek) jakinarazitako beharrian-egoeren balioespena, diziplina artekoa, egitea eta, kasua bada, gauzatu beharreko esku-hartze proiektua edo proiektuak zehaztea.

c) Zehazturiko beharrian-egoerak gainditzeko taxaturiko esku-hartze sozialeko proiektuen exekuzio teknikoak.

d) Izaera ezberdineko txosten teknikoak ematea, esku-hartze prozesuari buruzkoak, bai artaturiko pertsonari bai barne edo kanpo zerbitzuei zuzenduak, ezartzen diren baldintzen eta irizpideen arabera.

e) Tutoretza juridiko-soziala.

3. Prestazio teknikoen norainokoa eta intentsitatearen erregelamendu bidez zehaztuko da, eta horren arabera erabakiko da lan-talde profesionalen diziplina arteko osatura, haien espezializazio-maila, haiek osatzen dituzten profesionalen kopurua eta ezarritako programazioa, zeina egokitu beharko baitzaio foru lege honetan adierazitako ratio eta espezialitateei, eta, edozein kasutan ere, lurralde bakoitzean ase beharreko beharrianen nolakotasunari.

32. artikulua. Prestazio ekonomikoak.

1. Prestazio ekonomikoak dira gizabanakoei edo familiei zuzenduriko diru-ekarpenak, xede gisa haien biziraupen-beharrianak asetzea edo beharrian egoera iragankorrei erantzutea dutenak. Prestazio horiek emateko erabakiaren funtsezko helburua izanen da gizarteratze-prozesuen laguntza osagarria izan daitezela aldi batez.

2. Prestazio ekonomikoak honelakoak izanen dira:

a) Prestazio iraunkorrak: aldiroko diru-ekarpenen bitartez eta denboran zehar irauteko eta egonkorak izateko borondatez ordaintzen direnak.

b) Aldi baterako prestazioak: aldiroko diru-ekarpenen bitartez baina denbora-epe baterako ordaintzen direnak.

c) Prestazio puntualak: diru-ekarpen bakarrarekin agortzen direnak.

3. Prestazio ekonomikotzat hartzen dira:

a) Biziraupenerako eta bizitza duin baterako beharrianak asetzea bermatzen duen gutxieneko gizarte errenta. Onuradun izanen dira lan-merkatutik kanporatuak dauden eta biziraupenerako eta bizitza duina bizi ahal izateko beharrianak asetzeko behar besteko diru-sarrerarik ez duten pertsona guztiak. Zenbatekoa ezarriko da Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko Foru Legean, eta gutxienez ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 80koa izanen da. Betiere aintzat hartuko dira familia-zamak. Halaber, bestelako prestazio ekonomikoak jasota ere haien zenbatekoa gutxieneko gizarte errentarena baino baxuagoa duten pertsonak onuradunak izanen dira, zenbateko horretara iristeko behar den kopuruari dagokionez.

b) Beharrian ekonomiko iragankor edo puntualak asetzea bermatzen duten aldi baterako laguntza ekonomikoak. Hemen sartuta daude gizarte larrialdiko laguntza puntualak, aldi baterako famili laguntzak eta prekariedade-egoeran dauden pertsonen zuzenduriko etxebizitza-alogerako laguntzak, aldi baterakoak ere.

c) Laguntza ekonomiko osagarriak, alde aurretik zehazturiko gizarteratze-prozesuetarako osagarri ekonomikoa izanen direnak.

4. Prestazio ekonomiko batzuk jasotzeak berekin ekartzen du organo eskudunarekin gizarteratze-hitzarmen bat izenpetu beharra. Hitzarmen horretan hezkuntzaren, administrazioaren, lanbidearen edo familiararen alorreko ekintza zehatzez osaturiko ibilbide bat adieraziko da, orekatze personal eta familiarra, trebetasunak hobetzera eta epe ertain edo luzean independentzia ekonomikoa erdiestera bideratua.

33. artikulua. Prestazio materialak.

1. Prestazio materialak dira babesteko, osatzeko eta prestazio teknikoei laguntzeko baliabide ez-ekonomikoen multzoa, gizabanakoei, familiei eta taldeei zuzendua, haien eskubide sozialak bermatzeko xedez.

2. Prestazio materialtzat hartzen dira:

a) Ekipamendu orokor edo sektorialak, beharrian-egoeretan egoitza-izaerako laguntza iraunkor nahiz aldi batekoa eskaintzen dutenak.

b) Ekipamendu orokor edo sektorialak, ase beharreko beharrianen arabera askotariko laguntzen multzo bat eskaintzen dutenak (errehabilitazioak, informazioak, lanera bideratzekoak, hezkuntza eta prestakuntzaren arlokoak, gizarte sustapeneak, gizarteratzeak eta laneratzeak), egunez edo gauez.

c) Etxez etxeko laguntzako zerbitzuak, gizabanakoei edo familiei beren ingurunean bertan etxerako laguntzak, laguntza pertsonalak edo psikosozialak eskaintzen dizkietenak.

d) Gizabanko edo familientzako laguntzak eta baliabide teknikoak, beren autonomia pertsonala erraztekoak.

e) Etxean bertan edo kolektiboentzako zentroetan kontsumitzeko prestatuak diren elikagaiez hornitzea.

f) Famili harrerako zerbitzuak.

g) Besteren menpekoak diren edo babesgabetasun egoeran dauden pertsonen tutoretza juridiko-sozialerako zerbitzuak.

h) Zerbitzu publikoen erabilera pribilegiaturako kreditazioa.

34. artikulua. Prestazio mistoak.

Prestazio mistoak dira osagarritasuna erdieste-ko asmoz prestazio teknikoak prestazio ekonomiko edo materialekin konbinatuz sorturikoak.

II. KAPITULUA Prestazioen zorroa

35. artikulua. Prestazioen zorroa.

1. Prestazioen zorroa da gizarte zerbitzuen alorrean eskudun den administrazio publiko bakoitzak eskaintako prestazioen multzoa.

2. Gizarte zerbitzuen alorrean eskudun diren administrazio publikoek beren lurralde-eremuan bizi diren pertsonen eskainta behar dizkiete kapitulu honetan arauturiko prestazio guztiak. Foru lege honetako xedapenak erregelamendu bidez garatuko dira, prestazioen edukiari, haiek esleitzeko araubideari eta haiek eskuratu ahal izateko baldintzei dagokienez.

3. Administrazio publikoek beren prestazio-zorroari beste prestazio batzuk gehitu ahalko dizkio, foru lege honetan arauturikoez gain.

4. Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko estatuko legedian jasotako prestazioei aplikatuko zaizkie legedi horretan jasotako xedapenak.

36. artikulua. Prestazioen bermea.

Nafarroan bizi diren herritarrek foru lege honetan arauturiko prestazioetarako eskubide subjektiboak daukate, eta, kasua bada, jurisdikzio eskudunean aldarrikatu ahalko dute, ezarritako betekizun eta baldintzak betetzen badituzte. Halaber, eskubidea dute administrazio publikoei eskatzeko foru lege honetan arauturiko zerbitzuak ezar ditzala.

37. artikulua. Oinarrizko prestazioak.

Honakoak dira oinarrizko prestazioak, unibertsalak eta biztanle guztientzat doakoak:

a) Informazio, balorazio, orientazio eta bitartekotzako prestazio teknikoak.

b) Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko prestazio teknikoak:

a') Norbanakoarengan edo familiarengan esku hartzea arrisku egoeretan.

b') Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea.

c') Errehabilitaziorako esku-hartzea.

d') Epailearen erabakiz ezgaitutako pertsona helduen tutoretza.

e') Adingabeen tutoretza, epailearen erabakiz.

f') Prebentzio, garapen eta integrazio, gizarteratze eta laneraterako esku-hartze komunitarioak.

c) Babes sozial ez-formala sustatzeko prestazio teknikoak:

a') Gizarteraren sentsibilizazioa, auzo antolakuntza eta bitartekotza komunitarioa.

b') Autolaguntzaren sustapena.

c') Zaintzaileentzako laguntza.

d') Harrera eta adopzioaren sustapena.

e') Bizikidetzarako formula alternatiboen sustapena.

d) Gizarteratzeko edo autonomia lortzeko balio duten prestazio ekonomikoak:

a') Gutxieneko gizarte errenta.

b') Gizarte larrialdiko laguntzak.

c') Adingabeak babesteko laguntzak.

d') Mugikortasun urriko pertsonentzako garraio-laguntzak.

e') Berreskuragarri ez diren baliabide teknikoak lortzeko laguntzak.

f') Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko estatuko legedian jasotako prestazioak.

e) Larrialdiko prestazioak:

a') Larrialdiko gizarte laguntza.

b') Larrialdiko egoeretan daudenak egoitzetan hartzea.

38. artikulua. Funtsezko prestazioak.

Honakoak dira funtsezko prestazioak, unibertsalak baina ez nahitaez doakoak:

a) Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta haiei laguntzeko prestazio teknikoak:

a') Menpekotasun egoerei aurea hartzea.

b') Etxez etxeko laguntza.

(i) Etxeko beharriaz erantzutea.

(ii) Zainketa pertsonala.

c') Telelaguntza zerbitzua.

c') Etxerako eta irisgarritasuna lortzeko laguntza teknikoak.

d') Lagun-egite pertsonala.

b) Errehabilitaziorako esku-hartzeko prestazio teknikoak:

a') Familiako esku-hartze komunitarioa.

b') Estimulazio goiztiarra.

c') Familian eta bizikidetzako egoeretan bitartekotza egitea.

d') Zentro okupazionalak eta gizarteratze nahiz laneraterakoak.

e) Errehabilitazio psikosoziala.

c) Egoitza-prestazioak:

a') Etxebizitza komunitarioak.

b') Apartamentu babestuak.

c') Egoitzetako laguntzako zerbitzuak.

d') Menpekotasun egoeran edo egoera zaurgarrian daudenentzako eguneko eta gaueko zentroak.

e') Aldi baterako egonaldietarako zentroak.

d) Elikagai-prestazioak (jantoki sozialak, etxeko zerbitzua).

III. KAPITULUA Eskumenak

39. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eskumenak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari, bere lurralde esparruan, honako eskumenak dagozkio; alde batera utzita, betiere, Konstituzioko eskubideak erabiltzean eta betebeharrak betetzean espainiar guztiek berdintasuna izanen dutela bermatze aldera Estatuak oinarritzko baldintzak arautzeko erreserbatua duen eskumena.

a) Gizarte zerbitzuen plangintza orokorra, eta, horrela, lehentasunak ezartzea, lurralde-desorekak ekiditea eta, foru lege honetan ezarritakoarekin bat, gutxieneko babes-mailak bermatzea, toki entitateekin koordinatuta.

b) Koordinatzea bai arlo horretan eskumena duten administrazioetako organoen jarduketak, bai eta ekimen pribatuko sektoreetako jarduketak, arlo horretan politika homogenea izan dadila bermatzeko, eta eskura dauden baliabideen erabilera arrazionalizatzeko eta optimizatzeko.

c) Foru lege honek ezarritako markoaren barrenean, irabazi asmoa izan ala ez gizarte zerbitzuak ematen dituzten entitate, zerbitzu eta zentro publiko nahiz pribatuak arautu eta horiek kreditatzeko arauak ezartzea. Arau horietan, hainbat baldintza ezarriko dira, hala nola irekitzekoak, funtzionatzekoak, aldatzekoak, langileen gaikuntzari buruzkoak, kalitate maileri buruzkoak, ixtekoak, zerbitzua ematen duten entitateak erregistratzekoak, ikuskarpenaren arlokoak eta antzeko baldintzak.

d) Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan dauden entitate, zentro eta zerbitzuen gaineko ikuskapen- eta zehapen-ahalmena.

e) Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazioak arautzea, bai eta, duten izaeragatik, esparruagatik edo bestelako zirkunstantziengatik Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartzen dituen prestazioak kudeatzea eta ematea.

f) Oinarritzko gizarte laguntza eta zerbitzu espezializatuak laguntza udal guztietara zabalduko dela bermatzea.

g) Gizarte zerbitzuen arloan sortutako behar eta problemak aztertzea eta ikertzea, jakiteko zein diren horien arrazoiak eta problema horiek konponbidean jartze alderabaliabideak antolatzeke, horrela arlo horretan aritzen diren entitateei aholkularitza tekniko eta informazioa eman ahal izateko.

h) Prestakuntza planifikatua prestatzea eta gauzatzea gizarte ekintzaren arloan, laguntza

maila guztietako langileak hartuko dituen eta bermatuko duena langile horien jakintza tekniko eta teorikoen gaurkotze etengabea.

i) Informazio sistemak sortzea eta ezartzea, estadistikak egitea eta gizarte zerbitzuen kalitatea nahiz emaitzak ebaluatzea.

40. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

1. Toki entitateei honako eskumenak dagozkie:

a) Gizarte zerbitzuen plangintza, nork bere lurralde esparruan, foru erkidegoko administrazioak ezarritako jarduketa-ildo nagusiekin bat.

b) Oinarritzko gizarte zerbitzuen titularitatea eta kudeaketa, eta gizarte zerbitzuetako zentroena, halakorik bada.

c) Herritarren parte-hartzea sustatzea eta beren lurraldean sortzen diren gizarte- eta auzo-ekintzei laguntza ematea.

d) Foru lege honetan foru erkidegoko administrazioari esleitzen ez zaizkion gizarte zerbitzuei buruzko gainerako guztiak.

2. Udalek, bakarrik edo elkartuta, toki araubideko legediarekin bat, aipatutako eskumenei dagozkien zerbitzuak eman ahal izanen dituzte, halako moduz non eskura dauden baliabideen eraginkortasuna, kalitatea eta errentagarritasuna areagotu eginen den.

3. Toki entitateek, gizarte zerbitzuen arloan dituzten helburuak betetzeko, foru erkidegoko administrazioaren laguntza tekniko eta ekonomikoa jasoko dute, itundutako finantzaketa-plan baten bidez.

IV. KAPITULUA Gizartearen parte-hartzea

41. artikulua. Parte-hartze demokratikoaren printzipioa

1. Nafarroako administrazio publikoek parte-hartze demokratikoaren irizpidez erabiliko dituzte gizarte zerbitzuen arloan dituzten eskumenak.

2. Gizartearen parte-hartzea gauzatu dadin Nafarroan, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kontseilua sortuko da.

3. Gizarte zerbitzuen barruti eta oinarritzko eskualde bakoitzean gizarteak parte hartzeko organoak eratu beharko dira; horien izena gizarte zerbitzuen kontseilua izanen da, aurretik kasuan kasuko lurraldearen izena jarrita.

42. artikulua. Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kontseilua.

1. Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Kontseiluko burua gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskuduneko titularra izanen da, eta ondoko arloetako ordezkariak izanen ditu kontseiluak:

- a) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa.
- b) Nafarroako toki entitateak.
- c) Gizarte zerbitzuekin zerikusia duten elkarte profesionalak.
- d) Enpresaburuen elkarte eta sindikatu esanguratsuenak.
- e) Gizarteratze-problema dituzten sektoreen ordezkari diren erakundeak.

2. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

- d) Gizarte zerbitzuen arloko arauen proiektuei buruz txostena egitea.
- b) Gizarte zerbitzuen arloko Nafarroako plan orokor eta sektorialeko buruz txostena egitea.
- c) Gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuaren jardueren urteko oroitidazkiari buruz txostena egitea.
- d) Gizarte zerbitzuen arloan proposamenak eta gomendioak egitea.
- e) Gizarte zerbitzuen programen kalitatea ebaluatzen parte hartzea.
- d) Lege edo erregelamendu mailako xedapenen bidez emandako gainerako eginkizunak.

3. Kontseiluaren osaketa zehatza eta jarduteko araubidea erregelamenduz ezarriko dira.

43. artikulua. Barrutiko gizarte zerbitzuen kontseiluak.

1. Barrutiko gizarte zerbitzuen kontseilua da erkidegoaren partaidetzarako kide anitzeko organoa, lurralde esparru horretan aholkularitza eginkizunak eta kudeaketaren jarraipena egiten dituenak.

2. Barruti bakoitzean gizarte zerbitzuen kontseilu bat eratuko da, eta ondoko arloetako ordezkariak izanen ditu:

- a) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa.
- b) Kasuan kasuko toki entitateak.
- c) Kasuan kasuko barrutian aritzen diren auzo elkarteak.
- d) Nafarroako administrazio publikoetako sindikatu esanguratsuenak.

3. Barrutiko gizarte zerbitzuen kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Jarduketak ezarritako arau eta jarraibideekin bat datozela egiaztatzea.
- b) Jarraibideak orientatzea, eta organo eskudunei mozioak eta txostenak helaraztea.
- c) Gauzatu beharreko neurriak proposatzea.
- d) Erkidegoaren parte-hartzea sustatzea.
- e) Barrutiko jarduketa-planak eta -oroitidazkien berri izan eta horiei buruzko txostena egitea.
- f) Gizarte zerbitzuei buruzko planaren proiektua.

4. Kontseiluen sorrera erregelamenduz erabakiko da, bai eta horien osaera zehatza eta funtzionamendu araubidea ere.

44. artikulua. Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeko kontseilua.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateek gizarte zerbitzuen kontseilu bat sortu eta arautuko dute oinarrizko eskualde bakoitzerako, aurreko artikuluan araututako kontseiluen antzeko osaera eta eginkizunak izanen dituenak.

45. artikulua. Nafarroako Gizarte Laguntzaren Etika Batzordea.

1. Nafarroako Gizarte Laguntzaren Etika Batzordea kide anitzeko organoa da, aholkularitza-koa, diziplina artekoa eta independentea, eta helburu du zerbitzuetako eta zentroetako langileak sensibilizatzea egiten duten lanak duen garrantzi etikoari buruz, eta bermatzea pertsonen beren nortasuna, duintasuna eta intimitatea errespetatua izateko duten eskubidea, inongo bazterkeriarik gabe, bai eta, era berean, jardun klinikoaren alderdi etikoak identifikatzea, aztertzea eta ebaluatzea.

2. Etika batzordearen osaera erregelamenduz ezarriko da, aniztasun irizpideei jarraikiz, eta gizarte zerbitzuen arloan eta gizarte babeseko beste sistema batzuetan prestigio handia duten profesionalak osatuko dute, kasuan kasuko elkarte profesionalak proposatuta.

3. Etika batzordearen berriazko eginkizunak erregelamenduz ezarriko dira, eta, betiere, honakoak jaso beharko dira:

- a) Gizarte laguntzarekin zerikusia duten etika gaiei buruzko irakaskuntza-eginkizunak.
- b) Gai horiei buruzko ikerketa-eginkizunak.
- c) Gaie horiei buruzko aholkularitza- eta irizpen-eginkizunak.

4. Erregelamenduz arautuko da arloetan edo zentroetan etika batzordeak ezartzeko aukera;

batzorde horien eginkizunak artikulua honetan araututako batzordearen berdintsuak izanen dira.

46. artikulua. Parte hartzeko beste organo batzuk.

Erregelamenduz, administrazio publikoen arteko beste koordinazio organo batzuk ezarri ahalko dira, edo gizarteak parte hartzeko beste organo sektorial batzuk; bereziki, berariazko plan edo programen jarraipena egiteko.

V. KAPITULUA Ekimen pribatua

47. artikulua. Gizarte ekimeneko entitateak.

1. Foru lege honetan zehaztutako gizarte zerbitzuetako sektorean diharduen gizarte ekimenaren jarduna –hala irabazi asmoa duenarena nola ez duenarena– aitortzen da; hori, hala ere, ez da eragozpen izanen kasuan kasuko baimen administratiboa izan eta bete behar izateko.

2. Gizarte zerbitzuen arloan eskudunak diren Nafarroako administrazio publikoek irabazi asmorik gabeko entitateen sorrera eta aurrerabidea sustatuko dute.

48. artikulua. Baimen administratiboa.

1. Nafarroako Foru Komunitatean zerbitzuak eman ahal izateko, kasuan kasuko baimen administratiboei eutsi beharko zaie eta kasuan kasuko erregistroan inskribatuta egon beharko da betiere.

2. Bete beharreko jarduketaren arabera beharrezkoa izanen da baimen administratibo hauetakoren bat lortzea:

- a) Irekitzeko eta funtzionatzeko baimena.
- b) Titularitatea aldatzeko baimena.
- c) Jardueraren edo zentroen funtsezko aldaketarako baimena.
- d) Zerbitzuak bertan behera uzteko baimena.

3. Baimen administratiboa lortzeko eta horri eusteko baldintzak nahiz prozedura erregelamenduz ezarriko dira zerbitzu mota bakoitzerako. Edonola ere, arautze horretan, hainbat baldintza jaso beharko dira: instalazioak eraiki, kokatu eta egokitzeko baldintzak, zer langile beharko diren eta horien titulazioa, langile horien lan- eta prestakuntza-baldintzak, funtzionamenduaren eta esku-hartzearen araubidea, eskatu beharreko kalitate mailak eta kalitatea ebaluatzeko sistemak. Baldintzak ez betetzeak baimena ezeztatzea edo etetea ekar dezake.

4. Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak gizarte zerbitzuen erregistro bat eduki-

ko du; erregistro horretan, erregelamenduz arautuko baita, baimendutako zerbitzu guztiak jasoko dira, bai eta titularitate publikoko gizarte zerbitzu guztiak.

49. artikulua. Administrazio publikoarekiko lankidetzak.

1. Ekimen pribatuko entitateek gizarte zerbitzuen sistema publikoari honela lagundu ahalko diote:

a) Zerbitzuen kudeaketarako kontratu publikoak edo laguntzarako kontratu publikoak sinatuz, kontratu publikoen arloko araudiarekin bat. Edonola ere, oinarritzko osasun laguntzako programak, prestazio ekonomikoak eta adopzio-zerbitzuak administrazio publikoak zuzenean kudeatuko ditu.

b) Lankidetzak hitzarmenak sinatuz alde bien interesekoak diren jarduerak egiteko.

c) Gizarte intereseko jarduerak dirulaguntza bidez eginez, dagokion araudiarekin bat eta gizarte zerbitzuetako planetan dauden aurreikuspenekin bat.

2. Gizarte zerbitzuen arloan eskudunak diren administrazio publikoek, laguntzarako kontratuak nahiz zerbitzuak emateko kontratuak sinatu ahal izanen dituzte soilik, Kontratu publikoei buruzko Foru Legearekin bat betiere, aurreko artikuluan araututako baimenak lortuak eta indarrean izan eta dagokien erregistroan inskribatuta dauden pertsona fisiko eta juridikoekin.

3. Kontratu publikoei buruzko Foru Legeko 9. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko –laiza sozialeko entitateentzat kontratuak erreserbatzea–, kontuan hartuko da administrazio publiko eskudunak aurreko aurrekontu-ekitaldian adjudikatutako kontratuen guztizko zenbatekoa, hau da, bai organoa arruntak bai berezko nortasun juridikoa dutenak batera hartuta.

4. Nafarroako administrazio publikoek errekerimendu sozialak sartu beharko dituzte, nahitaez, gizarte zerbitzuen arloan egiten dituzten kontratu guztietako administrazio klausula partikularren plegetan; betiere, Kontratu publikoei buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

III. TITULUA

Gizareratzea eta gizarte-arloaren sustapena, eta gizarte zerbitzuetako beste azpisistema batzuekiko koordinazioa

50. artikulua. Sistemen integrazioa.

Gizareratze lanak, gizarte-arloaren sustapena eta gizarte-babesa aurrera eramateko, gizarte zerbitzuen sistema publikoak, betiere, gizarte ongizateko beste sistema eta azpisistema batzuekin inte-

gratuta jardun beharko du, eta horretarako horiekin koordinatuta egon beharko du, sarean lan egin eta zeharkako planak bete.

51. artikulua. Koordinaziorako bitartekoak

1. Nafarroako Gobernuak, erregelamendu xedapenen bidez, koordinazio organoak sortuko ditu, gizarte zerbitzuen sistema publikoa eta, kasuan kasuan, gizarte ongizateko beste sistema edo azpisistema batzuk eta gizarte eragileak koordinatzeko; horiek, dagozkien eskumenak eta jardunaren barruan, jarduketa programa eta baliabideen banaketarako programa integratuak gauzatuak dituzte. Gizarte-arloa eta gutxienez ere honako beste arloko koordinatzeko organoak sortuko dira: osasuna, hezkuntza, lana, kultura eta etxebizitza.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako koordinazio organoek, kasua bada, gizarte zerbitzuei eragiten dien plan orokor edo sektorialak prestatzen parte hartuko dute.

3. Nafarroako Gobernuak sistemen arteko koordinazio beharrak kontuan hartuko ditu zerbitzuen zonifikazio-neurriak ezartzean edota lurralde-izaerako organoak nahiz zerbitzuak sortzean.

IV. TITULUA

Gizarte zerbitzuen kalitatea, ikerkuntza-lana eta prestakuntza

52. artikulua. Kalitatearen sustapena.

1. Politika publikoen ebaluazioari buruzko eta zerbitzu publikoen kalitateari buruzko Nafarroako legediaren esparruan, zerbitzuen arloan eskudunak diren organoek beren kalitatea etengabe hobetzea sustatuko dute.

2. Nafarroako Gobernuak kalitate planak onetsiko ditu Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetarako, orokorrak eta sektorialak, kalitate prozesuen garapena eta aplikazioa ziurtatzeko. Plan horiek printzipio hauen arabera prestatuko dira:

a) Kalitate osoa, kudeaketa publikoaren bikaintasuna lortzera bideratua, kontuan hartuz bai politika publikoen diseinua, bai emandako zerbitzuak, prozesuen efizientzia eta administrazioak kalitatearen kulturaren inguruan antolamendu egokia edukitzea.

b) Etengabeko hobekuntza, ulertuta hori dela administrazio publiko batek egiten dituen akatsei sistematikoki antzemateko, haiek zuzentzeko eta herritarrei zerbitzua modu gero eta eraginkorragoan eta efizienteagoan emateko metodoak praktikan jartzea.

c) Herritarren parte-hartzea, ulertuta hori dela politika publikoak lantzea eta kudeatzea eta zerbitzuak ematea sistema eta metodo jakin batzuekin; sistema eta metodo horiek aukera emanen diete herritarrei, banaka zein elkartetan bilduta, kalitatea hobetzen parte hartzeko, betiere ondoko bideak erabiliz: iradokizunak, oharpenak edo alegazioak egitea, erreklamazioak eta kexak aurkeztea eta balorazioak aldizka eskatzea inkesten eta iritzi-azterlanen bitartez.

53. artikulua. Kalitate arauak.

1. Nafarroako Gobernuak erregelamenduz ezarriko ditu zein diren kalitate-maila gutxienekoak gizarte zerbitzuen zentro, programa eta prestazioetan, horiek publikoak nahiz pribatuak izan.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako arauak hone-la bereiziko dira:

a) Gizarte ekimeneko gizarte zerbitzuei baime-na emateko gutxienez eskatu beharreko mailak.

a) Gizarte ekimeneko gizarte zerbitzuei dirulaguntza publikoak emateko gutxienez eskatu beharreko mailak.

c) Titularitate publikokoak diren gizarte zerbitzuei gutxienez eskatu beharreko mailak; kudeaketa zeharkakoa bada, kasuan kasuko baldintza orri administratiboetan sartu beharko dira, eta horiek ez betetzeak zehapenak eragingen ditu, kontratua desegitea barne.

54. artikulua. Ikerkuntzaren sustapena.

Ikerkuntza jarduerak gizarte zerbitzuen sistema publikoaren maila guztietan sustatuko dira, hori sistemaren aurrerabiderako funtsezko elementutzat hartzen baita.

55. artikulua. Ikerkuntzaren helburuak.

Egindako ikerketen helburu nagusia hau izanen da: herritarren bizi kalitatea hobetzea eta gizarte bazterkeria eragiten duten faktoreen aurka borrokatzea. Ikerketak Nafarroako Foru Komunitateko gizarte errealitatea ikertzera eta aztertzeratuko dira bereziki; hain zuzen ere, behar egoerak eragiten dituzten arrazoiak ikertzera eta aztertzeratuko dira, eta prebentziorako, laguntzarako nahiz birgizarteratzeko esku-hartzeko moduak ikertzera eta aztertzeratuko dira. Era berean, gizartze zerbitzuen esku-hartzeek duten eraginkortasuna eta efizientzia ere zorrotz ebaluatuko dituzte ikerketok.

56. artikulua. Ikerkuntza programak.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak bai ikerkuntza programak bai horiek betetzeko baliabideen esleipena koordinatuko ditu, inbertsioen ahalik eta errentagarritasun handiena lortze

aldera. Era berean, eginiko ikerketen emaitzen hedapena ere erraztuko du.

57. artikulua. Langileen prestakuntza.

1. Gizarte zerbitzuetako sistema publikoa zerbitzu horiek ematen dituzten langileek ahalik eta prestakuntzarik hoberena eta egokiena izan dezaten saiaturik da, langile horien jakintza, ahalmena eta gaitasuna bultzatzeko, gizarte laguntzaren kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea helburu.

2. Sistema publikoak berak lagun dezan gizarte zerbitzuen arloko profesionalen prestakuntza hobetzen, sistemaren egiturak prestakuntza prozesuan dauden pertsonak –graduaurrekoak edo graduondokoak– onartzeko moduan egon beharko du, gizarte zerbitzuekin zerikusia duten lanbideetako pertsonak hain zuzen. Horretarako, beharrezkoak diren lankidetzak bideak ezarriko dira prestakuntzaren arloan Nafarroako Foru Komunitatean eskudunak diren departamentuekin, eta gaitutako fakultate, unibertsitate- eta lanbide-eskolekin.

V. TITULUA **Finantzaketa**

58. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Gizarte zerbitzuen sistema publikoa administrazio eskudunen aurrekontuekin finantzatuko da; horretarako, bereiztuta jasoko dira gizarte zerbitzuetarako diren dirusarrerak eta gastuak, eta gizarte zerbitzuen zorrotan sartuta dauden prestazioak finantzatzeko beharrezkoak diren kredituak ezarriko dira, zenbateko nahikoa dutela.

2. Nafarroako Foru Komunitateak prezio publikoak ezarri ahalko ditu zerbitzuak mantentzeko.

3. Herritarrik ezin izanen da zerbitzurik gabe gelditu baliabide ekonomiko nahikorik ez izateagatik. Lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagoko dirusarrerak dituzten pertsonak ez dute oinarritzko gizarte zerbitzuak izateagatik preziorik ordaindu beharko.

4. Zerbitzuaren kalitatea, bai eta laguntza jasotzeko lehentasuna edo premia, ez du erabiltzailearen parte hartze ekonomikoak baldintzatuko.

5. Erabiltzailearen batek ez badu baliabide korronterik baina, aldiz, prestazioak eragindako gastuei aurre egiteko bidera daitekeen ondarearen titular bada, edo norbaitek betebeharrak baditu berekin, erabiltzaile horrek ekonomikoki parte hartzeko moduak ezar daitezke, eta, behar izanez gero, behar diren bermeak ezarriko dira.

59. artikulua. Oinarritzko osasun laguntzaren oinarritzko finantzaketa.

1. Nafarroako Foru Komunitateak eta toki entitateek batera finantzatuko dituzte oinarritzko osasun laguntzako gizarte zerbitzuak, foru lege honetan ezarritako irizpideekin bat.

2. Nafarroako Foru Komunitateak eta toki entitateek urtero ezarriko dute beren aurrekontuetan oinarritzko osasun laguntzako gizarte zerbitzuen guztizko kostua. Toki entitateek, esleituta dituzten eskumenak gauzatzeko beharrezkoak dituzten gastuak finantzatzeko, guztizko gastuen heren bat jarriko dute, eta, betiere, aurrekontuen %6 bideratuko dute beren lurraldeko gizarte zerbitzuetara. Nafarroako Foru Komunitateak, finantzaketarako, guztizko kostuaren bi heren jarriko ditu.

3. Nafarroako Foru Komunitateak bere aurrekontuen bidez finantzatuko ditu, betiere, gutxieneko gizarte errentak, larrialdiko laguntzak eta estatuko legedian, menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzkoan hain zuzen, bermatutako babes maila gutxienekoari dagozkion prestazioak.

4. Toki entitateek prestazio eta programa osagarriak gauzatu ahalko dituzte beren kargu, beren lurralde esparruko herritarrentzat.

60. artikulua. Oinarritzko osasun laguntzaren finantzaketa osagarria.

1. Aurreko artikuluan ezarritakoaz gain, foru erkidegoak lagun dezake toki entitateek beren herritarren beharrei aurre egiteko dituzten prestazio eta programa osagarriak finantzatzen, horretarako erabakitzen den moduan; betiere, plan zehatzak daudenean eta finantzaketa horrek sistemaren estaldura handitzeko balio duenean.

2. Aurreko artikuluan ezarritakoaz gain, Nafarroako Foru Komunitateak, dirulaguntzen araudiari jarraikiz, gizarte zerbitzuetako zentroak eraikitzen, zaharberritzen eta hornitzen lagunduko du.

61. artikulua. Laguntza espezializatuaren finantzaketa.

1. Nafarroako Foru Komunitateak bere aurrekontuen kargura finantzatuko ditu laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuak; horretara bideratuko dira, baldin badaude, Estatuko administrazio orokorrak helburu horrekin eginiko transferentziak.

2. Nafarroako Foru Komunitateak urtero ezarriko du bere aurrekontuetan laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuen guztizko kostua.

3. Toki entitateek, foru erkidegoaren plangintza orokorraren markoaren baitan, laguntza espeziali-

zatuko zerbitzuak sortu, mantendu eta eta garatu ahalko dituzte beren herritarren gizarte beharrak betetze aldera; aukera hori baliatuz gero, Nafarroako Foru Komunitatearekin itunak ezarri ahalko dituzte, finantzaketa batera egiteko.

VI. TITULUA

Ikuskapena eta zehapen araubidea

I. KAPITULUA

Ikuskapena

62. artikulua. Ikuskapenaren menpeko jarduketak.

1. Foru lege honen aplikazio esparruan dauden entitate publiko eta pribatuak betetako jarduketa guztiak egonen dira gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuaren ikuskapenaren eta kontrolaren menpe.

2. Gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak eginkizun horiek beteko dituzten ikuskatzaileak gaituko ditu, eta langile horiek agintearen agente izaera izanzen dute jardunean daudelarik. Langile horiek, betiere, funtzionario publikoak izan beharko dute.

II. KAPITULUA

Arau-hauste administratiboak

63. artikulua. Arau-hausteak eta subjektu erantzuleak.

1. Gizarte zerbitzuen arloko arau-hauste administratiboak dira subjektu erantzuleen ekintzak eta ez-betetzeak, baldin eta lege edo erregelamenduzko arauen kontrakoak izan eta titulu honetan tipifikaturik eta zehaturik badaude.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

3. Titulu honetan tipifikaturiko arau-haustetzat har daitezkeen ekintzak edo ez-betetzeak egotzi ahal zaizkien pertsona fisiko nahiz juridikoak dira subjektu erantzuleak.

4. Zerbitzuetako administratzaileak, gerenteak, zuzendariak eta arduradun teknikoak ere erantzuleak izan daitezke, beren eginkizunen esparruan eta foru lege honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

64. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinak honako hauek dira:

a) Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei legez aitorturiko eskubide hauek urratzea: zerbitzuko barne arauak eskura izan eta ezagutzea, eta

kexak eta iradokizunak jaso eta ebazteko sistema bat egotea.

b) Erabiltzaileen erregistrorik ez izatea edo behar bezala eguneraturik ez edukitzea, erregelamenduan halakoa edukitzea eskatzen den zerbitzuetan.

c) Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak prestazio eta zerbitzuetarako ezarritako arauak, betebeharrak, prozedurak eta baldintzak ez betetzea, eta gizarte zerbitzuetako profesionalen programei eta orientabideei ez jarraitzea, halako moduan non esku-hartze sozialaren xedeak izaera galtzen duen, edota gizarte zerbitzuetako profesionalekin edo beste erabiltzaile batzuekin begirunerik gabe jokatzeari.

d) Gizarte zerbitzuen erabiltzaileek eman zaizkien prestazioak erabiltzea emandako helburuaz beste baterako.

e) Finantzaketan parte hartzeko betebeharra urratzea, gizarte zerbitzuen erabiltzaileei legez eskatzekoa denean.

h) Foru lege honetan ezarritako moduan herritarrek gizarte zerbitzuetan parte hartzeko duten eskubideaz baliatzea galaraztea.

65. artikulua. Arau-hauste larriak.

Arau-hauste larriak honako hauek dira:

a) Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak horietaz berdintasunez balia daitezen galaraztea.

b) Gizarte zerbitzuen hartzaileei buruzko datu pertsonalen, familiarren edo sozialen gaineko konfidentzialtasun betebeharra ez betetzea, gizarte zerbitzuen esku dauden datuei dagokienez.

c) Hartzaileentzako banakako edo familiako laguntza plana egiteko betebeharra ez betetzea, edo hura egin edo aplikatzerakoan ez betetzea horretarako dauden lege manuak, bereziki kasuaren balorazioari, hartzaileek banakako esku-hartze prozesuan parte hartzeari eta erreferentziako profesional bat izendatzeari dagokiena.

d) Galaraztea erabiltzaileak funtsezko eskubi-deetaz balia daitezen bai eta egoitza batean sartu, bertan gelditu eta bertatik ateratzeko gizabanakoen askatasunaz balia daitezen ere, salbu eta adingabeko eta ezgaituentzako lege indardunek ezarritakoaren kasuan.

e) Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileei ez ematea laguntza espezializatua eta integrala, etengabe eta bakoitzaren premia berariazkoekin bat heldu dena.

f) Egoitzako zerbitzuen erabiltzaileen eskubide hauek ez betetzea: intimitatea errespetatzea, komunikazioen sekretua, praktika erlijiosoa, egoitza etxetzat hartzea eta ingurune familiar eta sozialarekin harremanetan egotea.

g) Zerbitzuko prezioen araubidea ez betetzea edo aldatzea.

h) Bizikidetzat larriki nahastea, edo egoitzetako nahiz gizarte zerbitzuetako beste instalazio batzuetan kalte larriak eragitea.

j) Gizarte zerbitzuen arloan beharrezkoa den baimen administratiboa izan gabe jardutea.

j) Baimendutako gizarte zerbitzu bat horretarako alde aurretiko baimen administratiboa lortu gabe bertan behera uztea.

k) Prestazioak edo baimen administratiboak lortzeko beharrezkoak diren datuak faltsutzea, edo horiek izateko eskubidea ematen duten zirkuntantzietan izaniko aldaketak ez jakinaraztea.

l) Baimenak emateko baldintzak betetzen ote diren egiaztatu eta ebaluatzeko jarduketak ez onartzea edo galarazi edo eragozte.

m) Zerbitzuek jarduteko bete behar dituzten baldintzak eta kalitate estandarrak erregulatzeko dituen araudia ez betetzea.

n) Administrazioaren ikuskapen lanari trabak jartzea.

ñ) Hutsegite arinetan berrerortzea.

66. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Arau-hauste oso larriak honako hauek dira:

a) Gizarte zerbitzuak ematea halakoak direla ezkataturik, arloan indarra duen legeriaren aplikazioa saihesteko.

b) Sendagileak agindu gabe eta gainbegiratu gabe immobilizazioa edo murrizketa fisiko edo farmakologikoren bat jasanaraztea zerbitzuen erabiltzaileei, non ez dagoen haien nahiz hirugarrenen segurtasun fisikorako arrisku berehalakorik.

c) Zerbitzuetako erabiltzaileei tratatu txar fisiko nahiz psikikoak eragitea.

d) Ikuskatzaileei, salatzaileei, erabiltzaileei edo haien familiartekoei koakzioak edo mehatxuak edo beste edozein presio larri eragitea.

e) Zerbitzuek funtzionatzeko eta denboran zehar baimen administratiboak lortzeko baldintzei eusteko bete behar dituzten gutxieneko baldintzak eta kalitate estandarrak erregulatzeko dituen araudia ez betetzea, horrek erabiltzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jartzen duenean.

f) Hutsegite larrietan berrerortzea.

67. artikulua. Preskripzioa.

Foru lege honetan tipifikaturiko arau-hauste oso larriek lau urteren buruan preskribatuko dira, larriek hiru urteren buruan eta arinek urtebeteren buruan, arau-haustea egin zenetik hasita.

III. KAPITULUA Zehapen administratiboak

68. artikulua. Zehapen administratiboak.

1. Aurreko kapituluan ezarritako arau-hausteek honako zehapen hauek ekarriko dituzte:

a) Arau-hauste arinak: idatzizko kargu-hartzea edo gehienez ere 12.000 euroko isuna.

b) Arau-hauste larriak: 12.001 eurotik 60.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larriak: 60.001 eurotik 600.000 eurora bitarteko isuna.

2. 64. artikuluko c) eta d) letretan tipifikaturiko arau-hauste arinen zehapen gisa, sei hilabetetik hiru urtera bitarteko epean arau-haustearen xede izan den prestazio horretaz baliatzeko debekua ezarriko zaio gizarte zerbitzuen erabiltzaileari. Arau-hauslea legez ezgaituriko erabiltzaile baten legezko ordezkaria denean, 6.000 euro bitarteko zehapena ezarriko zaio horri, eta erabiltzaileari ez zaio ezarriko puntu honetan agindutakoa. Arau-haustea egoitzako zerbitzuei dagokienean, zehapen gisa gizarte zerbitzura igorriko da erabiltzaileari, edo, zerbitzu horren onuradun izateko gutxieneko baldintzak betetzen ez baditu, emandako prestazioa kenduko zaio.

69. artikulua. Hertsatzeko isunak.

1. Arau-haustea legez eska daitekeen jarrera edo jarduketaren bat ez betetzea denean, zehapenari errekerimendu bat erantsiko zaio, zehazturik arau-hausleak zehazki zer egin behar duen egoera leheneratu eta legez eskatzekoak diren baldintzak betetzeko, eta zer epe duen horretarako. Horretara beharturik dagoenak errekerimendu horretan ezarritakoa moduan eta epean betetzen ez duenean, zehapenerako eskumena duen organoak hertsapen isunak ezartzea erabaki ahalko du.

2. Hertsapen isunak errepikatu ahalko dira, gutxienez hilabetea iraganik batetik bestera, eta haien zenbatekoa ez da izanen zehapen gisa ezarritako isunaren zenbatekoaren ehuneko 30etik gorakoa. Zenbateko hori honako irizpide hauek kontuan harturik zehaztuko da:

a) Egoera zuzentzeko betebeharra betetzen atzeratzea.

b) Betebeharrak nahita ez betetzea, edo ez-betetzeak behin baino gehiagotan gertatzea.

c) Eragindako kalteen izaera.

3. Norbaitek ordaintzeko betebeharra izan eta ordaintzen ez badu, hertsapen isunak premiamendu bidez eskatu ahalko zaizkio, jakinarazpena egin eta hogeita hamar egun baliodun iraganik.

4. Hertsapen isunak eta ezar litezkeen zehapenak independenteak eta bateragarriak izanen dira.

70. artikulua. Zehapen osagarriak.

Arau-hauste oso larrietan honakoak ere zehapen gisa metatu ahalko dira:

a) Foru lege honetan aurreikusitako jarduerak betetzeko hurrengo bost urteetarako desgaitzea, eta horrekin batera kasuan kasuko baimen administratiboa ezeztatzea.

b) Zentroetako zuzendariak zuzendari izateko desgaitzea hurrengo bost urteetarako.

c) Finantzaketa publikoa jasotzeko urtebetetik bost urtera bitarteko eperako desgaitzea.

d) Zerbitzua aldi baterako etetea, osorik edo haren zati bat, gehienez ere urtebetez.

e) Zerbitzua behin betikoz bertan behera uztea, osorik edo haren zati bat; baimen administratiboa ezeztatzea ekarriko du horrek berekin.

f) Administrazio publikoekin kontratatutako desgaitzea urtebetetik bost urtera bitarteko eperako.

g) Zehapen organoak, behin zehapenak irmo direlarik bide administratiboan, horiei publikitate ematea erabaki ahalko du pertsona fisiko nahiz juridiko erantzuleen izenak publiko eginez, egindako arau-hausteak espresuki adierazirik. Publikitatea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta egokitzat jotzen diren komunikabideetan egingen da.

71. artikulua. Zehapenen mailaketa.

1. Jarri beharreko zehapenak zehazterakoan, eta, beharrezkoa izanez gero, isunen zenbatekoa eta aldi baterako zehapenen iraupena erabakitzerakoan, horiek bat etorri beharko dute arau-haustearen larritasunarekin. Bereziki, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Norainoko asmo edo arduragabekeria izan den arau-haustea egitean.

b) Sortu diren edozein motatako kalteak eta pertsonentzako nahiz ondasunetarako sortu edo izan den arrisku egoera.

c) Arau-hausteetan berrerortzea edo halakoak behin eta berriz egitea.

d) Arau-haustearen oihartzun ekonomiko eta soziala.

e) Arau-hausleak urratutako araudia bere kabuz bete izana, zehapen prozedura abiarazi baino lehen.

2. Arau-haustearen ondorioz lorturiko etekin ekonomikoa foru lege honetan ezarritako zehapenaren zenbatekoa baino handiagoa bada, zehapena etekinaren zenbatekoa berdindu arte handituko da.

72. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

Hutsegite oso larriengatik ezarritako zehapenek lau urteren buruan preskribatuko dira, larriek hiru urteren buruan eta arinek urtebetera, zehapena ezartzen duen ebazpena irmo egin eta biharamunetik hasita.

73. artikulua. Organo eskudunak.

Zehapen prozedura tramitatzeke eta zehapenak jartzeko organo eskudunak administrazio publiko bakoitzaren egitura organikoan ezarritakoak izanen dira, eta zein administrazio publikoren esparruko zentro edo zerbitzutan gertatzen den arau-haustea, administrazio hori izanen da zehapena jartzeko eskuduna.

74. artikulua. Zehapen prozedura.

1. Foru lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko prozedura administrazio prozedurari buruzko oinarrizko legedian ezarritakoa izanen da, eta, kasua bada, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoa, erregelamenduz ezar daitezkeen berezitasunak galarazi gabe.

2. Zehapenetan aurreikusitako murrizketa aplikatzerik ez da izanen zehapena arau-hauste oso larri batengatik ezartzen denean.

75. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Zehapen prozedura abiarazi aurretik, eta pertsonentzako arrisku egoerak sortu badira, lehenbailehen desagerrarazi edo arindu beharrekoak, organo eskudunak kautelazko neurri hauetako bat hartu ahalko du:

a) Zentroa aldi baterako ixtea, osorik edo haren zati bat, edo zerbitzua nahiz jarduerak, osorik edo haien zati bat, aldi baterako etetea.

b) Erabiltzaile berriak hartzeko debekua aldi baterako.

2. Hartutako kautelazko neurriak zehapen prozedura abiarazten den unean berretsi, aldatu edo

kendu beharko dira, hau da, neurriok hartu eta hamabost egun iragan aurretik.

3. Neurri horiek edozein unetan hartu ahalko dira, zehapen prozedurari behin abiarazi delarik, eman daitekeen azken ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko; kasu horretan fidantza bat aurkeztea ere eskatu ahalko da, behin-behineko neurri gisa, egokitu daitekeen isunaren gutxieneko zenbatekoaren adinakoa.

76. artikulua. Zehapenen berrinbertsioa.

1. Administrazio publiko eskudunek zehapen ekonomikoen bidez lortutakoa gizarte zerbitzuen sarea hobetzeko erabiliko dute.

2. Organo zehatzaileak erabaki dezake zehapena jaso duen pertsonak edo entitateak zehapen ekonomikoa zuzenean erabil dezala ematen duen zerbitzua hobetzeko, betiere egiaztatzen bada zehapena eragin duen arau-haustea zuzendu dela zehapen prozedura amaitu baino lehen.

Xedapen gehigarriak

Lehen xedapen gehigarria. Prestazio ekonomikoen enbargaezintasuna eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga ordaintzetik salbuestea.

Erregelamenduz ezarriko da zer prestazio diren enbargaezinak eta zein geldituko diren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuesirik.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako gizarte zerbitzuen lehen plan estrategikoaren onespena.

Nafarroako Gobernuak gehienez ere urtebete epean onetsi eta igorriko du Nafarroako Parlamentura Nafarroako gizarte zerbitzuen lehendabiziko plan estrategikoa; planak gutxieneko eduki hau izanen du:

a) Nafarroako Foru Komunitateak duen gizarte egoeraren azterketa eta diagnosis, dauden arazoak eta herritarren zer sektore dauden kaltetuta.

b) Gizarte zerbitzuek duten egoeraren azterketa eskariaren azterketa.

c) Gizarte zerbitzuak garatzeko jarraitu beharreko ildo estrategikoak, bete beharreko helburuak eta horiek erdiesteko gauzatu beharreko ekintzak.

d) Jarduketa kronograma bat, eta zer entitatek eta organok duten jarduketaren ardura.

e) Zehaztutako helburuen betetzea ebaluatzeko mekanismoak, eta plana berrikusteko prozedura.

f) Gizarte zerbitzuen plangintza sektorialaren aurreikuspena.

Xedapen iragankorrak

Lehen xedapen iragankorra. Dauden baimen administratiboak.

Aurreko araudiari jarraikiz emandako baimen administratiboek indarra izanen dute aurrerantzean ere. Halere, foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere hiru urteko epean, entitateak arau honen babesean ezarritako baldintza berrietara egokitu beharko dira, bestela emandako baimena galduko baitute.

Bigarren xedapen iragankorra. Eskualdeak.

Behar diren erregelamenduzko arauak onetsi bitartean, foru lege honek indarra hartzean dauden eskualdeek izanen dute indarra.

Xedapen indargabetzaile bakarra

1. Arau hauek indarrrik gabe geratu dira:

a) Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea.

b) 9/1990 Foru Legea, azaroaren 13koa, gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzkoa.

c) Gizarte zerbitzuen arloko itunei buruzko urriaren 25eko 20/1985 Foru Legea.

d) Urtarrilaren 16ko 11/1987 Foru Dekretua, oinarrizko gizarte zerbitzuen araubidea ezartzen duena.

e) Foru lege honetan ezarritakoaren kontrako maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

2. Maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak, gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duenak, indarra izanen du aurrerantzean ere, foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoa ez den guztian.

Azken xedapenak

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak behar diren erregelamenduzko xedapenak emanen ditu foru lege hau aplikatu eta garatzeko, legeak indarra hartu eta bi urteko epean.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera hartuko du indarra.

ARTIKULUEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

1. artikuluko 1. idatz-zatian "..., bereziki behar-tsuenena,..." kentzea.

Zioak: Foru legearen xedea zehaztean behar-tsuenak aipatzea ez dator bat gizarte zerbitzuen sistemaren unibertsaltasun bokazioarekin.

2. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

1. Foru lege honen xede nagusia da populazioaren gizarte ongizatea lortzea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, bereziki behar-tsuena, gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubide unibertsala bermatuz.

Zioak: Sustatzea jarri ordez lortzea idatzi dugu benetako xedea izanen delako Nafarroako herritarren ongizatea lortuko duten politikak abian jar-tzea.

3. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 2. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

2. Foru lege honen xedea, halaber, Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuen sistema itxuratzea da, halako moduan non bermatuko baita zerbitzuak pertsonen autonomia, duintasuna eta bizi kalitatea ziurtatuko dituzten baldintza onenetan ematen direla.

Zioak: Pertsonen autonomia gehitu dugu men-pekotasun batzuek, laguntza egokia izanik, per-

tsonen autonomia ahalbidetzen dutelako; Izan ere, garrantzitsua da azpimarratzea autonomiak bermatzen duela pertsonen duintasuna eta, horretaz gain, 2. artikuluan ezarritako xedearekin bat dator.

4. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

3. Azkenik, foru lege honen beste xede bat da gizarte zerbitzuen sistema publikoa diseinatzea eta bideak ezartzea gizarte zerbitzuen arloko jarduketa publikoak koordinatzeko gizarte politikaren gainerako arloekin eta irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuko jarduketekin –betiere ekimen publikoaren subsidiarioak–, pertsonen beharrei erantzuten dieten gizarte zerbitzuak lortzeko.

Zioak: Legearen xedea da, II. Tituluan ezarritakoarekin bat, gizarte zerbitzuen sistema publikoa diseinatzea. Hori horrela, gure ustez, gizarte zerbitzuen eskaintza gizarte zerbitzu publikoek eta itunduek, betiere irabazi asmorik gabekoek, osatzen dute. Pertsonen ongizateak, sektore publikoak eskaintzen dituen gizarte zerbitzuak direla-eta, ez ditu etekinak sortu behar; horretaz gain, gizarte zerbitzuen sistema botere publikoen ardura denez, ekimen pribatuaren eginkizuna subsidiarioa izanen da.

2. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

5. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. artikuluko helburuen hurrenkera aldatzea proposatzen da: d) letra a) izatea.

Zioak: Helburu nagusia da herritarren bizi kalitatea hobetzea eta haien normalizazio eta integrazioa gizartean sustatzea; beste helburu guztiak helburu nagusi hori lortzeko bitartekoak dira.

6. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluari beste letra bat, j), gehitzea proposatzen dugu.

Hau da proposatzen den testua:

j) Arraza, sexu, sexu-joera, egoera zibil, adin, ideologia edo sinesmenagatik egindako bazterkeria saihestea, herritar orori gizarte zerbitzuez berdintasunean baliatzeko eskubide unibertsala bermatuz Bazterketa egoerei aurrea hartzeko eta horiek gainditzeko neurri positiboak eta aukera berdintasunerako politikak hartuko dira.

Zioak: 1. artikuluan adierazi dugunez, gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubidea unibertsala da, herritar guztientzat berdintasun aukeran gauzatu dena eta 6. a) artikuluan ezarritakoarekin bat datorrena.

**3. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

7. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

3. artikulua. Gizarte zerbitzuen sistema publikoa.

1. Gizarte zerbitzuen sistema titularitate publiko eta pribatuko –irabazi asmorik gabekoa– prestazio tekniko eta ekonomiko, plan, programa eta talde tekniko guztiek osatzen dute.

2. Gizarte zerbitzuen sistema publikoak modu integratuan eta sarean koordinaturik jardunen du, foru lege honetan eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako arau markoarekin bat.

Zioak: Legearen xedea da, II. Tituluan ezarritakoarekin bat, gizarte zerbitzuen sistema publikoa diseinatzea. Ekimen publikoa ordeztu behar bada, irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuarekin itundu da, pertsonen ongizateak, sektore publikoak eskaintzen dituen gizarte zerbitzuak direla-eta, ez dituelako etekinak sortu behar.

8. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluko –Gizarte zerbitzuen sistema– 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

2. Gizarte zerbitzuen sistemak modu integratuan eta sarean koordinaturik jardunen du, eta administrazio publikoek beti planifikatu, antolatu eta kontrolatu behar dute.

Zioak: Gure iritziz ezinbesteko da legean funtzio publiko horiek argi zehaztea; izan ere, botere publikoen ardura da herritarren eskubideak antolatzeari, babesteari eta bermatzeari.

**4. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

9. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 4. artikulua honela geratuko da idatzita:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko egoiliar diren guztiek eta bertan dauden pasadizokoek izanen dute foru lege honetan araututako gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubidea.

2. Nafarroako Foru Komunitatean dauden atzerriarrek, erbesteratuek, errefuxiatuek eta aberrigabeek ere izanen dute gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubidea.

3. Salbuespenez, atzerrian bizi diren nafarrek gizarte zerbitzu jakin batzuez baliatzeko aukera izatea aurreikusi ahalko da.”

Zioak: Lege honen aplikazio esparrua zabaltea eta testua erraztea.

10. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikuluko –Gizarte zerbitzuen hartzaileak– 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

4. Nolanahi ere, Nafarroan pobrezia, egoera pertsonal, familiar edo sozial larrian diren pertsonak baliatu ahalko dira gizarte zerbitzuen sistemaren barrenean egoera horri erantzuteko bide ematen duten prestazioez. Gizarte zerbitzuetako profesionalak baloratuko dute egoera hori, larritasunaren, prekarietatearen eta presaren arabera.

Zioak: Gure iritziz, populazioaren sektore bat (pasadizokoak, etab) kanpo gelditi daiteke beste administrazio egoera batean egoteagatik. Gainera, sektore horrek berariazko programak behar ditu.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4 artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatian honakoa gehitzea proposatzen da:

“.. eta Nafarroan eroldaturik dauden atzerritarak...”

Zioak: Erroldaturik dauden atzerritarrek, urtarriaren 11ko 41/2000 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, gizarte prestazioak eta zerbitzuak – orokorrak eta oinarritzkoak nahiz berariazkoak– espainiarren baldintza berdinetan jasotzeko esku-bidea dute.

12. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4 artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatian honakoa gehitzea proposatzen da:

“.. Nola nahi ere, atzerritarrek oinarritzko gizarte zerbitzu eta prestazioez baliatu ahalko dira.”

Zioak: Erroldaturik dauden atzerritarrek, urtarriaren 11ko 41/2000 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, gizarte prestazioak eta zerbitzuak – orokorrak eta oinarritzkoak nahiz berariazkoak– espainiarren baldintza berdinetan jasotzeko esku-bidea dute.

13. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari 1.bis idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

1 bis artikulua. Halaber, Europako Batasuneko herritarrak ez diren atzerritarrek, Nafarroako edozein udaletan erroldaturik badaude eta legezko baldintzak betetzen badituzte, gizarte zerbitzuen sistemaz baliatu ahalko dira.

Zioak: Legezko baldintzak betetzen dituzten etorkinei gizarte zerbitzuez baliatzeko aukera ematea.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4 artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. idatz-zatia artikulua amaieran jartzea proposatzen da:

Zioak: Beste idatz-zatietan agertutako egoerak biltzen dituen idatz-zatia da, beraz, logikoena amaieran jartzea da.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5 artikulua aldatzeko zuzenketa.

a) letran “..bermatu behar dute...” jarrita dagoen lekuan “..bermatuko dute...” jartzea proposatzen da.

Zioak: Agindu izaera eman nahi zaio eta ez bakarrik borondate izaera.

16. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko –Gizarte zerbitzuen sistema gidatzen duten printzipioak– b) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

b) Erantzukizun publikoa: botere publikoek gizarte zerbitzuen betetzea bermatuko dute, sistemaren funtzionamendurako eta koordinaziorako beharrezkoak diren giza baliabideak eta bitarteko tekniko eta finantzarioak arautuz eta jarritz.

Zioak: Eskuragarritasuna hitzak nahasmena sor dezake. Zerbitzuen betetzea bermatu behar da, eta ez bakarrik zerbitzuen eskuragarritasuna, horrek ez baitu ia ezertara behartzen.

17. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

b) Erantzukizun publikoa: botere publikoek gizarte zerbitzuen betetzea bermatu beharko dute, sistemaren funtzionamendurako eta koordinaziorako beharrezkoak diren giza baliabideak eta bitarteko tekniko eta finantzarioak arautuz eta jarritz.

Zioak: Gure iritziz, bermatu behar da gizarte zerbitzuen betetzea eta ez bakarrik eskuragarritasuna.

18. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko –Gizarte zerbitzuen sistema gidatzen duten printzipioak– l) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

l) Administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzak: botere publikoek ziurtatu beharko dute gizarte zerbitzuen sistemaren berdintasuna, eta ahal den efizientzia eta eraginkortasun handien funtzionatzen duela, horretarako haien arteko koordinazioa eta lankidetzak bideak bultzatuz. Nafarroako Gobernuak, printzipio hori bermatze aldera, toki entitateen parte-hartzea beharko du.

Zioak: Gure iritziz, beharrezkoa da toki entitateen parte-hartzea legea zuzentzen duten printzipioetan islatuta egotea. Gure ustez, administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzaren printzipioan ez da ekimen pribatua sartu behar administrazio publikoen partaide ez delako eta, betiere, ekimen pribatuak botere publikoek agindutako jarraibideen menpe egon behar du.

19. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko j) letra aldatzeko zuzenketa.

j) Autonomia sustatzea: gizarte zerbitzuen sistema lagungarria izanen da pertsonak behar den gaitasuna bereganatzen norberaren bizimoduari buruzko erabaki pertsonalak hartzeko eta lehentasunak hautatzeko, baita beste arlo batzuetan (gizartean, politikan, ekonomian, lanean, kulturean, hezkuntzan) parte hartzeko eta moldatzeko.

Zioak: Norberaren autonomia egokiago definitzeko.

20. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5 artikulua aldatzeko zuzenketa.

n) letraren bukaeran honakoa gehitzea proposatzen da: "..., betiere, parte-hartze horrek ekartzen ez badu behar diren zerbitzu profesionalak ordezkatzea."

Zioak: Boluntarioen lanak ez du erabilzailerik aitorzen zaien zerbitzuak edo prestazioak jasotzeko eskubidea ordezkatu behar.

21. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluarik gehiketa egiteko zuzenketa.

5. artikuluan –Gizarte zerbitzuen printzipio gidariak– "o" letra gehitzea proposatzen da. Testu hau izanen du:

"o) Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko sistemaren prestazioen izaera publikoa."

Zioak: Zehatzagoa da printzipio gidarietan gehitzea sistemaren izaera publikoa.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

22. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko a) letran gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

a) Gizarte zerbitzuez berdintasunez baliatzeko eskubidea, bereizkeriarik eragin gabe zerbitzuen hartzailearen jaioterriak, hizkuntzak, etniak, sexuak, joera sexualak, egoera zibilak, egoera familiarak, adinak, ezgaitasunak, erlijioak, ideologiak, iritzia edo beste edozein baldintza pertsonalek edo sozialek.

Zioak: Herritar guztien gizarte zerbitzuez berdintasunez baliatzeko eskubidea bermatzea, hizkuntza dela-eta bereizkeriarik eragin gabe.

23. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko –Gizarte zerbitzuen hartzaileen eskubideak– b) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

b) Dauden prestazio eta baliabideei buruz eta horietaz balizatzeko bete behar diren baldintzei buruz behar adinako informazio egiazkoa, norberaren hizkuntzan eta gaitasunaren arabera, modu ulergarrian jasotzeko eskubidea,...

Zioak: Gure ustez ezinbestekoa da aipamen hori gehitzea, erabiltzaileek uler dezaten funtsezkoa baita.

24. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

6. b) Dauden prestazio eta baliabideei buruz eta horietaz baliatzeko bete behar diren baldintzei buruz behar adinako informazio egiazkoa, norber-

raren hizkuntzan eta gaitasunaren arabera, modu ulergarrian jasotzeko eskubidea, bai eta babes sozialeko beste baliabide batzuei eta arlo horretan administrazio publikoek dituzten eskumenei buruz ere.

Zioak: Gure iritziz, emandako informazioa ulergarria izan dadin, herritarren hizkuntzan eman behar da eta, betiere, norberaren gaitasuna kontuan izanik.

25. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko b) letran gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

b) Dauden prestazio eta baliabideei buruz eta horietaz baliatzeko bete behar diren baldintzei buruz behar adinako informazio egiazkoa modu ulergarrian eta hartzailearen hizkuntzan jasotzeko eskubidea, bai eta babes sozialeko beste baliabide batzuei eta arlo horretan administrazio publikoek dituzten eskumenei buruz ere.

Zioak: Nafarroako herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, zehazki herritarrek norberaren hizkuntzan artatuak izateko duten eskubidea.

26. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko c) letran gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

c) Norberaren egoerari buruzko balorazioa eta, behar denean, behar sozialen balorazioa ere idatziz, Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan –gaztelania eta euskara–, eta hizkera argi eta ulergarrian jasotzeko eskubidea.

Zioak: Nafarroako herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea, zehazki herritarrek norberaren hizkuntzan artatuak izateko duten eskubidea.

27. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 6. artikuluko c) eta d) letrek honako testua izanen dute:

“d) Dauden prestazio eta baliabideei buruz eta horietaz baliatzeko bete behar diren baldintzei buruz behar adinako informazio egiazkoa beren hizkuntzan eta modu ulergarrian jasotzeko eskubidea, bai eta babes sozialeko beste baliabide batzuei eta arlo horretan administrazio publikoek dituzten eskumenei buruz ere.

c) Norberaren egoerari buruzko balorazioa eta, kasua bada, beharizan sozialen balorazioa ere idatziz, ahoz edo zeinu mintzairan eta interesdunarentzat argia eta ulergarria den moduan jakiteko eskubidea.”

Zioak: Erabiltzaileek jasotzen duten informazioa haientzako ulergarria dela bermatzea, hizkuntza eta zeinu mintzaira aipatuz.

28. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluko –Gizarte zerbitzuen hartzaileen eskubideak– j) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

j) Erreferentziako profesional bat esleitu eta hautatzeko eskubidea, oinarrizko gizarte zerbitzuko teknikarien artean eta arauetan ezarritako moduan.

Zioak: Gure ustez garrantzitsua da legean islatzea erreferentziako profesionalak oinarrizko gizarte zerbitzuko kideak direla.

29. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari beste letra bat, II), gehitzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

6 II) – Iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea, administrazioak erantzun beharrekoak.

Zioak: V. Tituluan araututako parte hartzeko eskubidea herritar gehienentzat urrun eta lauso gelditzen denez, gure iritziz, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea sartu behar da, administrazioa beste zerbitzu askotan bezala, eta gainera, administrazioak erantzuna eman behar die.

30. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6 artikulua aldatzeko zuzenketa.

j) letran honakoa gehitzea proposatzen da: “..profesional bat esleitu eta libreki hautatzeko eskubidea,..”

Zioak: erabiltzaileek zerbitzuak askatasun osoz hauta ditzaten.

31. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari –Gizarte zerbitzuen hartzaileen eskubideak– m) letra gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

m) prebentziorako eta bizi-kalitatea sustatzeko eskubidea.

Zioak: Prebentzio komunitarioa ezinbestekoa da arazo sozialak dituzten pertsonak hartzeko gauza izanen den gizartea eratzeko.

32. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari m) letra gehitzeko zuzenketa:

Hau da proposatzen den testua:

m) iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea.

Zioak: Eskubideak eta parte-hartzea zabaltzea.

33. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari –Gizarte zerbitzuen hartzaileen eskubideak– n) letra gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

n) iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea.

Zioak: Eskubide hori ezinbesteko baita gizarte demokratiko batean.

34. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari n) letra gehitzeko zuzenketa:

Hau da proposatzen den testua:

n) oinarrizko errenta bat, lanbide arteko gutxieneko soldata kontuan izanik, jasotzeko eskubidea.

Zioak: Lanbide arteko gutxieneko soldata kontuan izanik oinarrizko errenta jasotzea eskubide gisa aplikatzea; izan ere parametro hori ahalmen ekonomiko duina izateko gutxieneko aukerak bermatzeko erreferentziazko adierazlea da.

35. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikuluari o) letra gehitzeko zuzenketa:

Hau da proposatzen den testua:

o) Prebentziorako eskubidea.

Zioak: Prebentzioa baloratzea; izan ere, prebentzio komunitarioaren eta auzokideen partaide-tzaren arloetan etengabe lan eginez baino ezin da auzokide berriak eta arazo sozialak dituzten pertsonak hartuko dituen gizarte-sare bat eratu.

7. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**36. ZUZENKETA****ARALAR**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko –Gizarte zerbitzuen hartzaileen betebeharrak– e) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez deritzogu egokia legean zerbitzu katalogo bat planteatu gabe betebeharrak hori agertzeari.

37. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 7. artikuluko e) letra honela geratuko da idatzita:

“e) Zerbitzuaren kostua finantzatzen laguntzera, horretarako ahalmen ekonomikoa dutenean eta arauetan hala ezartzen denean.”

Zioak: Horrela testua lege proiektukoa baino zehatzagoa da.

8. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**38. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8 artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatian, b) eta c) letren artean ondokoa gehitzea proposatzen da:

“Erabiltzaileek egoitzetako zerbitzuei buruz egiten diren aldizkako ebaluazioen emaitzak zehazten dituen txosten publiko bat, egoitzara sartu baino lehen, ezagutzeko eskubidea dute”

Zioak: Gure ustez, ezinbestekoa da egoitza batean sartuko den pertsonak, edo kasua bada senideek edo tutoreek, hala egoitzako ezaugarri fisikoak, araudia eta bertan ari diren langileak nola eskumena duen departamentuak egindako aldizkako ebaluazioen emaitzak ezagutzea.

39. ZUZENKETA**ARALAR**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluari –Gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak– l) letra gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

l) Parte hartzeko eskubidea.

Zioak: Funtsezko eskubidea iruditzen zaigu, egoitzako zerbitzuen erabiltzaileak bertan bizi direla kontuan izanik.

9. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

40. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 9. artikulua honela geratuko da idatzita:

“Nafarroako gizarte zerbitzuen sistema publikoa laguntza-sistema normalizatua da, erantzukizun publikokoa, pertsona, familia eta gizarte talde guztien gizarteratzea eta autonomia sustatzea bilatzen duena, horretarako hiru arlotako eginkizuna betez; prebentziokoa, babesekoa eta sustapenekoa, berezko dituen prestazio eta jarduera batzuen bidez, zeinak administrazio publikoek eskainitako programa eta zerbitzuetan egituraturik egonen baitira, eta zuzenean edo zeharka kudeatuko baitira.”

Zioak: Horrela argiagoa da testua.

41. ZUZENKETA

ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko –Gizarte zerbitzuen sistema publikoa– 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sistema publikoari buruz ari bagara, ekimen pribatuko entitateen bidez zeharka ematen diren zerbitzuak, gehiago zehaztu gabe, ezin ditugu zerbitzu publikotzat hartu. Osasunari edo hezkuntzari buruz hitz egiten dugunean, sistema publikoa eta itundua edo pribatua desberdintzen ditugu. Zergatik ez egin gauza bera laugarren zutabea izeneko horri buruz ari garenean? .

Legeak zehaztu beharko luke zein diren sistema publikoa osatzen dituen zerbitzu eta zentroak, zein kudea ditzake irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuak eta zein merkataritza entitateek.

42. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9 artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatia ordeztu eta honako hau proposatzen da:

“2. Administrazio publikoek zuzenean emanen dituzte gizarte zerbitzuak, eta modu subsidiarioan, gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateen bidez”

Zioak: Ez zaigu egokia iruditzen ekimen pribatuko entitateek emandako gizarte zerbitzuak sistema publikoaren barne sartzea, lege proiektuko artikuluan agertu bezala. Ez gaude ekimen pribatuek arlo honetan zerbitzuak ematearen aurka, baina ez daude sistema publikoaren barne eta subsidiarioak izan behar dira.

43. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

Horretarako, (...) ez ezik gizarte zerbitzuen arloko irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuko entitateen bidez zeharka emandakoak ere, betiere, ekimen publikoaren modu subsidiarioan.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzea.

10. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

44. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

10. artikuluko 2. idatz-zatia horrela geratuko da:

“2. Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazioak teknikoak ekonomikoak edo materialak izan daitezke.”

Zioak: Proiektuak zehaztutako prestazioak osatzeko.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

45. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 11. artikulua honela geratuko da idatzita:

“1. Prestazio teknikoak dira langile kualifikatuek beren eginkizunen esparruan eginiko jarduketak profesionalak, gizabanakoei, familiei, taldeei eta erkidegoei zuzenduak, jakinarazitako beharrianak asetzea bermatzeko asmoz, laguntza profesionalen sistema baten bitartez.

2. Prestazio teknikotzat hartzen dira:

a) Herritarrei informazioa eta orientazioa ematea beren eskubide sozialei, horiek bermatzen dituzten baliabideei eta horiek erabiltzeko bide eta prozedurei buruz, eta, kasua bada, baliabideak berdintasun-baldintzetan eta behar bezala erabiltzea bermatzeko bitartekotza eta aholkularitza lana.

b) Sistemako zenbait erabiltzailek (pertsonek, familiek, taldeek, erkidegoek, beste sistema batzuetako profesionalak edo entitateek) jakinarazitako beharrian-egoeren balioespena, diziplina artekoa, egitea eta, kasua bada, gauzatu beharreko esku-hartze proiektua edo proiektuak zehaztea.

c) Zehazturiko beharrian-egoerak gainditzeko taxaturiko esku-hartze sozialeko proiektuen exekuzio teknikoa.

d) Izaera ezberdineko txosten teknikoak ematea, esku-hartze prozesuari buruzkoak, bai herritarrei bai barne edo kanpo zerbitzuei zuzenduak, ezartzen diren baldintzen eta irizpideen arabera.

e) Tutoretza juridiko-soziala.

3. Prestazio teknikoen norainokoa eta intentsitatea erregelamendu bidez zehaztuko da, eta horren arabera erabakiko da lan-talde profesionalen diziplina arteko osaera, haien espezializazio-maila, haiek osatzen dituzten profesionalen kopurua eta ezarritako programazioa, zeina egokitu beharko baitzaio foru lege honetan adierazitako ratio eta espezialitateei, eta, edozein kasutan ere, lurralde bakoitzean ase beharreko beharrianen nolakotasunari.”

Zioak: Testu hori esplizituagoa da.

46. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko –Prestazio teknikoak– 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legeak ez ditu bereizi behar prestazio tekniko bermatuak eta ez-bermatuak; izan ere, ez dira eskubide subjektiboak errespetatzen.

47. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legen honen lehen artikuluan ezarritakoarekin bat, gizarte zerbitzuaz baliatzeko eskubidea unibertsala da, eta, beraz, botere publikoen ardura da eskubide hori bermatzea herritar guztiek, bereizkeriarik gabe, herritar-eskubideaz baliatzeko aukera izan dezaten. Hori dela-eta, ez du zentzurik prestazioak bermatu eta ez-bermatuetan sailkatzea.

12. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

48. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 12. artikulua honela geratuko da idatzita:

“1. Prestazio ekonomikoak dira gizabanakoei edo familiei zuzenduriko diru-ekarpenak, xede gisa haien biziraupen-beharrianak asetzea edo beharrian egoera iragankorrei erantzutea dutenak. Prestazio horiek emateko erabakiaren funtsezko helburua izanen da gizarteratze-prozesuen laguntza osagarria izan daitezela aldi batez.

2. Prestazio ekonomikotzat hartzen dira:

a) Biziraupenerako eta bizitza duin baterako beharrianak asetzea bermatzen duen gutxieneko gizarte errenta. Onuradun izanen dira lan-merkatutik kanporatuak dauden eta biziraupenerako eta bizitza duina bizi ahal izateko beharrianak asetzeko behar besteko diru-sarrerarik ez duten pertsona guztiak. Zenbatekoa ezarriko da Nafarroako

Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean, eta gutxienez ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 80koa izanen da. Halaber, bestelako prestazio ekonomikoak jasota ere haien zenbatekoa gutxieneko gizarte errentarena baino baxuagoa duten pertsonak onuradunak izanen dira, zenbateko horretara iristeko behar den kopuruari dagokionez.

b) Beharrian ekonomiko iragankor edo puntuak asetzeari bermatzen duten aldi baterako laguntza ekonomikoak. Hemen sartuta daude gizarte larrialdiko laguntzak eta aldi baterako famili laguntzak.

c) Laguntza ekonomiko osagarriak, alde aurretik zehazturiko gizarteratze-prozesuetarako osagarri ekonomikoa izanen direnak.”

Zioak: Testu osatuagoa da.

49. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko –Prestazio ekonomikoak– 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Legeak ez ditu bereizi behar prestazio tekniko bermatuak eta ez-bermatuak; izan ere, ez dira eskubide subjektiboak errespetatzen.

50. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 2. idatz-zatian aldaketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

2. Prestazio ekonomikoak, oinarritzko errenta izan ezik, salbuespen gisa eta beste baliabiderik ez dagoenean baino ez dira eskainiko.

Zioak: Funts publiko horiek eman ziren xedera baino ez direla erabiliko bermatzea.

51. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: II kapituluaren gaude: Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren elementuak; eta 10.2 artikuluan ezarrita dago prestazioak teknikoak edo ekono-

mikoak izan daitezkeela. Botere publikoek erabilzaileei edo onuradunei eskainitako prestazioez ari garela ulertzen dugu. Beraz, ez du zentzurik diru-laguntzak jaso ditzaketan ekimen pribatuko entitateak idatz-zati horretan aipatzea.

52. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 12. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“12. bis artikulua. Prestazio materialak.

1. Prestazio materialak dira babesteko, osatzeko eta prestazio teknikoak laguntzeko baliabide ez-ekonomikoen multzoa, gizabanakoei, familiei eta taldeei zuzendua, haien eskubide sozialak bermatzeko xedez.

2. Prestazio materialtzat hartzen dira:

a) Ekipamendu orokor edo sektorialak, beharrian-egoeretan egoitza-izaerako laguntza iraunkor nahiz aldi batekoa eskaintzen dutenak.

b) Ekipamendu orokor edo sektorialak, ase beharreko beharrianen arabera askotariko laguntzen multzo bat eskaintzen dutenak (erabilitazio-okoak, informaziokoak, lanera bideratzekoak, hezkuntza eta prestakuntzaren arlokoak, gizarte sustapenekoak, gizarteratzeak eta laneratzeak), egunez edo gauez.

c) Etxez etxeko laguntzako zerbitzuak, gizabanakoei edo familiei beren ingurunean bertan etxerako laguntzak, laguntza pertsonalak edo psikosozialak eskaintzen dizkietenak.

d) Gizabanko edo familientzako laguntzak eta baliabide teknikoak, beren autonomia pertsonala erraztekoak.

e) Etxean bertan edo kolektiboentzako zentroetan kontsumitzeko prestatuak diren elikagaiez hornitzea.

f) Famili harrerako zerbitzuak.

g) Besteren menpekoak diren edo babesgabetasun egoeran dauden pertsonen tutoretza juridiko-sozialerako zerbitzuak.

h) Zerbitzu publikoen erabilera pribilegiaturako kreditazioa.”

Zioak: Proiektuan azaltzen den prestazioen zerrenda osatzea.

53. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat, 12. ter, gehitzeko zuzenketa.
Hona testua:

“12. ter artikulua. Prestazio mistoak.

Prestazio mistoak dira osagarritasuna erdieste-ko asmoz prestazio teknikoak prestazio ekonomiko edo materialekin konbinatzetik sorturikoak.”

Zioak: Proiektuko testua osatzea.

**13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****54. ZUZENKETA****ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluko –Gizarte zerbitzuen planak– 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

3. Plan guztiek genero eraginari buruzko ebaluazioa, txosten ekonomikoa eta aurrekontuetako diru kopurua izan beharko dute, horrek ziurtatuko baitu planaren aplikazioa.

Zioak: Txosten ekonomikoak ez dakar inolako diru konpromisorik. Bai ordea, aurrekontuan esleitutako diru kopurua.

55. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

3. idatz-zatia honela geldituko litzateke:

3. Plan guztiek, egin beharreko jarduketak eta zerbitzuak zehazte aldera, ondokoa izan behar dute: beharizanen eta arazo sozialaren eta haren arrazioen alde aurretiko azterketa, genero eraginari buruzko ebaluazioa eta txosten ekonomikoa, horrek zehaztuko baitu planaren aplikazioa. Aipatu planek lau urteko indarraldia izan behar dute, eta, urtero berraztertutako eta, kasua bada, aldatuak izan behar dira helburuen ebaluazio sistematikoaren eta aplikazioaren jarraipenaren arabera.

Zioak: Garrantzitsua da menpekotasunaren egoera eta diagnostikoa ezagutzeko planak diseinatu aurretik; hau da, unean uneko behar sozialen arabera ezarriko dira plan bakoitzeko helburu eta neurri zehatzak. Jakina denez, ebaluazio beharrezkoa izanen da planaren ondorioak ezagutzeko eta, kasua bada, ahuleziak antzemateko eta horrela zuzendu ahal izateko. Garrantzitsua da, halaber, planek indarraldi epe zehatza izatea, arazo sozialak etengabe aldatzen direlako eta arrazoiak une bakoitzean desberdinak direlako. Horrenbestez, planak aldizka aztertzeak ahalbidetzen du unean uneko egoeretara egokitzea, baita egoera berriei aurrea hartzea ere. 23.1 artikuluekin bat etorritik, lau urteko epea aukeratu dugu

56. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

13. artikuluari beste idatz-zati bat, 5.a, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

5. Nafarroako Gobernuak onetsitako planak, jakinarazpen gisa, Nafarroako Parlamentura igorriko dira parlamentu-taldeek gai bakar gisa eztabai-datu eta erabaki proposamenak aurkezteko aukera izan dezaten.

Zioak: Gizarte zerbitzuen sistema publikoa ongizate estatuaren funtsezko zutabeetako bat da eta eragin zuzena du herritarren ongizatean. Horrenbestez, herritarrak gehien kezkatzen dituen gaitetako bat da; beraz, gure iritziz, Nafarroako Parlamentuak ere plan horien onespenean parte hartu behar du. Gainera, hori bat dator 34. c) artikuluekin; hala ere, guk uste dugu Nafarroako Parlamentuaren parte-hartzea ezarri behar dela parte-hartzea arautzen duen artikulua honetan.

**15. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****57. ZUZENKETA****ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikuluko –talde teknikoak– 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

1. Talde teknikoak sistemaren prestazio teknikoak ematen eta planifikatzen edo prestazio ekono-

mikoak kudeatzen dituzten profesionalen taldea da.

Zioak: Beharrezkoa ikusten dugu talde tekniko-en plangintza eginkizuna legean sartzea.

58. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

1. Talde teknikoa sistemaren prestazio teknikoak eman edo prestazio ekonomikoak kudeatzen eta kontrolatzen dituzten profesionalen taldea da.

Zioak: Gure ustez, garrantzitsua da prestazio ekonomikoen xeda bakarra izatea onuradunen bizi kalitatea hobetzea.

16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

59. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 16. artikulua honela geratuko da idatzita:

“16 artikulua. Prestazioen zorroaren kontzeptua.

1. Prestazioen zorroa da gizarte zerbitzuen alorrean eskudun den administrazio publiko bakoitzak eskainitako prestazioen multzoa.

2. Gizarte zerbitzuen alorrean eskudun diren administrazio publikoek beren lurralde-eremuan bizi diren pertsoneri eskaini behar dizkiete kapitulu honetan arauturiko prestazio guztiak. Foru lege honetako xedapenak erregelamendu bidez garatuko dira, prestazioen edukiari, haiek esleitzeko araubideari eta haiek eskuratu ahal izateko baldintzei dagokienez.

3. Administrazio publikoek beren prestazio-zorroari beste prestazio batzuk gehitu ahalko dizkiete, foru lege honetan arauturikoez gain. 4. Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko estatuko legedian jasotako prestazioei aplikatuko zaizkie legedi horretan jasotako xedapenak.”

Zioak: Prestazioen zorroaren edukia foru legean zehaztuta geldidakin ahalbidetzea; horrela, herritarren eskubideen bermea areagotuko da. Proiektuak zorroaren zehaztasunak erregelamenduz ezartzeko uzten ditu, eta berme gutxi dute horrela eskubideek.

60. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua –kontzeptua– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

1. Prestazioen katalogoa herritarrek gizarte zerbitzuen sistema publikoaren prestazioak (teknikoak, ekonomikoak, zerbitzuak eta oinarrizko jarduketak) jasotzeko duten eskubide subjektiboa bermatzen duen tresna da; prestazioak katalogoan zerrendatuta daude.

2. Zerbitzuen zorroa prestazioen ezaugarri teknikoak urtero zehazten dituen tresna da; zorroan prestazio berriak sartu eta daudenak hobetu ahal dira. Zerbitzuen zorroa urtero onetsiko da foru dekretu baten bidez.

Zioak: Gure iritziz ezinbestekoa da bi kontzeptuak bereiztea. Prestazioen katalogoa, foru legean sartu dena, eskubide subjektiboa bermatzen duen tresna da. Katalogoan bermatutako eta eskatu beharreko oinarrizko prestazioak jasotzen dira.

17. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

61. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko 17. artikulua honela geratuko da idatzita:

“17 artikulua. Prestazioen bermea.

Nafarroan bizi diren herritarrek foru lege honetan arauturiko prestazioetarako eskubide subjektiboa daukate, eta, kasua bada, jurisdikzio eskuduan aldarrikatu ahalko dute, ezarritako betekizun eta baldintzak betetzen badituzte. Halaber, eskubidea dute administrazio publikoari eskatzeko foru lege honetan arauturiko zerbitzuak ezar ditzala.”

Zioak: Herritarren eskubide subjektiboak foru legearen aurreikuspenetan eta ez erregelamenduen balizko edukian oinarritzea.

62. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua. –Gizarte zerbitzu orokorren zorroa–. aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

17. artikulua. Prestazioen katalogoa.

Gizarte zerbitzu orokorren prestazioen katalogoan, gizarte zerbitzuen sistema publikoak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan aplikatzekoak dituen oinarritzko prestazioak –eskubide subjektibo unibertsal gisa eska daitezkeenak– zehaztuko dira.

Katalogoan ondoko prestazioak jasoko dira:

1.- informazio, balorazio, orientazio eta bitartekotzako prestazio teknikoak.

2.- Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko prestazio teknikoak: Norbanakoaren edo familiaren esku-hartzea arrisku egoeretan. laneratze eta gizarteratzeko prozesuetan esku-hartzea. Gizarte-bazterketa egoeretan gizarte eta hezkuntza arloko neurriak hartzea. Errehabilitazio psikosoziala. Familiar eta bizikidetzaren egoeretan bitartekotza egitea. Epailearen erabakiz ezgai diren pertsona helduen tutoretza. Epailearen erabakiz adingabeen tutoretza. Prebentzio, integrazio eta komunitatearen garapenerako esku-hartze komunitarioak.

3.- Boluntarioen lana eta babes sozial ez formala sustatzeko prestazio teknikoak: Gizartearen sentsibilizazioa, auzo antolakuntza, bitartekotza komunitarioa. Autolaguntzaren sustapena. Zaintzaileentzako laguntza. Harrera eta adopzioaren sustapena. bizikidetzarako formula alternatiboaren sustapena. Gizarte-lankidetzaren sustapena.

4.-menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko prestazio teknikoak: Menpekotasun egoerei aurrea hartzea. Estimulazio goiztiarra. Etxez etxeko laguntza. Teleguntza zerbitzua. Etxerako eta irisgarritasuna lortzeko laguntza teknikoak. Norbanakoari emandako laguntza. Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko estatuko legean jasotako beste prestazio batzuk.

5. Gizarteratzeko edo autonomia lortzeko balio duten prestazio ekonomikoak: Herritarrentzako

oinarritzko errenta. Larrialdi sozialetarako eta etxebizitzaren alokairurako laguntzak. Adingabeak babesteko laguntza ekonomikoak. Mugikortasun urriko pertsonentzat garraio-laguntzak. Berreskuragarri ez diren baliabide teknikoak lortzeko laguntzak.

6.- Larrialdietako prestazioak. Larrialdiko gizarte laguntza. Larrialdiko egoeretan daudenak eta etxetik gabeak egoitzetan hartzea. Genero arazoak dituzten emakumeentzako harrera zentroak eta bestelako laguntzak.

7.- Zaharrentzako eta menpekotasun egoeran daudenentzako egoitza prestazioak. Etxebizitza komunitarioak. Tutoretzako pisuak. Apartamentu babestuak. Egoitzetako laguntzako bestelako zerbitzuak. Eguneko eta gaueko zentroak. Aldi baterako egonaldien zentroak.

8.- Bizileku finkorik ez dutenentzako zentroak. Egoera zaurgarrian daudenentzako eguneko eta lanerako zentroak.

9.- Gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak: Lanaren bidez gizarteratzeko enpresak.

10.- Mantenu-prestazioak: Jantoki sozialak, etxez etxeko janari zerbitzua.

Zioak: Gure Planteamenduarekin bat etorritz, eskatu behar diren oinarritzko prestazioak, eskubide subjektibo gisa, legean zehazteko beharra.

63. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzea.

64. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikuluko 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko eta gizarte zerbitzu orokorren zorroan jasotako gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubidea subjektiboa delako; pertsona orok gizarte zerbitzu guztiez baliatzeko eskubidea du, beraz, aipatu eskubidea bermatze aldera, prestazioek nahiko aurrekontua izan behar dute.

65. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

17. artikuluko 3. idatz-zatian aldaketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

3. Gizarte zerbitzu orokorren zorroan jasotako prestazioak eskubide subjektibo gisa eskatu ahalko dira. Zorroan jasotako prestazio bakoitzerako arau espezifiko bat onetsiko da horietako bakoitzaz baliatzeko baldintzak zein diren eta zer epean eskatu ahalko den arautzeko.

Zioak: Dagoeneko azaldu ditugun arrazoiak direla-eta ez gatoz bat prestazio bermatuak eta ez bermatuak bereiztearekin. Beraz, gizarte zerbitzu orokorren zorroan jasotako prestazioak eskubide subjektibo gisa eskatu ahalko dira pertsona orok gizarte zerbitzu guztiez baliatzeko eskubidea delako. Ondoko zuzenketetan aipatuko dugunez, lege honen artikuluetan zorroaren eduki zehatza jaso behar du, Nafarroako Foru Komunitateko herritarrek baliatzeko eskubidea izanen dituzten gizarte zerbitzuak jaso behar ditu. Gure iritziz, prestazio horiek zehatzago arautu behar dira; hori dela-eta, prestazio bakoitzerako arau espezifiko bat onetsi behar dela uste dugu.

66. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

17. artikuluko 5. eta 6. idatz-zatiak aldatzeko zuzenketa.

17.5 eta 17.6 idatz-zatiak batzen dira eta idatz-zati berriak ondoko testua izanen du:

5. Zorroko prestazioen kostua ordaintzeko ekarpena egitea eskatu ahalko da. Prestazio bakoitzerako onetsiko diren arau espezifikoek prestazioaren finantzaketan parte hartzeko baldintzak arautuko dituzte. Horretaz gain, arau horiei, eranskin gisa, kostuen azterketa ekonomikoak eta finantzatzeko modua gehituko zaizkie.

Zioak: Testua hobetzea.

67. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

17. artikulua.

Artikulu bat, 17. bis), gehitzeko zuzenketa.

“17. bis artikulua.

Foru lege proiektuko lehen xedapen gehigarriak gehi hari aurkeztutako zuzenketek 17. bis artikulua osatuko dute.

Zioak: Gure iritziz, lehen xedapen gehigarria legearen zatirik garrantzitsuena da; izan ere, xedapen horretan bermatutako prestazioak aitortzen dira, herritarrek gizarte zerbitzuez baliatzeko duten eskubide subjektiboaren benetako aitortpena direnak eta ongizatearen estatuaren laugarren zutabearen oinarriak direnak; beraz, ezinbestekoa da prestazio horiek berariazko artikulua batean jasotzea.

68. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat, 17. bis, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

17. artikulua. Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren prestazioak

Gizarte zerbitzu orokorren zorroa, gutxienez, ondoko prestazioek osatuko dute:

– dauden eskubide eta giza baliabideei dagokienez, informatzeko, baloratzeko eta herritarrak orientatzeko zerbitzuak

– pertsona onuraduna laguntza etxean jasotzeko neurriak, besteak beste, ondoko jarduketan bidez:

- etxez etxeko laguntzak.
- menpekotasun egoeran dauden pertsonen ahaide zaintzaileentzako prestazioak
- zaintzaileei atsedena emateko programak etxebizitza egokitze laguntza-neurriak
- seme-alabak dituzten familientzako laguntzak
- ostatu alternatiborako prestazioak
- eguneko zentroak.
- egoitzak
- apartamentu babestuak

– gizarteratze programak, prebentzioari lehenatasuna emanez, eta kasua bada, bereizkeriaren arrazoiak banan-banakako programen bidez deuseztatzea

– oinarrizko errenta, pertsona bakarreko familien kasuetan lanbide arteko gutxieneko soldata izanen da, eta familia-kide bakoitzeko % 30 igoko da; betiere, gehienezko muga lanbide arteko gutxieneko soldataren halako bi izanik

– larrialdiko laguntzak. Unean uneko beharrei aurre egiteko prestazioak.

Zioak: Gure ustez, lege honek gutxieneko giza eskubideak bermatu behar ditu zorroaren edukia zehaztuz; hala eta guztiz ere, geroztik hori gehiago zehazteko arauak garatu ahalko dira. Hori guztia artikuluetan jaso behar da eta ez xedapen gehigarri batean.

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

69. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 18. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“18 artikulua. Oinarrizko prestazioak.

Honakoak dira oinarrizko prestazioak, unibertsalak eta biztanle guztientzat doakoak:

a) Informazio, balorazio, orientazio eta bitartekotzeko prestazio teknikoak.

b) Gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko prestazio teknikoak:

a') Norbanakoarengan edo familiarengan esku hartzea arrisku egoeretan.

b') Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea.

c') Errehabilitaziorako esku-hartzea.

d') Epailearen erabakiz ezgaitutako pertsona helduen tutoretza.

e') Adingabeen tutoretza, epailearen erabakiz.

f') Prebentzio, garapen eta integrazio, gizarteratze eta laneraterako esku-hartze komunitarioak.

c) Babes sozial ez-formala sustatzeko prestazio teknikoak:

a') Gizartearen sentsibilizazioa, auzo antolakuntza eta bitartekotza komunitarioa.

b') Autolaguntzaren sustapena.

c') Zaintzaileentzako laguntza.

d') Harrera eta adopzioaren sustapena.

e') Bizikidetzarako formula alternatiboen sustapena.

d) Gizarteratzeko edo autonomia lortzeko balio duten prestazio ekonomikoak:

a') Gutxieneko gizarte errenta.

b') Gizarte larrialdiko laguntzak.

c') Adingabeak babesteko laguntzak.

d') Mugikortasun urriko pertsonentzako garraio-laguntzak.

e') Berreskuragarri ez diren baliabide teknikoak lortzeko laguntzak.

f') Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko estatuko legedian jasotako prestazioak.

e) Larrialdiko prestazioak:

a') Larrialdiko gizarte laguntza.

b') Larrialdiko egoeretan daudenak egoitzetan hartzea.”

Zioak: Prestazioen zorroaren edukia foru legean bertan bermatzea.

70. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua. –Tokiko gizarte zerbitzuen zorroa–. aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

18. artikulua. Toki esparruko zerbitzuen katalogoa.

Nafarroako toki entitateek beraien gizarte zerbitzuen katalogoak onetsi ahalko dituzte, katalogo orokorrean jasotako prestazioen osagarri, eta horien aplikazio esparrua toki entitate horren lurraldea izanen da.

Zioak: Gure planteamendurekin bat etortzea.

71. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

2. Toki entitateen gizarte zerbitzuen zorroi 17. artikuluko 5. eta 6. idatz-zatietan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Zioak: Aurreko zuzenketen bidez 2., 3. eta 4. idatz-zatiak kendu ditugu eta, gainera, 66. zuzenketarekin bat etorri gogorazi behar dugu 5. eta 6. idatz-zatiak batu ditugula.

72. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18. artikuluko 1. idatz-zatian honakoa gehitzeko zuzenketa:

Testua honela geldituko litzateke:

1. Nafarroako toki entitateek beraien gizarte zerbitzuen zorroak onetsi ahalko dituzte, gizarte zerbitzu orokorren zorroan jasotako prestazioen osagarri, eta horien aplikazio esparrua toki entitate horren lurraldea izanen da.

Zorro horiek Nafarroako Gobernuko gizarte zerbitzuen departamentuak ezarritako homogeneizatzeko eta koordinatzeko irizpideen arabera egiten dira.

Zioak: III. tituluko III. kapituluarekin, administrazioen arteko koordinazio eta lankidetzaren, bat etortzea.

73. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18 bis artikulua gehitzeko zuzenketa.

18 bis artikulua. Tokiko gizarte zerbitzuen zorroaren prestazioak

Tokiko gizarte zerbitzuen zorroa, gutxienez, ondoko prestazioek osatuko dute:

– gizartean dauden beharrei buruz sentsibilizatzeko programak

– dagozkien gizarte zerbitzu orokorren zorroaren prestazioak tramitatzeko neurriak

– menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako aisialdi programak

Zioak: Tokiko gizarte zerbitzuen zorroaren gutxienezko edukia legeak ezarri behar ditu.

19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

74. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 19. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“19 artikulua. Funtsezko prestazioak.

Honakoak dira funtsezko prestazioak, unibertsalak baina ez nahitaez doakoak:

a) Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta haiei laguntzeko prestazio teknikoak:

a') Menpekotasun egoerei aurrea hartzea.

b') Etxez etxeko laguntza.

(i) Etxeko beharriari erantzutea.

(ii) Zainketa pertsonala.

c') Telelaguntza zerbitzua.

c') Etxerako eta irisgarritasuna lortzeko laguntza teknikoak. d') Lagun-egite pertsonala.

b) Errehabilitaziorako esku-hartzeko prestazio teknikoak:

a') Familiako esku-hartze komunitarioa.

b') Estimulazio goiztiarra.

c') Familian eta bizikidetzaren egoeretan bitartekotza egitea.

d') Zentro okupazionalak eta gizarteratze nahiz laneratzekoak.

e) Errehabilitazio psikosoziala.

c) Egoitza-prestazioak:

a') Etxebizitza komunitarioak.

b') Apartamentu babestuak.

c') Egoitzetako laguntzako zerbitzuak.

d') Menpekotasun egoeran edo egoera zaurgarrian daudenentzako eguneko eta gaueko zentroak. e') Aldi baterako egonaldietarako zentroak.

d) Elikagai-prestazioak (jantoki sozialak, etxeko zerbitzua).”

Zioak: Prestazioen zorroaren edukia foru legean bertan bermatzea.

75. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

19. artikulua –Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onestea– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren proiektua gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak urtero eginen du, eta Nafarroako Gobernuari igorriko dio foru dekretu bidez onets dezan.

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

76. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

19 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

19. artikulua. Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onestea.

Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren lege proiektua gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak eginen du, eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura igorriko du onets dezan.

Zioak: Gure ikuspuntutik, hobe da Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean gizarte zerbitzuen zorroaren gutxieneko garapena egitea geroztik zorro hori foru dekretuen bidez eguneratzeko. Hala ere, gobernuak edukirik gabeko lege marko bat aurkeztea erabaki duela ikusita, proposatu behar dugu gizarte zerbitzuen zorroa Nafarroako Parlamentuak onets dezala.

77. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

19 artikulua aldatzeko zuzenketa.

19. artikulua. Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onestea.

Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren proiektua gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak eginen du, eta Nafarroako Gobernuak lege proiektu baten bidez onetsiko du eta Nafarroako Parlamentura igorriko du behin betiko lege gisa onets dezan.

Zioak: Gizarte zerbitzuen zorroak nahiko garrantzia du lege baten bidez arautua izan dadin. Gogorarazi behar dugu bertan pertsona orok

gizarte zerbitzuez baliatzeko duen eskubidea zehazten dela.

**20. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****78. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 20. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kapitulu honi aurkeztutako zuzenketekin bat etortzeko.

79. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikulua –Tokiko gizarte zerbitzuen zorroa onestea– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Tokiko gizarte zerbitzuen zorroak kasuan kasu toki entitateak emandako ordenantzaren bidez urtero onetsiko dira.

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

**21. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****80. ZUZENKETA****ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

21. artikuluko 1. idatz-zatia –Planifikazio orokorra– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

1. Planifikazio orokorra Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eginen du, Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoen eta plan sektorial orokorren bidez. Horretarako, aipatu administrazioak planak abian jartzea bermatzeko beharrezkoa den aurrekontuetako diru kopurua izanen du.

Zioak: Ezinbestekoa deritzogu legeak aurrekontuetako diru kopurura egotera behartzeari. Izan ere, zoritxarrez, badakigu plan ugari ezerezean gelditu dela beharrezkoa den aurrekontua ez izateagatik.

**23. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

81. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

23 artikulua aldatzeko zuzenketa.

23. artikulua 2. idatz-zatiko a) letra kentzea.

Zioak: Gizarte zerbitzuen zonifikazioa administrazio publikoaren antolamendu araua da; beraz, ez da arau indarrrik ez duen plan baten bidez egin behar, baizik eta erregelamendu baten bidez.

82. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

23 artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatian honakoa gehitzea proposatzen da:

“.. “..Lau urteko indarraldia izanen du eta Nafarroako Parlamentuak onetsi beharko du.”

Zioak: Plan estrategikoa Nafarroako gizarte zerbitzuen esparru-agiria da. Planaren garrantzia ikusita, egokia dirudi Nafarroako Parlamentuak eztabaidatu eta onetsi behar izateak.

83. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

23. 2. artikulua aldatzeko zuzenketa

Beste letra bat gehitzea, e) alegia, proposatzen da.

e) Plan estrategikoan jasotako programa guztiak ebaluatzeko, kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema ezartzea. Ebaluazioa urtero egiten da eta ondoren txosten publiko bat ekarriko du, toki entitateen, erabiltzaileen eta, oro har, herritar guztien eskuera egon beharko dena.

Zioak: Helburua da ebaluazioa gizarte zerbitzuak era egokian eta eraginkorrean ematen direla bermatuko duen nahitaezko eta funtsezko tresna gisa sartzeari; horretaz gain, Comptos Ganberak

Gizarte Ongizate Departamentuari buruzko txostenean jasotako gomendioetako bat beteko da.

84. ZUZENKETA

**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

23. artikuluko –Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoa– 2. idatz-zatiari e) letra gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

e) Planaren helburuak ebaluatzeko sistema bat ezartzea.

Zioak: Esperientziak irakatsi digu beharrezkoa dela planen lorpenak eta gabeziak zorrotz ebaluatzeari hurrengo planak diseinatu baino lehen.

85. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

23. artikuluko 2. idatz-zatiari e) letra gehitzeko zuzenketa.

e) Ebaluatzeko metodologia bat diseinatzea

Zioak: 13. artikuluekin bat etorritik, planei urteko ebaluazioa egiten ahal zaie, beraz, planek ebaluatzeko metodologia bat izan behar dute.

**24. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

86. ZUZENKETA

**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

24. artikulua –Plan sektorial orokorrak– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Plan sektorial orokorrek gizarte zerbitzuen plan estrategikoen aurreikuspenak garatuko dituzte zenbait egoera sozialetan, populazioa ikuspegi sektorialarekin begiratuta. Zeharkako izaera eta urte anitzeko indarra izanen dute, gehienez erreferentziazko plan estrategikoaren indarraldi bera; halaber, behatokiak sortzea aurreikusi ahalko da bertan eta helburuak ebaluatzeko sistema bat ezarriko dute. Behin aztertuta, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak plan sektorial berriak egi-

tea bermatuko du planen arteko jarraipena ziurtatzeko.

Zioak: Aurreko zuzenketan esan dugun bezala, gure iritziz ebaluazioa beharrezkoa eta ezinbestekoa da.

Halaber, planen jarraipena bermatu behar dela uste dugu. Adibide gisa, hor dugu plan gerontologikoa (1997-2000), duela sei urte baino gehiago bukatu zena eta jarraipena izan ez duena.

87. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

Artikuluaren testua honela geldituko litzateke:

Plan sektorial orokorrek gizarte zerbitzuen plan estrategikoen aurreikuspenak garatuko dituzte zenbait egoera sozialetan, populazioa ikuspegi sektorialarekin begiratuta. Zeharkako izaera eta urte anitzeko indarra izanen dute.

Zioak: Hamabigarren Xedapen Gehigarri gisa aurkezteko zuzenketarekin bat etortzea; xedapen horren bidez errealitate sozialaren eta gizarte zerbitzuen sistemaren behatoki bat sortzea proposatzen da.

25. ARTIKULUARI

AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

88. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

25 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testu berria:

“Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren egiturak bi maila ditu: Oinarrizko laguntza, eskualdeko gizarte zerbitzuek eta barrutiko gizarte zerbitzuen zentroek osatuak; eta gizarte zerbitzu espezializatu edo laguntza espezializatuko zerbitzua”

Zioak: Oinarrizko laguntza ematen da hala oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez nola gizarte zerbitzuetako zentroen bidez.

89. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

25. artikulua.

Artikulu bat, 25. bis), gehitzeko zuzenketa.

“25. bis artikulua. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak.

1. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuen eginkizuna herritarrei informazioa eta gizarte-orientazioa ematea da; halaber, gizartearen sektore batzuek dituzten behar espezifikoak, ohiko inguruan, erantzuteko helburu duten prestazioak eman behar dituzte.

2. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak, modu deszentralizatuan, oinarrizko eskualdetan eta gizarte zerbitzuetako barrutietan ematen dira.

3. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuak oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta gizarte zerbitzuetako zentroetan antolatzen dira”

Zioak: Lege proiektuan, gizarte zerbitzuen sistema publikoan bi maila zehazten badira, beharrezkoa da bi mailen egitura bereiztea.

26. ARTIKULUARI

AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

90. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 26. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“26 artikulua. Oinarrizko gizarte zerbitzuak.

1. Oinarrizko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen sistema publikoko oinarrizko unitatea dira, sisteman sartzeko atea eta hartzaileengandik eta esparru familiar eta sozialetik gertuen dagoen maila. Toki entitateek izanen dute haien titularitatea.

2. Oinarrizko gizarte zerbitzuak askotariko profesionalen talde batek osatuak izanen dira, eta, irizpide orokor gisa, gutxienez ere gizarte langile bat izanen dute 4.000 biztanleko. Erregelamendu bidez ezarriko dira oinarrizko eskualde bakoitzean baliabide pertsonal eta materialen hornidurari aplikatzekoak diren ratioak, kontuan harturik, besteak beste, honako irizpide hauek: lurralde-sakabana-

ketaren indizea eta beharizan-maila, oinarrizko eskualdeko biztanleen per capita errentaren eta, kasua bada, arazo sozialen pilaketaren arabera.”

Zioak: Hornidura dela-eta proiektua gehiago zehaztea eta gizarte zerbitzuen zonifikazioa kentzea, ez baita arau indarririk ez duen plan baten bidez egin behar, baizik eta erregelamendu baten bidez.

91. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

26. artikuluko –Oinarrizko gizarte zerbitzuak– 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

I. Oinarrizko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen sistema publikoko oinarrizko unitatea dira, sisteman sartzeko atea eta hartzailengandik eta esparru familiar, sozial eta komunitariotik gertuen dagoen maila. Toki entitateek izanen dute haien titularitatea eta kudeaketa zuzenekoa eta publikoa izanen dute.

Zioak: Esparru komunitarioa azpimarratu dela iruditzen zaigu. Gure iritziz ezinbestekoa da oinarrizko gizarte zerbitzuen kudeaketa zuzenekoa eta publikoa izan dadin legean bermatzea.

92. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

26. artikuluko –Oinarrizko gizarte zerbitzuak– 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

3. Profesional anitzeko taldea izanen dute, erregelamenduz ezarria, baina, edonola ere, plantillak nahiko profesional izanen ditu erabiltzaileen eskubideak bost programetan bermatu ahal izateko.

Zioak: legeak plantillak nahiko profesional dituela bermatu behar du.

93. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

26 artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. idatz-zatian “profesional anitzeko taldea” jarri izanen duen tokian “diziplina arteko taldea” jarri

behar da, eta berdin esaldi hori lege proiektuaren testuan agertzen den bakoitzean.

Zioak: Arlo desberdinetako profesionalak elkarlanean aritzea.

27. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

94. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

27 artikulua aldatzeko zuzenketa.

a) letra ordeztu eta testu hau jartzea proposatzen da:

“a) Premia egoerei antzeman, eta horiek aztertu eta diagnostikatzea, eskumena duten zerbitzuei jakinaraztea eta erantzunak proposatzea.”

Zioak: Gizarte zerbitzuen eginkizunak osatzea ikuspuntu eraginkorrago bat erabiliz.

95. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

27. artikuluarik k) letra gehitzeko zuzenketa.

Letra berri bat, k), gehitzen zaio 27 artikuluarik.

k) Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren prestazioetatik, oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkienak kudeatzea.

Zioak: Oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizunetako bat izanen da gizarte zerbitzu orokorren zorroan katalogatuta dauden eta toki entitateen eskumenekoak diren prestazioak kudeatzea.

28. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

96. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 28. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“28 artikulua. Oinarrizko gizarte zerbitzuen programak.

1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen jarduketak gutxienez bost programatan bideratuko dira:

a) Harrera eta orientabide sozialerako programa, populazio osoari zuzendua, gizarte zerbitzuetan eskaerak aurkezten dituzten pertsonen esku-hartze soziala emateko. Doakoa izanen da.

b) Autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko programa, menpekotasuna duten pertsonen haien ohiko ingurunean ahal den luzaroen gelditzea ahalbidetzeko xedea duena. Programa hori menpekotasuna ez dutenei ere zuzendu ahalko zaie, helburua beste programa batzuen bitartez lortzerik ez dagoenean.

c) Oinarrizko laguntzako gizarteratze programa, gizartean, edozein esparrutan, bazterturik edo baztertzeko arriskuan daudenak gizarteratzen laguntzeko xedea duena.

d) Oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntza programa, adingabekoei haien garapen pertsonalerako bide emanen dien ingurunea ziurtatzeko, babesa eta laguntza pertsonala, familiarra eta soziala emateko tresnen bidez.

e) Erkidego-jarduketarako programa, xede gisa dituen auzokideen esparruetako gizarte-kohesioa sustatzea, erkidegoaren bizitza indartzea, guztien eginkizunetan parte hartzea erraztuz, elkartegintza eta boluntario-lana, bai eta bizikidetasun- eta gizarteratze-arazoan agerpenari aurrea hartzea ere.

2. Bost programa horiek nahitaez ezarri beharrekoak izanen dira Nafarroako Foru Komunitate osoan. Ezarpena pixkana egingen da eta oinarrizko eskualde bakoitzean dauden populazio ratioek eta egoera sozialaren gorabeherak baldintzatuko dute. Programa horietako bat edo batzuk ezartzerik ez badago, eskaintza oinarrizko eskualdea kokaturik dagoen barrutitik edo Foru Komunitateko beste barruti batzuetatik bermatuko da, gizarte zerbitzuetako zentroen bitartez, eta horrek ez die kosturik gehituko oinarrizko eskualde horietako biztanleei.

3. Programa horietako prestazioak, foru lege honetan xedatutakoa garatze aldera, erregelamenduz ezarriko dira, eta gizarte zerbitzuen zorroan aurreikusi egingen dira gutxieneko intentsitatea, horietaz baliatzeko baldintzak eta, halakorik dagoenean, kostuaren ordainketan laguntzeko aukera.

4. Oinarrizko laguntzan, toki entitateek beraien lurraldean eta eskumenen barruan ezartzen dituzten beste programa edo jarduketak gauzatuz osatu ahalko da esku-hartze maila."

Zioak: Oinarrizko gizarte zerbitzuen programak erkidego-jarduketarako bosgarren programa baten bidez osatzea.

97. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28. artikuluko –Oinarrizko gizarte zerbitzuen programak– 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Prestazioak katalogoan zehaztu behar diren planteamenduarekin bat etortzea.

98. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28 artikulua aldatzeko zuzenketa.

28. artikuluko izenburua ordeztu eta honako hau proposatzen da:

"28. artikulua. Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuen programa."

Zioak: Oinarrizko gizarte zerbitzuak oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuetara egokitzea; izan ere, legearen 25. artikuluan bi maila aurreikusten dira gizarte zerbitzuen zerbitzu publikoaren barne.

99. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28 artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatiaren testuaren ordezkari honako hau proposatzen da:

"28.1 Oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuen jarduketak gutxienez lau programatan bideratuko dira."

Zioak: Oinarrizko gizarte zerbitzuak oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuetara egokitzea; izan ere, legearen 25. artikuluan bi maila aurreikusten dira gizarte zerbitzuen zerbitzu publikoaren barne.

100. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28 artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. b) idatz-zatiaren bukaera ordezea proposatzen da eta "Programa hori menpekotasuna ez dutenei ere zuzendu ahalko zaie, helburua beste programa batzuen bitartez lortzerik ez dagoenean." jartzen duen tokian "Helburu berarekin eta prebentzio modura, autonomia pertsonalaren maila ahalik eta handien izateko balio duten laguntza-zerbitzuak behar dituzten beste taldeei ere zuzendu ahalko zaie." jarri behar du.

Zioak: Programaren azalpenean izenburuaren bigarren zatia (menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko programa) baino ez da jasotzen, eta proposatzen dugun ordezkapenean autonomia pertsonala sustatzeari dagokiona ere sartuta dago.

101. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28. artikuluko 2. idatz-zatian kenketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

2. Lau programa horiek nahitaez ezarri beharrekoak izanen dira Nafarroako Foru Komunitate osoan. Ezarpena pixkana eginen da eta oinarritzko eskualde bakoitzean dauden populazio ratioek eta egoera sozialaren gorabeherak baldintzatuko dute. Programa horietako bat edo batzuk ezartzerik ez badago, eskaintza oinarritzko eskualdea kokaturik dagoen barrutitik edo Foru Komunitateko beste barruti batzuetatik bermatuko da, gizarte zerbitzuetako zentroen bitartez.

Zioak: Programa horiek, bideraezintasuna dela eta, ez ezartzeko aukera ezartzen denez, barruti horietako ustezko erabiltzaileek gizarte zerbitzuetako gainerako barrutietako erabiltzaileek dituzten baldintzekin eta kostu erantsirik gabe jasoko dituztela bermatu behar da.

102. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28 artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatian, gaztelaniazko testuan, "los ratios" jartzen duen tokian "las ratios" jarri behar da, eta berdin esaldi hori lege proiektuaren testuan agertzen den bakoitzean.

Zioak: Espainiako Errege Akademiaren hiztegiaren arabera hitz hori genero femeninokoa da.

103. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28 artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatian, "..eta horrek ez die kosturik gehituko." jarrita dagoen lekuan "..eta horrek ez die kosturik gehitu behar..." jartzea proposatzen da.

Zioak: Gizarte zerbitzuak erabiltzaile guztientzat eskuragarri jartzeko beharra.

104. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28. artikuluko 3. idatz-zatian aldaketa bat egiteko zuzenketa.

3. 3. Programa horietako prestazioak gizarte zerbitzu orokorren zorroan jasotakoak dira. Zorroa onesten duen legeak bertan ezarritako prestazio guztien baldintza komun eta orokor guztiak arautuko ditu. Prestazio horietaz baliatzeko baldintzak eta, halakorik dagoenean, kostuaren ordainketan laguntzeko aukera, prestazio bakoitzeko berariazko araudian arautuko dira.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzea. Gizarte zerbitzu orokorren zorroa arautzen duen legeak prestazio guztien baldintza orokorrak jasoko ditu, baina beharrezkoa da prestazio bakoitzak berariazko araudia garatzea.

105. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

28. artikuluko –Oinarritzko gizarte zerbitzuen programak– 1. idatz-zatiaren b), c) eta d) letrak kentzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

b), c) eta d) programetan honakoa eranstea: doakoak izanen dira.

Zioak: Gure planteamenduekin bat etorriz, oinarritzko programak doakoak izan behar dira.

106. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28. artikuluko –Oinarritzko gizarte zerbitzuen programak– 1. idatz-zatiari e) letra gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

e) Komunitatea garatzeko Programa, doakoa izanen dena.

Zioak: Programa hori ez sartzea proposatu zenean, asmoa zen ekintza komunitarioak zeharkakoak izatea gainerako programetan. Azpimarratu behar dugu lortu nahi zen zeharkakotasuna ez dela lortu.

107. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

Honako idatz-zati berria, 5.a, gehitzea proposatzen da:

“28.5. Plan sektorialek aipatu programen eta herritar talde bereei ematen zaizkien prestazioen eta jarduketan –ematen badira laguntza espezializatuaren bidez– arteko koherentzia eta erabiltzeko tresnak ziurtatu beharko dituzte.”

Zioak: Plan sektorialak zuzenzuta dauden herritar taldeei egokitzea.

29. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

108. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko –Gizarte zerbitzuetako zentroak– 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kontraesanean dagoelako artikuluko bereko 2. idatz-zatiaren bigarren lerrokadarekin; izan ere, lerrokada horretan esaten da gizarte zerbitzuetako zentroen titularitatea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarena dela, eta salbuespe-

nak aipatzen dira (4. xedapen gehigarrian agertzen direnak eta plan estrategikoetan ezarritako kasuetan).

109. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikulua.

3. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Legeak ezin du toki entitateen esku utzi gizarte zerbitzuetako zentroak sortzea; gainera, beharrezkoa da udalen edo bestelako toki entitateen arteko bereizkeriak saihestea.

110. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikuluko –Gizarte zerbitzuetako zentroak– 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

1. Gizarte zerbitzuetako zentroak oinarritzko laguntzarako sostengu zerbitzuak izanen dira, oinarritzko gizarte zerbitzuen programak osatzeko eginkizunarekin. Kudeaketa zuzenekoa eta publikoa izanen dute.

Zioak: Gure planteamenduekin bat etortzea.

111. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

29. artikulua.

1. idatz-zatiaren testuaren ordean honako hau proposatzen da:

“29.1. Gizarte zerbitzuetako zentro bat gutxienez jarriko da gizarte zerbitzuetako barruti bakoitzean. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak izanen du zentro horien titularitatea, salbu eta laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kasuan edo salbuespen gisa Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan ezarritako kasuetan.

Zioak: Argi utzi nahi dugu gizarte zerbitzuetako barruti bakoitzak gutxienez gizarte zerbitzuetako zentro bat izanen duela eta horien titularitatean Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari dago-

kiola; horrela, toki entitateekin ez da okerrik izanen.

30. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

112. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

30 artikulua aldatzeko zuzenketa.

30. artikulua ordeztu eta testu hau jartzea proposatzen da:

“30. artikulua. Hauexek dira gizarte zerbitzueta-ko zentroen eginkizunak:

a) Bere barrutian oinarrizko laguntzako programak garatzen eta betetzen direla ziurtatzea, oinarrizko gizarte zerbitzuekin lankidetzan aritzea eta aholkuak ematea, jarduteko irizpide homogeneousak ezartzea, baliabideak hobeki erabiltzeko jarduketa koordinatuak egokitzea eta sustatzea.

b) Oinarrizko laguntzako programen eta laguntza espezializatutako jarduketan arteko koordinazioa ziurtatzea plan sektorialetan ezarritakoaren arabera.

c) Oinarrizko gizarte zerbitzuekin batera aritzea kasuen jarraipena egiten eta haietan esku hartzen.

d) Izaeragatik edo oinarrizko eskualde batzuetako ezaugarriengatik era deszentralizatuan gara behar ez daitezkeen oinarrizko laguntzako prestazioak kudeatzea.”

Zioak: Lege proiektuaren testua hobetzen eta osatzen du.

31. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

113. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 31. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1. Erregelamendu bidez ezarriko dira gizarte zerbitzu espezializatuak, ahultasun edo menpekotasun faktoreen arabera, zeinak arrazoi sozial, natural edo bat-batean sorturikoen ondorioz bizi-

tzako etapa bakoitzean agertu eta gizarte arazoetan (soziopertsonaletan) gauzatu daitezkeen. Taxutzen diren jarduketak integratuak izanen dira, eta aintzat hartuko dituzte prebentzioa, laguntza, sustapena eta gizarteratzea.

2. Gizarte zerbitzuen sistemak hiru adin sektore aintzat harturik taxutuko ditu bere jarduketak: adingabeak, adindunak eta zaharrak. Betiere, banaketa hori sistemaren helburuak betetzea ahalbidetzen duten prestazio eta zerbitzuen malgutasun eta jarraitasunaren menpean egonen da.

a) Adingabeentzako jarduketan xedea izanen da haiei laguntzea eta bizikidetasun-eremu guztietan integra daitezkeen lortzea, haien garapen pertsonala erraztuz eta adingabeen interes gailena eta adin-nagusitasunerako haien sustapena bilatuz.

b) Adindunentzako jarduketek aintzat hartuko dituzte haien garapen pertsonal eta soziala aldi baterako edo modu iraunkorrean oztopatzen duten ahultasun-faktoreak, jatorria dutenak egoera soziopertsonaletan, norbanakoaren ezaugarrietan eta egoera horien aurrean gizarteak hartzen duen arbuio edo ez erantzuteko jarreran.

c) Zaharrentzako eta menpekotasuna dutenentzako jarduketek aintzat hartuko dute gaitasun eta baliabide pertsonalen balizko beherakada, pertsona horien beharrezko erantzuteko kanpo laguntzak ugaritzera behartzen duena.

3. Gizarte zerbitzu espezializatuaren jarduketa-eremuak hauexek dira, adin-sektore bakoitzean ager daitezkeen berariazko problematika ezberdinen arabera:

a) Ezgaitasunak, buru-nahasmen kronikoak eta menpekotasuna duten pertsonak.

b) Txirotasuna eta marjinaltasuna.

c) Drogamenpekotasunak.

b) Marjinaltasun etniko eta soziokulturala.

e) Delinkuentzia eta horrekin zerikusia duten arazoak.

f) Pasadizokoak, etxerik gabeko pertsonak eta esku-hartze soziala beharrezkoa duten bestelako kolektiboak.

g) Arrisku pertsonaleko egoerak eta larrialdiak.”

Zioak: Testu hau lege proiektukoa baino zehatzagoa da; izan ere, gizarte zerbitzu espezializatuaren esku-hartzearen jarduketa-esparruak zehazten ditu.

113 BIS. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

31. artikulua ordeztu eta testu hau jartzea proposatzen da:

“31. artikulua. Laguntza espezialitua.

1. Laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuak dira egoitzetako edo barnetegiko prestazioak dituztenak eta ezaugarriak direla eta deszentralizatu ezin direnak.

2. Laguntza espezializatuko gizarte zerbitzuak sare baten gisa antolatuko dira lurraldean, deszentralizazio printzipioa, populazio guneen ezaugarriak eta ase behar dituzten beharren garrantzia kontuan harturik. Kasuan kasuko oinarritzko laguntzako zerbitzuan laguntza eman ondoren erabiliko dira zerbitzu espezializatuak, salbu eta erregelamenduz ezartzen diren kasuetan.

Zioak: Gizarte zerbitzu espezializatuak laguntza espezializatuaren barruan egokitzea, eta testua hobetzea lege proiektuan jasotako gizarte zerbitzuen bi mailak sartuz.

**32. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****114. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

32. artikulua.

a) letran “Oinarritzko gizarte zerbitzu batetik...” jartzen duen tokian “Oinarritzko laguntza zerbitzuetatik...” jartzea proposatzen da.

Zioak: Testua hobetzea oinarritzko gizarte zerbitzuak egokituz.

115. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

32. artikuluko –Gizarte zerbitzu espezializatuaren eginkizunak– b) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

b) Tratamendu espezializatua eskaintzea eta gizarte zerbitzuen prestazio teknikoak eta ekono-

mikoak kudeatzea, prestazioak garatzen dituzten arauei jarraikiz eta prestazioen katalogoan ezarritako baldintza eta ezaugarriekin.

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

116. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

32. artikuluari –Gizarte zerbitzu espezializatuaren eginkizunak– d) letra gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

d) Talde espezifikozko egoitzetako laguntzako baliabideak garatzea: Ezgaituentzat, tratu txarrak jasandako emakumeentzat, zaharrentzat, etab.

Zioak: Funtsezkoa iruditzen zaigu mota horretako baliabideak legean jasota egotea.

**33. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****117. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

33. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

33. artikulua. Erantzukizun publikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari, udalei eta Nafarroako gainerako toki entitateei dagokie gizarte zerbitzuen arloko eskumenak erabiltzea, foru lege honetan eta toki araubideko legetan ezarritakoarekin bat, gizarte zerbitzuen sistema publikoaren funtzionamendu egokia bermaturik egon dadin eta pertsona orok aukera berdintasunean gizarte zerbitzuez baliatzeko duen eskubidea berma dadin.

Zioak: Gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubidea unibertetsala da eta, beraz, erakunde publikoen ardura da eskubide hori bermatzea.

34. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

118. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

34. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

34. a) – Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren lege proiektua onestea ondoren Nafarroako Parla-mentuta bidaltzeko.

Zioak: Gure ikuspuntutik, hobe da Gizarte zerbitzuei buruzko Foru Legean gizarte zerbitzuen zorroaren gutxieneko garapena egitea geroztik zorro hori foru dekretuen bidez eguneratzeko. Hala ere, gobernuak edukirik gabeko lege marko bat aurkeztea erabaki duela ikusita, proposatu behar dugu gizarte zerbitzuen zorroa Nafarroako Parla-mentuak onets dezala.

119. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

34. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa.

a) letra honela geldituko da:

a) Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren lege proiektua onestea eta ondoren Nafarroako Parla-mentura bidaltzea behin betiko onets dezala.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzea.

120. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

34. artikuluko –Nafarroako gobernuaren esku-
menak– c) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

c) Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategi-koak onestea eta Nafarroako Parlamentura igor-
tzea, planak onets ditzan.

Zioak: Gure iritziz, plan horien garrantziagatik, Nafarroako Parlamentuak onetsi behar ditu, beste-ak beste, osasun planekin egiten den bezala. Hori legean jasota gelditu behar da.

121. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

34. artikuluari beste idatz-zati bat, a-bis, gehi-
tzeko zuzenketa.

a-bis) Gizarte zerbitzu orokorren zorroan eza-
rritako prestazioak berariaz arautuko dituzten dek-
retuak onestea.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzea.

35. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

122. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

35. artikuluko –Gizarte zerbitzuen arloan esku-
duna den departamentuaren eskumenak– f) letra
aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

f) Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-
aren titularitatekoak diren gizarte zerbitzu espezia-
lizatuak zuzenean sortu, mantendu eta kudeatzea.

Zioak: Gure planteamenduekin bat etortzea.

36. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

123. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

36. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Proiektuko 36. artikuluan letra bat, h), gehitzea,
eta h) letra zena i) letra bihurtuko da. Hona h) letra
berriaren testua:

“h) Titularitatea eta kudeaketa esleitua duten
gizarte zerbitzutan, zehapen ahalmenaz balia-
tzea.”

Zioak: Toki entitateen zehapen ahalmena
aurreikustea.

38. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

124. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 38. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“38 artikulua. Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak.

1. Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak gizarte zerbitzuen oinarrizko laguntzari lurralde markoa ematen dioten geografia- eta populazio-zedarrak dira, kasuan kasuko lurraldean populazioa gizarte laguntzaz baliatzea bermatzen dutenak, oinarrizko gizarte zerbitzuaren bitartez.

2. Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeen ezaugarriak erregelamenduz ezarriko dira, populazio ratioak eta premia sozialekoak kontuan harturik, eta osasun arloko eta administrazio-jardueta-rako beste arlo batzuetako zonifikazioarekin bat etortzen saiatuz. Horrez gain, aurreikusiko da jarduketa bereziko eskualdeak sortzea, ezaugarri demografiko, geografiko edo bestelakoak kontuan hartuta, eta horietan oinarrizko gizarte zerbitzua ezarri ahalko da.

Zioak: Gizarte zerbitzuen zonifikazioa administrazio publikoaren antolamendu araua da; beraz, ez da arau indarrrik ez duen plan baten bidez egin behar, baizik eta erregelamenduzko xedapen baten bidez.

125. ZUZENKETA**ARALAR**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

38. artikuluko –Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeak– 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

2. Gizarte zerbitzuen oinarrizko eskualdeen ezaugarriak Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoan ezarriko dira, populazio ratioak, ezaugarri soziodemografikoak eta premia sozialekoak kontuan harturik, betiere, toki entitateen borondatea errespetatuz.

Zioak: Gure ustez aintzat hartu behar dira toki entitateak.

39. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

126. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 39. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Gizarte zerbitzuen barrutien ezaugarriak erregelamenduz ezarriko dira.”

Zioak: Gizarte zerbitzuen zonifikazioa administrazio publikoaren antolamendu araua da; beraz, ez da arau indarrrik ez duen plan baten bidez egin behar, baizik eta erregelamenduzko xedapen baten bidez.

41. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

127. ZUZENKETA**ARALAR**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

41. artikuluko –Administrazioen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren helburu eta printzipio nagusiak– 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

3. Era berean, Nafarroako Gobernuak neurriak hartuko ditu toki entitateen jarduketa eta itundutako ekimen pribatuarenak koordinatzeko, honako hauen bitartez:

Zioak: Gure ustez konpromiso handiagoa hartu behar da.

42. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

128. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 42. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“42. bis artikulua. Nafarroako Gizarte Laguntza-ren Etika Batzordea.

1. Nafarroako Gizarte Laguntzaren Etika Batzordea kide anitzeko organoa da, aholkularitza-koa, diziplina artekoa eta independentea, eta helburu du zerbitzuetako eta zentroetako langileak sentibilizatzea egiten duten lanak duen garrantzi etikoari buruz, eta bermatzea pertsonen beren nortasuna, duintasuna eta intimitatea errespetatuz izateko duten eskubidea, inongo bazterkeriarik gabe, bai eta, era berean, jardun klinikoaren alderdi etikoak identifikatzea, aztertzea eta ebaluatzea.

2. Etika batzordearen osaera erregelamenduz ezarriko da, aniztasun irizpideei jarraikiz, eta gizarte zerbitzuen arloan eta gizarte babeseko beste sistema batzuetan prestigio handia duten profesionalak osatuko dute, kasuan kasuko elkarte profesionalak proposatuta.

3. Etika batzordearen berriazko eginkizunak erregelamenduz ezarriko dira, eta, betiere, honakoak jaso beharko dira:

a) Gizarte laguntzarekin zerikusia duten etika gaietarako buruzko irakaskuntza-eginkizunak.

b) Gai horiei buruzko ikerketa-eginkizunak.

c) Gaie horiei buruzko aholkularitza- eta irizpen-eginkizunak.

4. Erregelamenduz arautuko da arloetan edo zentroetan etika batzordeak ezartzeko aukera; batzorde horien eginkizunak artikuluko honetan araututako batzordearen berdintsuak izanen dira.”

Zioak: Gizarte zerbitzuen funtzionamendua hobetzen duen tresna hori ezartzea; izan ere, osasunaren arloan eta beste batzuetan dagoeneko ari da ezartzen.

129. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

42.3 artikulua aldatzeko zuzenketa.

42.3. artikulua gaztelaniazko testuan “..el Consejero...” jartzen duen tokian “..el/la Consejero/a...” jartzea proposatzen da.

Zioak: Legearen testuan sexuaren aldagaia sartzea.

130. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

42. artikuluko 4. idatz-zatian beste letra bat, e), gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

42.4. e) artikulua. Gizarte zerbitzu orokorren zorroaren proiektuaz informatzea.

Zioak: Gizarte zerbitzuen zorroaren garrantziagatik eta toki entitateen eskumenetan duen eraginagatik, eginkizun berri hori Gizarte Zerbitzuen Arloko Administrazio arteko Kontseiluan sartzea beharrezkoa ikusten dugu.

43. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

131. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 43. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“1. Gizarte zerbitzuen sistema publikoa administrazio eskudunen aurrekontuen kargura finantzatu da eta gizarte zerbitzuetarako diren dirusarrerak eta gastuak bereiztuta jasoko dira.

2. Nafarroako Foru Komunitateak prezio publikoak ezarri ahalko ditu zerbitzuak mantentzeko.

3. Herritarrik ezin izanen da zerbitzurik gabe gelditu baliabide ekonomiko nahikorik ez izateagatik. Lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagoko dirusarrerak dituzten pertsonen ez dute oinarriko gizarte zerbitzuak izateagatik preziorik ordaindu beharko.

4. Zerbitzuaren kalitatea, bai eta laguntza jasotzeko lehentasuna edo premia, ez du erabiltzailearen parte hartze ekonomikoak baldintzatuko.

5. Erabiltzailearen batek ez badu baliabide korronterik baina, aldiz, prestazioak eragindako gastuei aurre egiteko bidera daitekeen ondarearen titular bada, edo norbaitek betebeharrak baditu berekin, erabiltzaile horrek ekonomikoki parte hartzeko moduak ezar daitezke, eta, behar izanez gero, behar diren bermeak ezarriko dira.”

Zioak: Testu hau zehatzagoa da, hirugarren idatz-zatian gutxieneko berme bat zehazten baita.

44. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

132. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

44 artikulua aldatzeko zuzenketa.

44. artikulua.

Nafarroako aurrekontu orokorretan (...) gizarte zerbitzuen zorroan dauden prestazioak finantzatzeko behar diren kredituak (...)

Zioak: Prestazio bermatuen aipamena kentzen da, aurreko zuzenketetan ezarritakoarekin bat.

133. ZUZENKETA

ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

44. artikulua –Prestazioen finantzaketa– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Testua honela geldituko litzateke:

Nafarroako aurrekontu orokorretan eta toki entitateen aurrekontuetan prestazioen katalogoan dauden prestazioak finantzatzeko behar diren kredituak ezarriko dira urtero, herritarren eskubide subjektiboa bermatzearren. Kreditu horiek aski ez badira,...

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

45. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

134. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 45. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu horren edukiak arau-hierarkia-
ren ezohiko iraultzea dakar. Nafarroako Parlamen-
tuak, Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko
Foru Legearen bidez, azpiegitura batzuk finantzatzeko duen ahalmena mugatzen da, eta bere erabakiak Nafarroako Gobernuak onetsitako plan baten –erregelamendu izaera ere ez duena– edukiaren menpe geratzen dira. Horrela, Nafarroako Gobernua Nafarroako Parlamentuak onetsitako

xedapen orokorren menpe egon beharrea, alde-
rantziz gertatuko da eta parlamentuak onartu
beharko ditu gobernuak administrazio ekintza
baino bat ez den bidez hartutako erabakiak.

135. ZUZENKETA

ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikulua –Azpiegituren finantzaketa– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura soilik finantzatu ahalko dira Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan aurreikusirik dauden gizarte zerbitzuen azpiegitura publikoak. Azpiegitura pribatuei dagokienez, dirulaguntza eman ahalko zaie hein batean eta ratio desberdinak erabiliz irabazi asmorik gabeko giza-entitateen diren edo merkataritza enpresenak diren kontuan harturik.

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

136. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

45. artikulua. -Nafarroako aurrekontu orokorren kargura soilik finantzatu ahalko dira Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan aurreikusirik dauden gizarte zerbitzuen azpiegiturak, publikoak nahiz pribatuak, aipatu aurrekontuetan berriazko kontusail bat duten azpiegiturak izan ezik.

Zioak: 45. artikuluan ezarritakotik ondorioztatzen den helburu nagusiarekin ados egonik, salbuespenak aurreikusi behar direla uste dugu, betiere, Nafarroako Parlamentuak berez onetsi baditu.

137. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluan gehiketa egiteko zuzenketa.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura soilik finantzatu ahalko dira Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan aurreikusirik dauden gizarte zerbitzuen azpiegiturak, publikoak nahiz irabazi asmorik gabeko pribatuak.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzea.

**46. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

138. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 46. artikulua aldatzeko zuzenketa.
Testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Foru Komunitateak eta toki entitateek batera finantzatu dituzte oinarrizko gizarte zerbitzuak, foru lege honetan ezarritako irizpideekin bat.

2. Nafarroako Foru Komunitateak eta toki entitateek urtero ezarriko dute beren aurrekontuetan oinarrizko gizarte zerbitzuen guztizko kostua. Toki entitateek, esleituta dituzten eskumenak gauzatzeko beharrezkoak dituzten gastuak finantzatzeko, guztizko gastuen heren bat jarriko dute, eta, betiere, aurrekontuen %6 bideratuko dute beren lurraldeko gizarte zerbitzuetara. Nafarroako Foru Komunitateak, finantzaketarako, guztizko kostuaren bi heren jarriko ditu.

3. Nafarroako Foru Komunitateak bere aurrekontuen bidez finantzatuko ditu, betiere, gutxiengo gizarte errentak, larrialdiko laguntzak eta estatuko legedian, menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzkoan hain zuzen, bermatutako babes maila gutxiengoari dagozkion prestazioak.

4. Toki entitateek prestazio eta programa osagarriak gauzatu ahalko dituzte beren kargu, beren lurralde esparruko herritarrentzat.”

Zioak: Oinarrizko gizarte zerbitzuen finantzaketa hobetzea eta toki entitateetako aurrekontuen kargura ahalik eta gutxien gastatzen dela bermatzea.

139. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46. artikuluko –Oinarrizko gizarte zerbitzuen finantzaketa– 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ekarpena oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateekin urtero izenpetuko diren hitzarmenetan ezarriko da, eta ez da inoiz ere izanen foru lege honetan ezarritako programen

kostuaren % 50 baino txikiagoa. Edonola ere, programen kostu osoa aintzat hartuko da.

Zioak: 28.3 artikulua aipamena kentzen dugu, gure planteamenduarekin bat etorritik. Kostu osoaren aipamena egin dugu zenbait udaletan izandako arazoak direla-eta, esaterako, Iruñeko etxez-etxeke laguntza zerbitzuarekin izandakoak.

140. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46.2. artikuluko lehen lerrokada aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

46.2 artikulua. Lehen lerrokada. - Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren ekarpena oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateekin lau urtetan behin izenpetuko diren hitzarmenetan ezarriko da, eta ez da inoiz ere izanen foru lege honetan ezarritako programen kostuaren % 75 baino txikiagoa. Programen kostua zehazteko modua eta jarduketa bereziko eskualdeetarako irizpide desberdinak erregelamendu bidez ezarriko dira, 28.3 artikuluan ezarritakoa aintzat harturik.

Zioak: Lege honen bidez oinarrizko gizarte zerbitzuak herritarrak prestazioak lortzeko bide gisa eratzten badira eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak gizarte zerbitzuen zorroa eta jarduketa programak erabakiko baditu, logikoena da Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen kargura, batez ere, finantzatzea. Ez da bidezkoa alde batek prestazioak erabakitzea eta sortutako gastuaren erdia baino ez ordaintzea.

Bestalde, gure iritziz, sistemari nolabaiteko egonkortasuna eman behar zaio eta, beraz, hitzarmenek lau urteko iraupena izan behar dute, Parlamentuaren legegintzaldia bezala. Urtebeteko indarraldiak ez du egonkortasuna lortzen eta kexen, mesfidantzen eta ustekabeko defiziten egiturazko arazoak eta, oro har, bi mailen arteko etengabeko gatazkak ekar ditzake.

141. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46 artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatian hau kentzea proposatzen da:

“.. toki entitateekin urte bat baino gehiagorako izenpetuko diren hitzarmenetan ezarriko da...”

Zioak: Asmoa da toki entitateek ematen dituzten oinarritzko laguntzako zerbitzuei egonkortasuna ematea.

142. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

46 artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatian "... kostu errealaren %50 ..." gehitzea proposatzen da.

Zioak: Gizarte zerbitzuen finantzaketa dela-eta, udalek Nafarroako Foru Administrazioak baino diru gehiago ez ordaintzeko.

48. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

143. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

48. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

"1. Nafarroako Foru Komunitateak bere aurrekontuen kargura finantzatuak ditu gizarte zerbitzu espezializatuak; horretara bideratuko dira, baldin badaude, Estatuko administrazio orokorrak helburu horrekin eginiko transferentziak.

2. Toki entitateek, foru erkidegoaren plangintza orokorraren markoaren baitan, gizarte zerbitzu espezializatuak sortu, mantendu eta garatu ahalko dituzte beren herritarren gizarte beharrak betetze aldera Nafarroako Foru Komunitatearekin itunak ezarri ahalko dituzte, finantzaketa batera egiteko.

Zioak: Gizarte zerbitzu espezializatuak finantzatzeko modua gehiago zehazteko.

49. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

144. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

49. artikulua –Erabiltzaileen parte-hartzea finantzaketan– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

145. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proiektuko 49. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek prezio publikoak ezarri ahalko ditu zerbitzuak mantentzeko.

2. Herritarrik ezin izanen da zerbitzurik gabe gelditu baliabide ekonomiko nahikorik ez izateagatik. Lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagoko dirusarrerak dituzten pertsonak ez dute oinarritzko gizarte zerbitzuak izateagatik preziorik ordaindu beharko.

3. Zerbitzuaren kalitatea, bai eta laguntza jasotzeko lehentasuna edo premia, ez du erabiltzailearen parte hartze ekonomikoak baldintzatuko.

4. Erabiltzaileen batek ez badu baliabide korronterik baina, aldiz, prestazioak eragindako gastuei aurre egiteko bidera daitekeen ondarearen titular bada, edo norbaitek betebeharrak baditu berekin, erabiltzaile horrek ekonomikoki parte hartzeko moduak ezar daitezke, eta, behar izanez gero, behar diren bermeak ezarriko dira."

Zioak: Erabiltzaileen parte-hartzea finantzaketan hobeki zehazte aldera.

146. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

49.1. artikuluan lerrokada berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

49.1.artikulua. Lerrokada berria.- Ordainketako parte-hartzea ez zaie inolaz ere ezarriko lanbide-arteko gutxieneko soldata baino gutxiago irabazten duten erabiltzaileei, erabiltzaile horien ondarearen balioa gizarte zerbitzuen zorroan ezarritako zenbatekoa baino handiagoa denean izan ezik.

Zioak: Lanbidearteko gutxieneko soldata baino gutxiago irabazten duten erabiltzaileek, jasotako zerbitzuak direla-eta, ordainketan ez dezatela parte hartu behar proposatzen dugu. Salbuespena –diru kopuru hori baino gutxiago irabazi arren ondare handi baten jabe diren erabiltzaileak– gizarte zerbitzuen zorroan arautu behar da.

147. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

49.2. artikuluan lerrokada berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

49.2. artikulua. Lerrokada berria. – Autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko programan, erabiltzaileen gaitasun ekonomikoa eta baino ez da aintzat hartuko, eta ez familiarena.

Zioak: Autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko programan, ordainketako parte-hartzea ezartzen bada, erabiltzaileen gaitasun ekonomikoaren arabera kalkulatu da, eta erabiltzaileen familiarena ez da aintzat hartuko.

148. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

49. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

2. Prestazio bakoitzerako onetsiko diren arau espezifikoek erabiltzaileen parte-hartzearen zerbatekoa zehazteko irizpideak ezarriko dituzte.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzea.

149. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

49. artikuluari beste idatz-zati bat, 2-bis, gehitzeko zuzenketa.

2-bis) Edonola ere, gizarte prestazioaren finantzaketan erabiltzaileek izanen duten parte-hartzea zehaztean, honako irizpideak aztertuko dira:

– zerbitzuaren kostua

– erabiltzaileak zein neurritan erabiltzen duen zerbitzua

– Erabiltzaileek zerbitzuaren finantzaketan parte-hartzea eskatu ahalko da erabiltzailea kide den bizikidetzaren unitateak lanbidearteko gutxieneko soldataren halako bi baino gehiago irabazten duenean, beti ere bizikidetzaren unitatea kide bakarrak edo bi kidek osatzen dutenean. Aipatu muga bizikidetzaren unitateko kide berri bakoitzeko lanbidearteko gutxieneko soldataren erdia igoko da. .

– Erabiltzaileek beti izanen dute diru nahikorik eskura.

Zioak: Ordainketako parte-hartzeak gutxieneko araudia izanen du, funtsezkoa lege honetan.

**50. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****150. ZUZENKETA****ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

50. artikulua –Herritarren partaidetzaren bermea eta irismena– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Nafarroako administrazio publikoek sustatu behar dute herritarrek, erabiltzaileen elkarteek, gizarte zerbitzuetako profesionalek eta gizarte ekimeneko entitateek gizarte zerbitzuen sistemaren planifikazioan, kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten.

Zioak: Gure planteamenduekin bat etortzea.

**52. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****151. ZUZENKETA****ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

52. artikuluari beste letra bat, c), gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

52. c). – Etika Batzordea.

Zioak: Pertsonen eskubideak eta laguntzaren kalitatea bermatzeko helburua izanen duen organo aholku-emaile berri bat sortzea proposatzen dugu.

**53. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA****152. ZUZENKETA****ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

53.2.a) artikulua aldatzeko zuzenketa. Hau da testu berria:

53.2 a) - Nahitazko txostenak ematea gizarte zerbitzuen arloko arau proiektuez, gizarte zerbitzu

orokorren zorroz Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoez, plan sektorial orokorrez eta kalitate planez.

Zioak: Egoki ikusten dugu Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluak gizarte zerbitzu orokorren zorroaren proiektuaz informatzea.

54. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

153. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluko –Nafarroako gizarte Ongizatearen Kontseilua– 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. kideak eta funtzionamendua.

Hau da proposatzen den testua:

1. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluko burua gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskuduneko titularra izanen da, eta kideak, berriz, departamentu horretako ordezkariak, toki entitateetakoak, enpresa erakunde eta sindikatuetaoak, lanbide elkargoetakoak, sortzen diren gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialetakoak, unibertsitateetakoak, gizarte ekimeneko entitateetakoak eta gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden kolektiboetakoak.

154. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikulua aldatzeko zuzenketa.

1. idatz-zatian ondoko ordezkapena proposatzen da:

“.. eta kideak, berriz, departamentu horretako ordezkariak, toki entitateetakoak, arartekoaren ordezkariak, ordezkariak handiena duten enpresa erakunde eta sindikatuetaoak, erabiltzaileen elkarteoak, lanbide elkargoetakoak, sortzen diren gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialetakoak eta unibertsitateetakoak (“gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateetakoak” kentzen da).”

Zioak: Arartekoa erakunde oso egokia da herri-tarrek, gizarte zerbitzuen arloan, dituzten kezak, iradokizunak eta ekimenak ezagutzeko. Hori dela-eta, arartekoa gizarte zerbitzuen sistema hobetzeko proposamenak, gomendioak eta iradokizunak egiteko den organo baten kide izatea egoki ikusten

dugu. Erabiltzaileei dagokienez, eta gizarte zerbitzuen arloan izan behar den sentiberatasun berezia kontuan izanik, horiek ere erabakiak hartzeko organoaren kide izan behar direla uste dugu. ekimen pribatuko entitateak kendu ditugu enpresa erakunde bidez ordezkaturik daudela uste dugulako.

155. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

54. artikuluko 1. lerrokadan gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluko burua gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskuduneko titularra izanen da, eta kideak, berriz, departamentu horretako ordezkariak, toki entitateetakoak, ordezkariak handiena duten enpresa erakundeetakoak, lanbide elkargoetakoak, sortzen diren gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialetakoak, gizatalde behartsueneren entitateetako ordezkariak, unibertsitateetakoak eta gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateetakoak. Kideak eta horiek izendatzeko modua erregelamenduz ezarriko da.

Zioak: Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak ordezkatzeko dituzten entitateek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluan parte hartzen dutela bermatzea.

156. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

54.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua: kideak eta funtzionamendua.

54.2. artikuluko testua aldatzea proposatzen da.

2. Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendu araubidea erregelamenduz ezarriko da, eta edozein kasutan aurreikusitako beharko da zenbait batzorde sortu beharko direla, kalitate eta enpleguari buruz, gizarte zerbitzuen zorroaren jarraipenari eta aldaketari buruz eta zerbitzuak homologatzeko sistemari buruz.

Hau da proposatzen dugun testua:

2. Kontseiluaren antolaketa eta funtzionamendu araubidea erregelamenduz ezarriko da, eta edozein kasutan aurreikusi beharko da zenbait batzorde sortu beharko direla, enpleguko kalitatea buruz, gizarte zerbitzuen zorroaren jarraipenari eta aldaketari buruz eta zerbitzuak baimentzeko, erregistratzeko eta homologatzeko sistemari buruz.

Zioak: Kalitate eta enpleguari buruzko batzordearen izena aldatzen da eta enpleguko kalitatea izena hartuko du, zuzenagoa baita; izan ere, batzordearen eginkizuna da gai zehatz horri buruz aritzea. Aurreko izena nahasiagoa zen, kalitatea eta enplegua bereizirik aipatzean bi gai desberdin zirela zirudielako. Zerbitzuak homologatzeko sistemari buruzko batzordearen izena ere aldatu dugu eta zerbitzuak baimentzeko, erregistratzeko eta homologatzeko sistemari buruzko batzordea izena jarri diogu; horrela, batzordearen xedea proiektuaren VII. Tituluko II. eta III. kapituluetan aurreikusitako zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko sistema osora zabaldu dugu.

55. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

157. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

55. artikulua –Kontsulta-organo sektorialak– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Nafarroako Gobernuak gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialak sortuko ditu, kontsultarako.

Zioak: Gure iritziz, kontseilu sektorialen sorrera legearen bidez bermatu behar da.

158. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

55 artikulua aldatzeko zuzenketa.

“..gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialak sortu ahalko ditu...” jartzen duen tokian “..gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialak sortuko ditu...” jartzea proposatzen da.

Zioak: Kontsultarako kontseiluen garrantzia administrazioaren borondatearen –sortzeko ala ez– gainetik dago.

159. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

55. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

Nafarroako Gobernuak gizarte zerbitzuen kontseilu sektorialak sortuko ditu, kontsultarako eta gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunari atxikiak; haiek ukitzen dituzten gizarte zerbitzuen arloko politiken esparru mugatuan jardunen dute. Horien xede eta helburuak, eginkizunak, kideak eta funtzionamenduaren araubidea sortze-xedapenetan ezarriko dira.

Zioak: Foru lege honen 50. artikuluan ezarritako jarraikiz, parte-hartzea sustatzeko, kontsultarako organo horien sorrera bermatu behar da.

56. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

160. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

56.bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

56. bis.- Etika Batzordea kontsultarako organoa izanen da, lanbide artekoa eta administrazioerikiko loturarik gabekoa, lagundu beharreko pertsonen eta sektoreko profesionalen zerbitzura. Organo horrek gizarte arloko lanen ondorioz sortuko diren arazo etikoak aztertuko ditu eta horri buruzko aholkuak emanen ditu; organo horren xedea laguntzaren kalitatea eta pertsonen eskubideak bermatzea izanen da. Kontseiluko kideak, antolakuntza, eta funtzionamendu araubidea erregelamenduz ezarriko dira.

Zioak: Pertsonen eskubideak eta laguntzaren kalitatea bermatzeko helburua izanen duen organo aholku-emaile berri bat sortzea proposatzen dugu.

60. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

161. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

60. artikulua –Erreferentziazko profesionala–aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Erreferentziako profesionalaren eginkizuna erabiltzaileak behar dituen zerbitzuak eta prestazioak bideratzea izanen da, eta esku-hartze guztien globaltasuna eta koordinazioa bermatzea. Erreferentziazko profesionala erabiltzaileari dagokion oinarritzko gizarte zerbitzuko kide izanen da.

Zioak: Beharrezkoa ikusten dugu profesionalaren adskripzioa legean zehaztea.

61. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

162. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat, 61. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“61. bis artikulua. Ikerkuntzaren sustapena.

1. Ikerkuntza jarduerak gizarte zerbitzuen sistemaren maila guztietan sustatuko dira, hori sistemaren aurrerabiderako funtsezko elementutzat hartzen baita.

2. Egindako ikerketen helburu nagusia hau izanen da: herritarren bizi kalitatea hobetzea eta gizarte bazterkeria eragiten duten faktoreen aurka borrokatzea. Ikerketak Nafarroako Foru Komunitateko gizarte errealitatea ikertzera eta aztertzerako bideratuko dira bereziki; hain zuzen ere, behar egoerak eragiten dituzten arazoak ikertzera eta aztertzerako, eta prebentziorako, laguntzarako nahiz birgizarteratzeko esku-hartzeko moduak ikertzera eta aztertzerako. Era berean, gizarte zerbitzuen esku-hartzeak duten eraginkortasuna eta efizientzia ere zorrotz ebaluatuko dituzte ikerketok.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak bai ikerkuntza programak bai horiek betetzeko baliabideen esleipena koordinatuko ditu, inbertsioen ahalik eta errentagarritasun handiena lortze

aldera. Era berean, eginiko ikerketen emaitzen hedapena ere erraztuko du.”

Zioak: Gizarte zerbitzuen arloko ikerkuntza sistema hobetzeko eta garatzeko elementu gisa agertzea.

62. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

163. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

62. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

1. Lege honen ondorioetarako gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitatetzat hartuko dira gizarte ekimeneko entitatetzat har daitezkeen entitate guztiak.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzea. Horretaz gain, lege honen ondorioetarako, ez ditugu merkataritza ekimeneko entitateak aintzat hartzen, herritarren ongizateak, sektore publikoak eskaintzen dituen gizarte zerbitzuak direla-eta, ez dituelako etekinak sortu behar.

164. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

62. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzea.

165. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat, 62. bis, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

62. bis artikulua. Gizarte zerbitzuen arloko kontratuen exekuzioan errekerimendu sozialak ezartzea.

Nafarroako administrazio publikoek errekerimendu sozialak sartu beharko dituzte, nahitaez, gizarte zerbitzuen arloan egiten dituzten kontratu guztietako administrazio klausula partikularren plegetan; betiere, erreferentziakoak zaizkien kontratuen arloko legeetan ezarritakoari jarraikiz.

Zioak: Gure iritziz, hau bezalako gai garrantzitsua artikuluetan jaso behar da eta ez xedapen gehigarri batean.

66. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

166. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

66 artikuluari beste letra bat, e) letra, gehitzea proposatzen dugu

Hau da proposatzen den testua:

e) Gizarte zerbitzuetan aritzen diren langileen gizarte eta lan baldintzak.

Zioak: Gizarte langileen baldintzak bermatzea.

67. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

167. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

67. artikulua 3. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

3. Aurkeztutako eskabideari buruzko ebazpena eta jakinarazpena emateko erregelamenduz aurreikusitako epea iraganik, administrazioak interdunei jakinaraziko dizkie ezesteko arrazoiak edo, kasua bada, homologazio administratiboaren arrazoa.

Zioak: Administrazioa erantzutera behartu. Administrazioaren isiltasuna, herritarrei egindako erantzun gisa, desagertu behar da.

168. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa.

VII. tituluko III. kapitulua –Homologazio administratiboa– kentzea, 71. artikulutik 75. artikulura, alegia.

Zioak: Homologazio administratiboaren arauztea nahasgarria eta inkongruentea da. Ez dira garbi azaltzen titulartasun publikoarenak diren gizarte zerbitzuak ez homologatzeak dakartzan ondorioak Titulartasun publikoko gizarte zerbitzuen homologazioak ere, problematikoak suertatzen dira. Ez du zentzurik baimentzea zerbitzuak emateko ezarritako arauak betetzen dituztelako eta ez homologatzea. Baimentzeak gutxieneko baldintza batzuk ekarri behar dituela ematen du. Asmoa bada sektore pribatuan jardun dezaketen zerbitzu horiek kontratu baten bidez (itun baten bidez esan genukeen lehen, dagoeneko Kontratu publikoen Foru Legeak indargabetutako aurreko araudia- ren arabera) sistema publikoan sartzeko aukera izatea, arrazoizkoena da eska daitezkeen gutxienekoak administrazio klausulen orrietan jasotzea, betiere baimen hutsari dagozkionak baino balio handiagokoak badira. Hori horrela bada, administrazioak, gutxieneko horiek betetzen ote diren, kontratatu behar dituen enpresa edo entitateen kasuetan baino ez du egiaztatuko, eta ez homologazioa eskatzen duten enpresa guztien kasuetan; horrela, administrazioak egin beharreko ahalegina txikiagoa izanen da.

71. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

169. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

71. artikulua –Homologazio administratiboaren araubidea– aldatzeko zuzenketa.

Hau da ordeztu nahi den testua:

Gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateek ematen dituzten zerbitzuek, sistema publikoan sartu ahal izateko, homologazio administratiboa lortu beharko dute.

Hau da proposatzen dugun testua:

Gizarte zerbitzuen arloko ekimen pribatuko entitateek ematen dituzten zerbitzuek, sistema publikoan sartu ahal izateko, homologazio administratiboa lortzeko beharrezkoak diren baldintzak bete beharko dituzte.

Zioak: Aurreko testua ezarritakoak de facto eragozten zion administrazioari Nafarroan aritzen ez ziren entitateen zerbitzuak kontratatzea, zerbitzu zehatz horiek homologatuta egon behar zutelako. Kontratazioaren arloko Europako zuzentarauak eta

kontratuei buruzko foru legeria errespetatzeak eskatzen du kontratatze beharrezkoak diren kaudimen baldintzak betetzen dituen edozein entitate onartua izan ahal dadin. Hori dela-eta, testu berria proposatu dugu, kontratuei buruzko araudia hautsi gabe aplikatu daitekeena; horrekin batera 72. artikuluko 2. idatz-zatia ere aldatu behar da.

72. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

170. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

72.2. artikulua –Homologaziorako gutxieneko betebeharrak– aldatzeko zuzenketa.

Hau da ordeztu nahi den testua:

2. Homologazio administratiboa eskatzeko beharrezkoa izanen da, halaber, zerbitzuak foru lege honetan aurreikusitako baimen administratibo guztiak lortu izana, Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribaturik egotea, eta gutxienez ere sei hilabete bete izana jardunean foru lege honetan eta garapen xedapenetan eskatutakoarekin bat; gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak egiaztatuko du hala dela, eta zerbitzua homologazioa jasotzeko egokia dela adierazteko ebazpena emanen. Homologaziorako prozedura abiarazteko aukera ukatzen duen ebazpenaren kontra lege indardunetan aurreikusitako errekurtsu administratiboak aurkeztu ahalko dira.

Hau da proposatzen dugun testua:

2. Homologazio administratiboa eskatzeko beharrezkoa izanen da, halaber, zerbitzuak foru lege honetan aurreikusitako baimen administratibo lortzeko baldintza guztiak bete izana eta, kasu bada, Gizarte Zerbitzuen Erregistroan inskribatu ahal izateko; gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak egiaztatu beharko du hala dela, eta zerbitzua homologazioa jasotzeko egokia dela adierazteko ebazpena emanen. Homologaziorako prozedura abiarazteko aukera ukatzen duen ebazpenaren kontra lege indardunetan aurreikusitako errekurtsu administratiboak aurkeztu ahalko dira.

Zioak: 169. zuzenketarekin bat, kontratazioaren arloko Europako zuzentarauak eta kontratuei buruzko foru legeria ez hausteko –eskaten baitute kontratatze beharrezkoak diren kaudimen baldintzak bete ditzakeen edozein entitatea onartua izan ahal izatea– kendu egin behar da zerbitzua

gutxienez sei hilabete lehenagotik baimendua, inskribatua eta jardunean egon beharra; horren ordez, zerbitzu hori homologatua izateko beharrezkoak diren baldintzak bete ditzakeela egiaztatu beharko da.

73. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

171. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

73. artikulua 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

3. Aurkeztutako eskabideari buruzko ebazpena eta jakinarazpena emateko erregelamenduz ezarritako epea iraganik, administrazioak interesdunei jakinaraziko dizkie ezesteko arrazoiak edo, kasu bada, homologazio administratiboaren arrazoia.

Zioak: Administrazioa erantzutera behartu. Administrazioaren isiltasuna, herritarrei egindako erantzun gisa, desagertu behar da.

75. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

172. ZUZENKETA

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

75. artikuluko –Erreferentziazko profesionala– 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Zerbitzuaren titular den administrazioak zuzenean kudeatzen ez duenean, zerbitzuak berak neurriak ezarri beharko ditu kudeatzen duen entitateak zerbitzua homologaturik egoteko behar dena egin dezan. Administrazio titularrak gai horri dagokionez hartutako neurriak eta egindako eskerak entitate pribatuak ez betetzeak izenpetutako kontratua suntsitzea eta adjudikazio berrien kasuetan enpresa zigortzea ekar dezake.

Zioak: Gure iritziz zigorrarena erantsi behar da egoera paradoxikoak eman ez daitezen.

76. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

173. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 76. artikulua aldatzeko zuzenketa.
Honako testu hau izanen du:

“76 artikulua. Xedapen orokorrak

1. Politika publikoen ebaluazioari buruzko eta zerbitzu publikoen kalitateari buruzko Nafarroako legediaren esparruan, gizarte zerbitzuen arloan eskudunak diren organoek beren kalitatea etengabe hobetzea sustatuko dute.

2. Nafarroako Gobernuak erregelamenduz ezarriko ditu zein diren kalitate-maila gutxienekoak gizarte zerbitzuen zentro, programa eta prestazioetan, horiek publikoak nahiz pribatuak izan.

3. Aurreko idatz-zatian aipatutako arauak hone-la bereiziko dira:

a) Gizarte ekimeneko gizarte zerbitzuei baime-na emateko gutxienez eskatu beharreko mailak.

a) Gizarte ekimeneko gizarte zerbitzuei dirulaguntza publikoak emateko gutxienez eskatu beharreko mailak.

c) Titularitate publikokoak diren gizarte zerbitzuei gutxienez eskatu beharreko mailak; kudeaketa zeharkakoa bada, kasuan kasuko baldintza orri administratiboetan sartu beharko dira, eta horiek ez betetzeak zehapenak eraginen ditu, kontratua desgitea barne.”

Zioak: Proiektuaren testua hobetzea eta politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea, kontratu publikoak eta zerbitzuen kalitatea ebaluatzeari buruzko Nafarroako legeekin bat etortzea.

174. ZUZENKETA

ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

76. artikuluko –Xedapen orokorrak– 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

2. Horretarako, foru lege honen VII. tituluari, III. kapituluari, aurreikusitako homologazioa lortzeko irabazi asmorik gabeko giza entitateei dirulaguntzak eman ahalko dizkie, emandako zerbitzuek

homologazioa lortzeko eskatzen den kalitate maila beregana dezaten.

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

77. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

175. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA**
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

77.3 artikulua –Kalitate plana– aldatzeko zuzenketa.

Hau da ordeztu nahi den testua:

3. Kalitate planen edukia erregelamenduz ezarriko da, baina betiere alderdi hauek hartu beharko ditu bere baitan:

a) Lortu beharreko kalitate helburuak, zehaztuta.

b) Hobekuntzarako bide eta sistemak, orokorrak eta sektorialak.

c) Erabiltzaileen eta haien familien iritziei buruzko azterlanak.

d) Gizarte zerbitzuen sistemako zerbitzuei eskatu beharreko kalitate betebeharrak.

e) Genero ikuspegia, zerbitzuak kudeatu, antolatu eta ematean.

Hau da proposatzen dugun testua:

3. Kalitate planek, gutxienez, alderdi hauek jaso beharko dituzte:

a) Lortu beharreko kalitate helburuak, zehaztuta.

b) Hobekuntzarako bide eta sistemak, orokorrak eta sektorialak.

c) Erabiltzaileen eta haien familien iritziei buruzko azterlanak.

d) Genero ikuspegia, zerbitzuak kudeatu, antolatu eta ematean.

Zioak: Lehenik eta behin, kalitate planen edukia erregelamenduz ezartzeko beharraren aipamena kendu egin da. Gainerako planek (estrategikoen nahiz sektorialekin) ez dute erregelamenduz garatzeko beharra, planei dinamismoa emateko beharragatik eta unean uneko beharrei erantzun behar dietelako. Kalitatea etengabe bilakatzen ari denez eta guztiz dinamikoa denez, planen edukia

ere dinamikoa izan behar du Hala ere, gainerako planen kasuan bezala, foru legean plan horien gutxieneko edukia ezarri behar da. Gutxieneko edukitik d) letra ere kendu dugu, sistemaren zerbitzuei eskatu beharreko kalitate betebeharrak kalitate planetan nahitaez sartu beharra aipatzen zuena. Letra hori kendu egin behar da betebeharroriek Baimen eta homologazioei buruzko Foru Legearen (66. eta 72. artikuluetan) erregelamendu-garapenean arautzeko asmoa dagoelako; gainera, hori da betebeharrak ezartzeko toki egokia, kalitatezko gutxieneko betebeharrak direlako eta, beraz, jardun ahal izateko edo, kasua bada, homologatu ahal izateko beharrezkoak direlako.

78. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

176. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

78. artikuluko –Ikuskapenaren menpeko jarduketak– 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

2. Gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak eginkizun horiek beteko dituzten ikuskatzaileak gaituko ditu. Ikuskatzaileak administrazioaren langileak izanen dira eta aginteko agentetzat hartuko dira, beren eginkizunetan ari direnean.

Zioak: Legeak ikuskatzaileen lanpostuak publikoak izanen direla bermatu behar duelako.

177. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 78. artikuluari 3. idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Gizarte zerbitzuen arloan eskumena duten toki entitateek, beren eskumenen esparruan, ikuskatzaileak izendatu ahalko dituzte. Toki entitateak eta gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskuduna elkarlanean arituko dira ikuskatzeko eta kontrolatzeko jarduerari dagokionez.”

Zioak: Toki entitateen parte-hartzea, arlo honetan, aurreikustea.

178. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

78. artikulua.

Honako idatz-zati berria, 3.a, gehitzea proposatzen da:

“Ikuskatzaileek baimentzeko, homologatzeko eta erregistratzeko prozesu guztietan erantzukizuna izanen dute, baita entitate publiko nahiz pribatuetan, lege honen aplikazio esparruan, ezarri beharko diren aldizkako ebaluazio eta kalitate prozesu guztietan ere.

Zioak: Ikuskapen Zerbitzua ez da bakarrik zehapen espedienteak irekitzearekin lotuta egon behar; izan ere, zerbitzu mota horiek ematen dituzten entitateen ohiko jardueraren jarraipena ere egin behar du

80. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

179. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

80. artikuluko –Arau-hauste arinak– e) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure planteamenduekin bat etortzea.

180. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 80. artikuluko i) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Programak ez ezartzea, izatekotan toki entitate baten errua izanen dena, ez da konpondu behar zehapenak jarritz.

181. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

80. artikuluko –Arau-hauste arinak– i) letra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

i) Foru lege honetako prestazioen katalogoan ezarritako oinarritzko gizarte zerbitzuetako edozein programa ez ezartzea edo gaizki betetzea.

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

81. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

182. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 81. artikuluko j) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Homologazioaren arautzea kentzeko aurkezturiko zuzenketarekin bat etortzea. Horretaz gain, ulertezina da norbait sistema publikoan homologaziorik gabe sartzea (administrazioak jakin gabe?) eta gero arrazoi horregatik zigortzea (zerbitzu baten kudeaketa eman zion administrazioak berak zigortua?).

183. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 82. artikuluari f) letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“f) Hutsegite larrietan berrerortzea.”

Zioak: Erregulazioa osatzea.

184. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 81. artikuluari ñ) letra berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“ñ) Hutsegite arinetan berrerortzea.”

Zioak: Erregulazioa osatzea.

84. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

185. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

84. artikulua –Zehapen administratiboak– aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

1. Lege honetan ezarritako arauak hausteagatik, administrazio eskudunenek honeko zehapenak jarriko dituzte: onuradunek prestazioak eta dirulaguntzak galduko dituzte; zaintzaile ez-profesionalentzako isunak; zerbitzuak ematen dituzten enpresentzako isunak eta, kasua bada, dirulaguntzak galtzea, jarduerari bitarte baterako uztea edo establezimendua, lokala edo enpresa ixtea. Edonola ere, zehapenak bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli beharra eragingen du.

2. Zehapenen zenbatekoaren eta egindako arau-haustearen artean proportzionaltasuna gordetako da eta ondoko irizpideei jarraikiz jokatuko da:

- a) Arau-haustearen larritasuna.
- b) Eragindako kalteak eta asaldura nolakoak diren.
- c) Osasunaren kontrako arriskua.
- d) Ukituen kopurua.
- e) Zer etekin atera den.
- f) Nahita edo behin baino gehiagotan egin den.

3. Isunen zenbatekoa honela mailakatuko da:

a) Arau-hauste arinak: zaintzaileentzat gehienez ere 300 euroko isuna eta zerbitzu-emaileentzat gehienez ere hogeita hamar mila euroko isuna.

b) Arau-hauste larriak: zaintzaileentzat 300 eurotik 3000 eurora bitarteko isuna eta zerbitzu-emaileentzat 30.001 eurotik 90.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larriak: zaintzaileentzat 3000 eurotik 6000 eurora bitarteko isuna eta zerbitzu-emaileentzat 90.001 eurotik milioi bat eurora bitarteko isuna.

4. Prestazioak edo dirulaguntzak bertan behera uztea ekarriko duten kasuetan, zehapena arau-haustearen larritasunaren arabera mailakatuko da, hilabetetik sei hilabera bitarte.

5. Larritasun bereziko kasuetan, arau-haustea behin baino gehiagotan egitean edo ondorio larri eta nabarmeneko kasuetan, arau-hauste oso larriak zigortuko dira jardueraren aldi baterako etena-ekin, gehienez bost urtez, edo, hala badagokio, enpresa, zerbitzua edo establezimendua itxiz.

6. Zehapen prozedura bideratzen ari den bitartean, administrazio eskudunak erabaki ahalko du, kautelazko neurri gisa, araua hautsi duen partikularrari edo entitateari etetea hark aipatu administrazio publikoari eskaturiko edo administrazioetik jasotako edozein motatako dirulaguntza edo sorospen finantzario.

7. Arau-hauste larri edo oso larrien prozedura bideratzen ari den bitartean, kalte konponezinak edo konpontzen zailak eragiteko aukera badago, administrazio eskudunak erabaki ahalko du, kautelazko neurri gisa, zentroa ixtea edo jarduera etetea.

Zioak: Madrilen egindako Menpekotasunari buruzko Legearen testua idatzi dugu, gure ustez beharrezko delako erabiltzaileak, zaintzaileak eta enpresa zerbitzu-emaileak

88. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

186. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, 88. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“88. bis artikulua. Organo eskudunak.

Zehapen prozedura tramitatzeko eta zehapenak jartzeko organo eskudunak administrazio publiko bakoitzaren egitura organikoan ezarritakoak izanen dira, eta zein administrazio publikoren esparruko zentro edo zerbitzutan gertatzen den arau-haustea, administrazio hori izanen da zehapena jartzeko eskuduna.”

Zioak: Erregularizazioa proiektuan falta den alderdi batekin osatzea, eta zehapen ahalmenak dezentralizatzea zerbitzuen titularrak diren administrazioak bere gain har ditzaten; izan ere, proiektuan ematen du Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak baino ez duela zehapen ahalmenik.

89. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

187. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proiektuko 89. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“89 artikulua. Zehapen prozedura.

1. Foru lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko prozedura administrazio prozedurari buruzko oinarrizko legedian ezarritakoa izanen da, eta, kasua bada, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoa, erregelamenduz ezar daitezkeen berezitasunak galarazi gabe.

2. Zehapenetan aurreikusitako murrizketa aplikatzerik ez da izanen zehapena arau-hauste oso larri batengatik ezartzen denean.”

Zioak: Zehapen prozedura zorrotzasun tekniko handiagoarekin arautzea, eta horrela, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaz gain toki entitateak ere zehapen ahalmenaz baliatu ahal izatea.

90. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

188. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

90. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1. Zehapen prozedura abiarazi aurretik, eta pertsonentzako arrisku egoerak sortu badira, lehenbailehen desagerrarazi edo arindu behar-rekoak, organo eskudunak kautelazko neurri hauetako bat hartu ahalko du:

a) Zentroa aldi baterako ixtea, osorik edo haren zati bat, edo zerbitzua nahiz jarduerak, osorik edo haien zati bat, aldi baterako etetea.

b) Erabiltzaile berriak hartzeko debekua aldi baterako.”

Zioak: Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskuduneko kontseilaria ez dela zehapen ahalmena duen bakarra aurreikustea.

**91. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA**

189. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

91. artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“91 artikulua. Zehapenen berrinbertsioa.

1. Administrazio publiko eskudunek zehapen ekonomikoen bidez lortutakoa gizarte zerbitzuen sarea hobetzeko erabiliko dute.

2. Organo zehatzaileak erabaki dezake zehapena jaso duen pertsonak edo entitateak zehapen ekonomikoa zuzenean erabil dezala ematen duen zerbitzua hobetzeko, betiere egiaztatzen bada zehapena eragin duen arau-haustea zuzendu dela zehapen prozedura amaitu baino lehen.”

Zioak: Gizarte zerbitzuak hobetuko dituen tresna bat aurreikustea.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

190. ZUZENKETA

**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

191. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lege honetako 17. artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin bat.

192. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Bigarren lerrokadan honakoa gehitzea proposatzen da: “..gizarte zerbitzu orokorren zorrotan, gutxienez, honako prestazio hauek jaso beharko dira,...”

Zioak: 26. artikuluko 1. idatz-zatian ezarrita dagoen bezala, oinarrizko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen sisteman sartzeko atea dira. Egindako eskari guztiei, gutxienez esku-hartze prozesuan erantzun behar zaie diagnostiko soziala edo/eta soziala eta hezkuntza arlokoa izan arte, erabiltzaileari erabakiak hartzen lagunduko diona.

193. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

a) letraren amaieran jarraian azaltzen den testua gehitzea proposatzen da:

“Sistema publikoak doan bermatuko ditu ondo-ko prestazioak lau programetan: harrera, orientazioa, aholkularitza, balorazioa eta diagnostiko soziala edo/eta hezkuntza arlokoa. Baita honakoa ere:

Harrera eta orientabide sozialerako programa: Herritarrei gizarte zerbitzuen sistemaren prestazio tekniko eta ekonomikoez eta babes sozialeko gainerako sistemem prestazioez baliatu ahal izatea bermatuko zaie.

Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko programa: Udalen etxez etxeko laguntza ordainketako parte-hartze sistemaren bidez bermatuko da, premia ekonomikoen egoerei lehentasuna emanaz baina erabiltzailearen gaitasun ekonomikoa dela-eta bazterketarik ezarri gabe.

Oinarrizko laguntzako gizarteratze programa: Akonpainamendu sozialeko prestazio tekniko gizarteratze prozesuetan bermatuko da, baita aldean artean adostutako gizarteratze estrategien diseinua ere, gizarteratzeko akordioa aldean arteko konpromisorako tresna gisa erabiliz.

Oinarrizko laguntzako haur eta familientzako laguntzako programa: Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 8. artikuluan toki entitateei egokitutako eskumenak betetzen direla bermatuko da, beren eskumenen esparruan, gizarte zerbitzuen arloan, eta oinarrizko gizarte zerbitzuei dagozkien eskumenak badira.

Norberaren edo familiaren esku-hartze prozesuetan prestazio teknikoak bermatuko dira arrisku egoeretan, pertsona heldu ezgaituen tutoretza kasuetan eta epailearen erabakiz adingabeen tutoretza kasuetan.

Zioak: 26. artikuluko 1. idatz-zatian ezarrita dagoen bezala, oinarrizko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen sisteman sartzeko atea dira. Egindako eskari guztiei, gutxienez esku-hartze prozesuan erantzun behar zaie diagnostiko soziala edo/eta soziala eta hezkuntza arlokoa izan arte, erabiltzailari erabakiak hartzen lagunduko diona.

194. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

c) letran honakoa gehitzea proposatzen da: “..oinarrizko premien betetzea bermatzera zuzendutako laguntza ekonomiko puntual edo noizbehinkakoak.”

Zioak: Larrialdiko laguntzen kontzeptua eta estaldura-esparruak zehaztea beharrezkoa da.

195. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarrian gehiketa egiteko zuzenketa.

Beste letra bat gehitzea, e) alegia, proposatzen da:

e) Gizartean babesgabe eta gatazka egoeran dauden haurrei laguntzeko prestazio teknikoak, esku-hartze plana detektatu, jaso, ikertu, baloratu, diagnostikatu eta ezartzearekin lotuak, sistema publikoak doan eman beharrekoak.

Zioak: Adingabeen eskubideak babesteko bermerik hoberena da botere publikoek jarduteko irizpide homogeneoak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitateko eskumena diren adingabeei babes emateko zerbitzuen bidez.

196. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarrian gehiketa egiteko zuzenketa.

Beste letra bat gehitzea, f) alegia, proposatzen da.

f) Aldi baterako ostatua emateko baliabideak, esaterako larrialdietako zentroak eta harrera etxeak (etxerik gabeko pertsonak, tratu txarrak edo sexu erasoak jasandako emakumeak, babesgabeak).

Zioak: Premia dutenei edo familia-gatazka egoera larria edo familia-ingurune ez-egokia dutenei bermatu behar zaie norberaren egoeraren araberrako ostatu ez iraunkor batean hartuko zaiela.

197. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen gehigarrian gehiketa egiteko zuzenketa.

Beste letra bat gehitzea, g) alegia, proposatzen da.

g) Egoitza publiko nahiz pribatu edo itundu batean bizi ahal izatea, aldi baterako edo betiko, erabiltzailearen egoera ekonomikoaren arabera.”

Zioak: Menpekotasun egoera, familia-gatazka egoera larria edo familia-ingurune ez-egokia dutela-eta bizitokian jarrai ez dezaketenei bermatu behar zaie norberaren egoeraren araberrako prestazioak dituen ostatu batean hartuko zaiela.

198. ZUZENKETA

ARALAR **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zazpigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabete epean gehienez ere eratuko da Gizarte Zerbitzuen Arloko Administrazio arteko Kontseilua.

Zioak: Lege proiektuan ezarrita dagoen epea murrizteari egoki deritzogu.

199. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zazpigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

2. lerrokadan “..eta urtebeteko epean...” jartzen duen tokian “..eta sei hilabeteko epean...” jartzea proposatzen da.

Zioak: Sei hilabeteko epea nahikoa da foru administrazioa eta toki administrazioa Administrazio arteko Kontseilua osatzeko ados jar daitezzen.

200. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zortzigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean sortuko du bertan aurreikusitako Gizarte Zerbitzuen Erregistroa.

Zioak: Lege proiektuan ezarritako epeari gehiegizkoa deritzogu.

201. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bederatzigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Gizarte zerbitzuetako zentroyen ezarpena foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere bi urteko epean gauzatuko da, Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan aurreikusitakoarekin bat.

Zioak: Gizarte zerbitzuetako zentroyek lege proiektuan somatzen den garrantzia baldin badute, horiek ezartzeko gehienez ere zortzi urteko epea jartzea iraingarria iruditzen zaigu.

202. ZUZENKETA**ASKOTARIKOA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bederatzigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

Bederatzigarren xedapen gehigarria.- Gizarte zerbitzuetako zentroyak sortzea.

Gizarte zerbitzuetako zentroyen ezarpena foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere lau urteko epean gauzatuko da, Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan aurreikusitakoarekin bat.

Zioak: Proposatutako zortzi urteko epea ez zaigu beharrezkoa iruditzen, epe luzeegiko aurreikuspena baita eta, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak ahalegin handiagoa egin beharko luke.

203. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bederatzigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Gizarte zerbitzuetako zentroyak sortzea.

Gizarte zerbitzuetako zentroyen ezarpena foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere bi urteko epean gauzatuko da, Nafarroako gizarte zerbitzuen plan estrategikoetan aurreikusitakoarekin bat.

Zioak: Lehentasuna duten zentroy horiek gehienez ere bi urteko epean ezar daitezkeela bermatzea.

204. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bederatzigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

2. lerrokadan “..zortzi urteko epean...” jartzen duen tokian “..bi urteko epean...” jartzea proposatzen da.

Zioak: Gizarte zerbitzuetako zentroyak ezartzeko nahikoa deritzogu bi urteko epeari.

205. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamargarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Nafarroako Gobernuak foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean onetsi eta igorriko du Nafarroako Parlamentura Nafarroako gizarte zerbitzuen lehendabiziko plan estrategikoa.

Zioak: Gure iritziz gizarte zerbitzuen plan estrategikoa funtsezkoa da eta ez da horrenbeste denbora igaro behar onetsi arte.

206. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hamaikagarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Foru lege honetan aurreikusitako alderdi guztiak ezartzeko, gizarte zerbitzuen arloko departamentuan, gehienez ere sei hilabeteko epean, beharrezkoak diren lanpostuak sortu eta lan eskaintza publikoaren bidez beteko dira.

Zioak: Homologazio sistema gauzatuko dutenak baino langile gehiago beharko dira. Departamentuan lanpostu gehiago sortu behar da eta hori egiteko epea ezarri behar da.

207. ZUZENKETA**EUSKO ALKARTASUNA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat, hamabigarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hamabigarren Xedapen Gehigarria.- errealitate sozialaren eta gizarte zerbitzuen sistemaren behatoki bat sortzea.

1. Nafarroako Gobernuak errealitate sozialaren eta gizarte zerbitzuen sistemaren behatokia sortuko du, gizarte-gaietan eskumena duen departamentuari atxikita, eta haren eginkizuna izanen da errealitate soziala, gizarte zerbitzuen sistema eta lege hau aplikatzeko garatzen diren politiken eragina etengabe behatzea, ikertzea, aztertzea eta eguneratzea.

2.- Behatokiaren egitura erregelamendu bidez zehaztuko da.

Zioak: Gizarte politikak aplikatzean espero zen emaitza lortzen ari den egiaztatzea, gaitasun kritikoarekin aztertuz eta emaitza kaskarragoa izan duten politikak aldatuz.

**XEDAPEN IRAGANKORREI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****208. ZUZENKETA****ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nola bermatuko du departamentuak eskaintza? Ez al litzateke egokiago izanen departamentuak toki entitateak finantzatzea programaren bat falta den lekuetan horiek eman dezaten?

209. ZUZENKETA**ARALAR****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Aurreko araudiari jarraikiz emandako baimen administratiboek indarra izanen dute aurrerantzean ere. Halere, foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere urtebeteko epean, entitateak arau honen babesean ezarritako baldintza berrietara egokitu beharko dira, bestela emandako baimena galduko baitute.

Zioak: Ez dirudi zentzuzkoa horren epe luzea ematea.

210. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

2. Ierrokadan "...gehienez ere hiru urteko epean..." jartzen duen tokian "...gehienez ere urtebeteko epean..." jartzea proposatzen da.

Zioak: Egokitzapena egiteko nahikoa deritzogu urtebeteko epeari.

211. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Foru lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, foru lege honek indarra hartu eta bi urteko epean eduki beharko da homologazio administrati-boa.

Zioak: Gure iritziz epe laburragoa jarri behar da.

AZKEN XEDAPENEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

212. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan bigarrena aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

e) letran honako testu hau proposatzen da:

“e) Gizarte Zerbitzuen Foru Legean aipatu eta prestazio orokorren katalogoan jasotako prestazio ekonomikoak, pertsona fisikoen edo familien bizi premiak asetzeko xedea dutenak.”

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

213. ZUZENKETA

ARALAR

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan hirugarrena aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Nafarroako Gobernuak foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean onetsiko du prestazio orokorren katalogoa.

Zioak: Gure planteamenduarekin bat etortzea.

214. ZUZENKETA

ASKOTARIKOA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan hirugarrena aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

Azken xedapenetan hirugarrena.- Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onestea.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta gehienez ere urtebeteko epean, Nafarroako Parlamentura gizarte zerbitzu orokorren zorroa igorriko du onets dezan.

Zioak: Gizarte zerbitzu orokorren zorroa Nafarroako Parlamentuak onets dezan proposatu ditugun aurreko zuzenketekin bat. Halaber, gure ustez, epea legea onetsi ondoren hasi behar da.

215. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan hirugarrena aldatzeko zuzenketa.

2. lerrokadan “...urtebeteko epean...” jartzen duen tokian “...hiru hilabeteko epean...” jartzea proposatzen da.

Zioak: Legeak indarra hartuko du argitaratu eta hiru hilabetera; denbora hori nahikoa da gizarte zerbitzuen zorroa egina izateko, are gehiago, zerbitzuetako batzuk dagoeneko Nafarroako prentsan agertu direla kontuan izanik.

216. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan bosgarrena aldatzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

Azken xedapenetan bosgarrena. Indarra hartzea.

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Zioak: Ez dago arrazoirik arlo horretako araudi orokorra aldatzeko.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

217. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

2. idatz-zatian honako testu hau gehitzea proposatzen da:

“Familiaren ereduan izandako aldaketek eta emakumeak, azken hamarkadan, pixkanaka lan merkatuan sartzeak faktore berriak ekarri dituzte; egoera berri horrek, premia duten pertsonentzako prestazio egokiak ziurtatze aldera, gizarte zerbitzuen sistema tradizionalak ezinbestez berraztertzea dakar.

Herritarrei bitarteko eta zerbitzuak emateko marko egonkorra bermatu beharrak esparru horretan esku-hartzea ekarri behar du, babes sozialeko eredu berria eratuko duen lege baten bidez, Nafarroako Foru Komunitateak ematen duen babesa hedatu eta osatuko duena eta, halaber, gizarte laguntza gizarte zerbitzuen erabiltzaileentzat benetako eskubide subjektibo bihurtuko duena.

Asmoa da, beraz, Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuetako garapen berria eratzea, Espainiako Konstituzioak goratzen duen estatu sozialaren eredu bultzatuko duena, horretaz gain, asmoa ere bada botere publikoen konpromisoa lortzea, gizarte zerbitzuen sistema unibertsala, kalitatezkoa eta berme izanen duena gauzatze aldera behar diren baliabideak sustatu eta eman ditzaten.”

Zioak: Ongizate estatuaren laugarren zutabea sendotzeko, herritarrei bermea duen sistema bat, unibertsala eta kalitatezkoa ziurtatu behar zaie.

218. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

10. idatz-zatian ondokoa gehitzea proposatzen da:

“Lege proiektu honen marko juridikoak erantzukizun publikoko gizarte zerbitzuen sistema bat ezarri behar du, herritarren beharrak zeharo asetzeko gauza dena. Herritarrek askatasuna eta berdintasuna egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezkeen beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko dituzten eskubide subjektiboak argi eta zehatz aitortzea; horrek gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubidea benetan unibertsala bihurtuko luke.

Testuinguru horretan, ekimen pribatuak sistema publikoa lagundu behar du eskatuko zaizkion eginkizunetan.”

Zioak: Administrazio publikoak behar diren prestazio tekniko eta ekonomikoak bermatu behar ditu, haren ardura baita, eta gizarte zerbitzuen arloko enpresa pribatuek, hala eskatzen zaienean, laguntza eman behar dute.

219. ZUZENKETA


**ARALAR
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

III. kapituluko izenburua aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

Prestazioen katalogoa eta gizarte zerbitzuen zorroa.

Zioak: Bi kontzeptuak bereiztea funtsezko iruditzen zaigu. Gure iritziz, prestazioen katalogoa legean zehaztu behar da.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	